

ELIZEAREN  
OTOITZA



*Elizearen Otoitza*





EUSKERATZAILLE:  
Kerexeta'tar Jaime.

© Kerexeta'tar Jaime.

BEAR DAN BAIMENAZ.

ARGITARATZAILLE:  
«La Gran Enciclopedia Vasca».  
Calzadas de Mallona, 8, 2.º.  
Bilbao-6.

Depósito Legal: VI - 161 -1982.  
I. S. B. N.: 84-248-0745-6.

Irar-lantegia:  
Gráficas ESET.  
Apartado 86. Gasteiz-Vitoria (Araba).

## AURKIBIDEA

Orrialdea

Berba bi ... ..	IX
Sarrera ... ..	XI
Orduen liturjiaren gaiak ... ..	XIII
Eskaria egiteko erabidea ... ..	XV

### GOIZEKO OTOITZA

GORAPENAK ... ..	1
I Domekea ... ..	3
II Domekea ... ..	13
III Domekea ... ..	23
IV Domekea ... ..	34
Asteleena ... ..	45
Martitzena ... ..	55
Eguastena ... ..	66
Eguena ... ..	77
Barikua ... ..	87
Zapatua ... ..	97

### ARRATSALDEKO OTOITZA

BEZPERAK ... ..	107
I Domekea ... ..	109
II Domekea ... ..	119
III Domekea ... ..	129
IV Domekea ... ..	140
Asteleena ... ..	150



---

 Orrialdea
 

---

Martitzena ... ..	159
Eguastena ... ..	168
Eguena ... ..	178
Barikua ... ..	188
Zapatua ... ..	197

## GEIGARRIAK

I. <i>Liturji-aldiak</i> ... ..	207
Abendu-aldia ... ..	209
Gabonaldia ... ..	215
Garizumaldia ... ..	221
Pazko-aldia ... ..	227
II. <i>Jaunaren, Andra Maria'ren eta Santuen     jaiegunak</i> ... ..	233
Jaunaren jaiak ... ..	235
Santuen jaiak ... ..	242
III. <i>Egun-bitarteko ordua</i> ... ..	249
IV. <i>Gabeko otoitza</i> ... ..	257
Iztegitxoa ... ..	266

## B E R B A   B I


*Bilbotar euskaldun batzuek “La Oración de la Iglesia” euskeratzeko eskatu dauste. Emen dozu, ba, eliztar euskaldun orrek, liburu atse-gingarri au, zure barruak Jaungoikoagaz, zeruko gure Aitagaz, alkarrizketan jardun dagian.*

*Erderaz —gasteleraz— zazpi argitarapen atara dabez, millaka ale. Arein artean liburu au ainbeste zabaldu ba'da, ez al-da egoki etorri-ko geuretzat be, euskaldunontzat?*

*Liburuaren azken-aldean, Iztegitxoa dator, berba gutxi-erabillien esanaiaz.*

*Liburu au be, kristau-bizikeran aurrera egi-teko izan dakizula, euskal-eliztar orri.*

## K E R E X E T A



## SARRERA

Jesus'ek bere Elizeari  
Ebanjelioa zabaltzeko, irakasteko eta sakramen-  
tuak ospatzeko eginkizuna emon eutsanez,  
otoitz egiteko arazoa be emon eutsan :  
“Bearrezkoa da beti ta eten bagarik otoitz egi-  
tea” (Lk 18, 1).

Orregaitik, Elizeak, Jesus'en aginduari zintzoro  
eutsirik, bere asierarik,  
eguneko une batzuetan otoitzari ekiten dautso.

Elizeak otoitz egiten dau, bai,  
Eukaristia eta beste sakramentuak ospatzen dau-  
zanean ;  
baiña eguneko une batzuk be otoitz-aldirako ar-  
tzen dauz  
eta “Orduen Liturjia”-ren otoitzaz eskintzen.

Oneixek dira ordu bi nagusiak :  
“Gorapenak” : goizeko otoitza,  
eta “Bezperak” : illuntzeko otoitza.

Leku bakotzeko Elizea  
—parrokia, lagunartea, eliztar-taldea—  
otoitz egiteko batzen danean,  
bere eskaria Eliza guztiaren otoitza da,  
Kristo'gaz eta Kristo'ren bitartez otoitz egiten  
dauana ;  
Kristo'ren Gorputzaren otoitza da, ba.

Elizeak otoitz egiten dauanean,  
gotzaiñak edo beronen ordezkariak  
—abadeak, diakonuak—  
buru dirala,  
Kristo otoizgille ta bitartekoa obeto agertzen da.

Orregaitik, "Orduen Liturjia"  
alkarregaz batera ospatzea da onena.  
Alan be,  
ondo da bakotxak bakarrean egitea be,  
eliztarrak alkarregaz batera ezin ospatu daike-  
nean.



## ORDUEN LITURJIA OSOTZEN DABEN GAIKI BATZUK

**GORAPEN-ABESTIAK.**—Eskarirako asiera-abestiak dira; gure barrua eguna ospatzeko gertatzen dabe, asierarik eguneko (goizeko edo aratsaldeko) edo liturji-aldiko une egokian jarten gaituela.

**SALMUAK ETA ABESTIAK.**—Salmuetako liburutik eta Alkartasun Zaarreko eta Barriko beste liburu batzuetatik jasotako olerkiak dira. Euren egilleek Espiritu Santuaren argitasunez idatzi ebezan.

Gizonen adimena Jaungoikoaganantz jasoteko indarra dauke, gizonakan biozkada santu ta jainkozaleak biztuten dabez, era miragarritz pozaldietan eskerrak emoten laguntzen dautsee eta naibage-aldian espiritu-poza eta sendotasuna lortzen dautseez.

Ona emen gai-sorta bat :

- *Jaungoikoari gorapena*, Beronen salbamen-ekintza gogoraturik (salmuetan, gorapena da nagusi);
- *erosta*, eskaria edo bearrianak agertzea Jaungoikoaren aurrean;
- *pekatuagaitik autorpen* apala ta uste onetako;
- *eskerrona*, artutako mesedeakaitik;

— Jaungoikoaren Legea ta Itz eskatzaillea *ausnartzea*.

Salmu bakotxak asiera-oar labur bat dakar, salmuko gai nagusia aztertzen laguntzeko.

Bearrezkoa da salmuak Alartasun Barria aurrean izanik irakurtea, Kristo, Beronen Egintza salbatzaillea, bere Elizea gogoan erabillirik: salmuak agoz esatea kristau-otoitza izan daiten. Salmu-aurreko adierazpen laburrak, salmuak orretara ulertzen laguntzen dau.

**BIBLIAKO IRAKURGAI LABURRAK.**—Eguneko (goizeko edo arratsaldeko) uneari dagokioz, edota ospatzen dan liturji-aldiari. Garrantzi andiko bururapenak sarrerazoten dauskuez, eta kristau-bizitzarako goiburutzat balio dabe.

**AUSNARTZE-ISILLALDIA.**—Biotzetan Espiritu Santuaren abotsa sartzea lortzeko da, baita bakotxaren otoitza Jaungoikoaren Itzaz eta Elizaren abotsaz estuago batzeko be. Isillaldi ori, irakurgaiaren ostean bakarrik ez, baita salmu bakotxaren ostean be egin daiteke.

**EBANJELIOKO ABESTIAK.**—San Lukas'en Ebanjeliotik artutako *Benedictus* eta *Magnificat* ize-neko abestiak, Erospen-egintzagaitik gorapena ta eskerrak emotea adierazoten dabez.

## ESKARIA EGITEKO ERABIDEA

1. ASIERARAKO ESKARI LABURRA.
2. GORAPEN-ABESTIA.—Liturji-aldietan gorapen-abesti egokiagoa aukeratu daiteke.
3. SALMUA.—Iru dira, bakotxa bere antifonaz. Otoitza alkarregaz batera egiten danean, otoitza zuzentzen dauanak esaten dau antifona. Jarraian, guztiak batera esaten edo abesten dabe salmua. Talde bitan be banandu daitezke, salmu-esanaldiak txandaka esanaz edo abestuaz. Salmu batzuk, bearbada, batek bakarrik irakurtea obeto litzake, gaiñetikoak entzuten dabela. Salmua amaitzean, guztiak diñoe antifona. Barriro be esan daiteke salmua esaten dan artean, esanaldi bakotxa amaitzean. Salmu bakotxaren artean, egoki da isillaldi labur bat, bakotxak berak ausnartu dagian.
4. BIBLIAKO IRAKURGAI LABURRA.—Lagunartean ospatzen danean, abagadune batzuetan irakurgaiari buruz azalpen labur bat egin daiteke, bakotxaren otoitza errazteko.
5. AUSNARTZE-ISILLALDIA.



6. JAUNGOIKOAREN ITZARI ERANTZUNA.—Buru egiten dauanak leenengo esanaldia diño, eta jarraian bigarrena esaten dabe guztiak batera.
7. EBANJELIOKO ABESTIA.—Salmuak lez esaten edo abesten da.
8. ESKARIAK.—Buru egiten dauanak otoitz-deia diño. Otoitza zuzentzen dauanak otoitz bakotxeko leenengo zatia esaten dau, eta guztiak batera jarraitzen dabe marrazotik aurrera; baita beste onetara be egin daiteke: otoitza zuzentzen dauanak, eskari bakotxa osorik esaten dau, eta beste guztiak eskari-barruan datorren erantzunaz beraz erantzuten dabe.
9. GURE AITA.—Guztiak batera esaten dabe.
10. OTOITZA.—Buru egiten edo otoitza zuzentzen dauanak esaten dau.
11. AMAIERA.—Ospakizunean buru egiten dauana gotzaiña, abadea edo diakonua danean, amaitzean azken-bedeinkapena emoten da.


## GOIZEKO OTOITZA

### G O R A P E N A K

*Goizeko Otoitza (Gorapenak), egun bakotxeko gure arazo ta egikizun guztiak eskintzen dauzan eskaria da.*

*Egunaren asieran ospatzen dan Liturji-Ordu onek Jesus'en Biztuerea ekarten dau gogora, andra-gizon guztiak argitzen dauzan egiazko Argia, goitik jaioten dan egiazko zuzentasun "Eguzkia".*

*Orregaitik, Zipriano santuañk auxe diño:  
"Goizean, otoitz egin dagigun Jaunaren Biztuerea ospatzeko".*



# I DOMEKEA

## GORAPENAK

### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

*Batek.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.

*Erantzun.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.

Aintza Aaitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-domeketan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

Kristo,  
munduko poza,  
Aitaren aintzaren ditzira.  
Bedeinkatua izadiari zeure ditzira  
iragarten dautsan goiza!

Leenengo Egunean,  
zure Biztuereak poztu egiten eban  
Aitaren Biotza.

Leenengo Egunean,  
gauza guztiak onak zirala ikusi eban,  
zeure Aintzan eskuartzen ebelako.

Kristo,  
munduko poza,  
Aitaren aintzaren ditzira.  
Bedeinkatua izadiari zeure ditzira  
iragarten dautsan goiza!

Goizak zeure biztuerea  
ospatzen dau;  
goiza Pazko-argitasunez poztu egiten da.  
Zeure billa, ikasle gaztea lez,  
jagiten da lurra,  
illobia utsik dagoala jakiñik.

## SALMUTEGIA

## 1° ANTIFONA

Zeugaitik jagiten naz goiz, ene Jainko, zeure in-  
darra ta aintza begiratzeko, aleluia.

SALMUA : 62, 2-9

*Arimea, Jaungoikoaganako egarri da.*  
*Illunpeetako egintzak bastartzen dauzan*  
*edonor, goiz jagiten da Jaungoikoagaitik*  
*(ORIGENES).*

Ene Jainko, zeu zara nire Jainko,  
zeugaitik jagiten naz goiz;

zeure egarri da nire arimea,  
lur legorraren, agortuaren eta ur bagarikoaren  
antzera.

Ni bai zuri begira jauretxean,  
zeure indarra ta aintza ikusiz!

Zure graziak biziak baiño geiago balio dau,  
nire ezpanak goratu egingo zaitue.

Nire bizitza guztian bedeinkatu zaitut  
eta zeuri dei egiñez jasoko dodaz eskuak.

Gantzez eta guriñez lez aseko naz,  
eta nire ezpanak poz-bitsetan goratuko zaitue.

Ogean zeu ekarten zaitut gogora,  
zeu ausnartzen zaitut nire gaualdietan :

zeu izan zintzazan nire laguntza-ta;  
pozik abesten dot zure egoen gerizpean;

nire arimea zeuri lotuta dago,  
eta zure eskumeak eusten daust.

Aintza Aitari, eta Semeari,  
eta Espiritu Santuari.

Leen lez, orain eta beti,  
gizaldien gizaldietan. Amen (Aleluia).

ANT. Zeugaitik jagiten naz goiz, ene Jainko,  
zeure indarra ta aintza begiratzeko, ale-  
luia.

## 2° GARREN ANTIFONA

Gurtu dagigun Jauna, zeru-lurrak egin ebazana.



ABESTIA. Dn 3, 57-88.56

*Goratu begi Jauna izadi guztiak.*

*Goratu egizue Jauna, Beronen morroi guztiok (Ag 19, 5).*

Jaunaren izaki guztiok, bedeinkatu egizue Jauna, goratu ta ospatu egizue betiraun guztian.

Jaunaren aingeruok, bedeinkatu egizue Jauna; zeruok, bedeinkatu egizue Jauna.

Zerupeko urok, bedeinkatu egizue Jauna; Jaunaren gudarozteok, bedeinkatu egizue Jauna.

Eguzki-illargiok, bedeinkatu egizue Jauna; zeruko izarrok, bedeinkatu egizue Jauna.

Euri ta iruntzok, bedeinkatu egizue Jauna; aize guztiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Su ta berook, bedeinkatu egizue Jauna; otz eta izotzok, bedeinkatu egizue Jauna.

Iruntz eta edurrok, bedeinkatu egizue Jauna; karrakaldo ta izotzok, bedeinkatu egizue Jauna.

Zurdai ta edurrok, bedeinkatu egizue Jauna; gau ta egunok, bedeinkatu egizue Jauna.

Argi ta illunok, bedeinkatu egizue Jauna; oiñaztarri ta odeiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Bedeinkatu begi lurrak Jauna, goratu ta ospatu begi betiraun guztian.

Mendi ta tontorrok, bedeinkatu egizue Jauna; lurrean erneten zareen guztiok, bedeinkatu egizue Jauna;

Iturburuok, bedeinkatu egizue Jauna; itsaso ta ibaiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Itsas-pisti ta arraiñok, bedeinkatu egizue Jauna; zeruko egaztiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Pisti ta abereok, bedeinkatu egizue Jauna; goratu ta ospatu egizue betiraun guztian.

Gizaseme guztiok, bedeinkatu egizue Jauna; bedeinkatu begi Israel'ek Jauna.

Jaunaren abadeok, bedeinkatu egizue Jauna; Jaunaren morroiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Arima ta espiritu zintzook, bedeinkatu egizue Jauna; santu ta biotz-apalok, bedeinkatu egizue Jauna.

Ananias, Azarias eta Misaël, bedeinkatu egizue Jauna; goratu ta ospatu egizue betiraun guztian.

Bedeinkatu dagiguzan Aita ta Semea, †  
Espiritu Santuagaz batera, \*  
goratu ta ospatu dagiguzan betiraun guztian.

Bedeinkatua Jauna zeruko izartegian, goratua ta ospatua betiraun guztian.

*Ez da esaten Aintza Aitari.*

ANT. Gurtu dagigun Jauna, zeru-lurrak egin ebazana.

3<sup>o</sup> GARREN ANTIFONA

Poztu daitela Jaungoikoaren erria bere Erregeagaitik, aleluia.

SALMUA : 149

*Santuen poza.*

*Jaungoikoaren erri barria diran Elizearen semeak, euren Erregeagan, Kristo Jaungoan, poztuten dira (HESKIO).*

Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat,  
entzun bedi gorapena Arentzat zintzoen batza-  
rrean ;

poztu bedi Israel bere Egilleagaitik,  
eta Sion'go semeak euren Erregeagaitik.

Goratu egizue Aren izena dantzaketaz,  
abestu egiozue danbolñez eta zitaraz ;

Jaunak bere erria maite dau-ta,  
eta apalak garaipenez apaintzen dauz.

Ospatu dagiela zintzoak Aren aintza  
eta abestu dagiela pozik erreskadan :

Jainkoari goraka agoaz  
eta ago-biko ezpataz eskuetan :

erriakandik ordaintza artzeko  
eta naziñoai zigorra emoteko,

erregeak txirrindolaz lotzeko,  
andikiak burdiñazko estunez.

Idatzita dagoan epaia burutzea  
gorapide yake Aren zintzo guztiai.

Aintza Aitari, eta Semeari...

ANT. Poztu daitela Jaungoikoaren erria bere  
Erregeagaitik, aleluia.

## JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-domeketan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna eta eska-riak aldi orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarrria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Ag 7, 10.12

Gure salbamena, aulkian jesarrita dagoan geure Jaungoikoari zor dautsagu, eta geure Bildotsari! Bedeinkapena, aintza, jakituria, eskerrak emotea, dedua, aal-izatea eta indarra geure Jaungoikoarenak dira gizaldiz-gizaldi. Amen.

## ITAUN-ERANTZUNA

B. Kristo, Jaungoiko biziaren Seme ori, erruki zakiguz.

E. Kristo, Jaungoiko biziaren Seme ori, erruki zakiguz.

B. Aitaren eskumaldean jesarrita zagozan ori.

E. Erruki zakiguz.

B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

E. Kristo, Jaungoiko biziaren Seme ori, erruki zakiguz.

EBANJELIOKO ABESTIA (Benedictus)

ANT. Bedeinkatua gure Jainko Jauna.

ABESTIA. Lk 1, 68-79

Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna, \*  
bere erriari laguntza ekartera †  
eta askatasuna emotera etorri da-ta.

Dabid bere morroiaren ondorengoan artetik  
orain salbatzaille indartsu bat sortu dausku.

Au, aspaldidanik agindu izan eban  
bere profeta santuen bitartez :

Gure arerio ta gorrotatzailleakandik  
onik atarako genduzala ;

gure aurretikoai erruki izango yakela  
eta beteko ebala bere alkartasun santua.

Eta auxe da Abraham gure aitari  
egin eutsan zin sendoa :

gure arerioakandik askatu egingo genduzala,  
bildur bagarik otseindu dagigun  
gure bizitza guztian,

Berari eskiñiak izan yakozanak lez,  
zuzentasunaren billa diarduenak lez.

Zu, barriz, nire seme ori,  
Jaingoiko gorengoaren profeta izango zara,

Jaunaren aurretik joango zara-ta  
Aren-etorrerea atontzen.

Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren  
erriari,

baita pekatuen parkamena be ;

izan be, gure Jaungoikoak, †

guganako ontasunez beterik, \*

goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,

illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak †

argitasunez beteteko, \*

gure oinkadak bake-bideetan zuzentzeko.

Aintza Aitari, ta Semeari...

ANT. Bedeinkatua gure Jainko Jauna.

#### ESKARIAK

Goratu dagigun Jesus Jauna, andra-gizon guz-  
tiak argitzen dauzan argia eta illuntzerik eza-  
gutzen ez dauan zuzentasun-Eguzkia, eta esan  
daiogun :

*Jauna, geure bizia ta salbamena!*

Izadiaren Egillea, orain asten dan egun barria-  
gaitik zuri eskerrak emotean,

—auxe eskatzen dautsugu : zure biztuera santua-  
ren gomutapena geure poza izan daitela do-  
meka onetan.

Zure Espiritu Santuak zeure naia beteten iraka-  
tsi daiskula,

—eta zeure jakituriak zuzendu dagizala gaur gu-  
re egitekoak.

Domeka onetako Eukaristia ospatzean, zure  
Itzak pozez bete gagizala,



—eta zure Semearen janaldian eskuartzeak geituazo dagiala gure itxaropena.

Zure esku-zabaltasunak emoten dauskuzan miragarriak begiratzan jakin dagigula,  
—eta egun guztian eskerrak emoten bizi gaitetzala.

Beste asmo batzuk be agertu daitezkez gainera.

Esan dagigun orain, guztiok batera, Jaunak berak irakatsi euskun otoitza: Gure Aita, zerruetan zarana...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Jauna, Jainko guztiaalduna,  
egun onetako asierara elduazo gaituzuuna:  
onik atara gagizuz gaur zure aal-izateaz,  
pekatu baten be jausi ez gaitetzan;  
gure berbak, bururapenak eta egitekoak  
zeure aginduen bideari jarraitu dagioen.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde,  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.

## II DOMEKEA

### GORAPENAK

#### SARRERA

*B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.

*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.

Aintza Aitari, ta Semeari...

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-domeketan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean,  
gabetik urten gara eta argiaren begia eldu da;  
berbiztua ta berbiztaille eltzen yakun  
argiaren poza agurtzen dogu.

Gizona, lotatik, bere gomutamenera biurtzen da  
barriro,  
bere lanera doa, bere miñetara jagiten da;  
lurra emoten dautsazu eta arratsaldea  
ogiz aberats eta izerdiz samin aurkitzen dozu.  
Eta Zu poztu egiten zara, Jainko!, eta aren esku  
laburretan

Zuk luzatu egiten dozuz zure esku aaltsuak,  
eta orrela biok gorputz osoz egiten diarduzue,  
orrela biok gauzak zaintzen.

Bedeinkatua goiza, Zu gazterik,  
aintzaz eta aal-izatez zagozaneko albistea da-  
kar-eta!;

Kristo'ren illobia utsik dagoala  
iragarten dau egunak ziurtasun baretsuz!

## SALMUTEGIA

## 1° ANTIFONA

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena, aleluia.

## SALMUA: 177

*Garaipenaren ostean eskerrak emoteko gorapen-  
abestia.*

*Jesus da zuek, etxe-egilleok, baztartutako  
arria, eta giltzarri biurtu dana (Ap 4, 11).*

Emon egiozue eskerrak Jaunari, ona da-ta,  
Aren errukia beti-betikoa da-ta.

Esan begi Israel'en etxeak:  
betikoa da Aren errukia.

Esan begi Aaron'en etxeak:  
betikoa da Aren errukia.

Esan begie Jaunaren zintzoak:  
betikoa da Aren errukia.

Arriskuan Jaunari egin neutsan deadar,  
eta entzun egin eustan, ni onik atararik.

Jauna neugaz dago: ez dot bildurrik;  
zer egin aal izango daust gizonak?

Jauna neugaz dago eta laguntza emoten daust,  
nire arerioen ondamendia ikusiko dot.

Obe da, ustea gizonakan jartea baiño  
Jaunaren aterpean egotea;

obe da, ustea nagusiakan jartea baiño  
Jaunaren aterpean egotea.

Erri guztiak inguratzen nenduen:  
Jaunaren izenean baztatu egin nebazan;

estutu egiten nenduen inguruan:  
Jaunaren izenean baztatu egin nebazan;

erlamiñoak lez inguratzen nenduen, †  
sua sasia lez erreten zirala: \*  
Jaunaren izenean baztatu egin nebazan.

Bultza ta bultza egiten eusten ni lurrera botateko,  
baiña Jaunak lagun egin eustan;

Jauna da nire indarra ta adorea.  
Bera da nire salbamena.

Entzun egizue: garaipen-abestiak dira  
zintzoen txaboletan:

“Aaltsua da Jaunaren eskumea, †  
bikaiña da Jaunaren eskumea, \*  
aaltsua da Jaunaren eskumea”.

Ez, ez naz ilgo, bizi baiño,  
eta Jaunaren arrigarriak azalduko dodaz.

Zigortu, bai, Jaunak zigortu egin nenduan,  
baiña ez nenduan eriotzaratu.

Zabaldu egidazuez garaipenaren ateak,  
eta Jaunari eskerrak emoteko sartuko naz.

Auxe da Jaunaren atea :  
andixek sartuko dira irabazleak.

Eskerrak emoten dautsudaz, entzun nozulako  
eta neure salbamen izan zaralako.

Etxegilleak baztartutako arria  
orain giltzarri da.

Jauna da ori egin dauana,  
mirari argia da.

Jaunak egin eban eguna da au :  
izan bedi gure poza ta gure atsegiña.

Emoiguzu salbamena, Jauna.  
emoiguzu zoriona, Jauna.

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena,  
Jaunaren etxetik bedeinkatzen zaituegu;

Jauna Jainko da,  
Berak argitzen gaitu.

Eratu egizue ibillaldi bat abarrakaz  
altarearen ertzeraño.

Zeu zara nire Jainkoa, eskerrak emoten dautsu-  
daz,  
ene Jainko, goratzen zaitut.

Emon egiozuez eskerrak Jaunari, ona da-ta,  
Aren errukia beti-betikoa da-ta.

ANT. Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena,  
aleluia.

## 2º GARREN ANTIFONA

Abestu daiogun gorapen-kantu bat gure Jainko  
Jaunari, aleluia.

ABESTIA. Dn 3, 52-57

*Izadi guztiak Jauna goratu dagiala.*

*Bedeinkatua beti Egillea (Erm 1, 25).*

Bedeinkatua gure aurretikoen Jainko Jauna :  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Bedeinkatua zure aintzaren izen santua :  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Bedeinkatua Zeu zure aintza santuaren jaure-  
txean :  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Bedeinkatua Zeu zure erreiñuko aulkian :  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Bedeinkatua Zeu, kerubiñen gaiñean jesarrita, †  
lezak begien aurrean dozuzan Ori : \*  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Bedeinkatua Zeu zeruko izartegian :  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.



Jaunaren izaki guztiok, bedeinkatu egizue Jauna, goratu ta ospatu egizue betiraun guztian.

ANT. Abestu daiogun gorapen-kantu bat gure Jainko Jaunari, aleluia.

### 3'GARREN ANTIFONA

Jaunaren morroiok, abestu egizue gorapen-kantu bat gure Jainkoari, aleluia.

SALMUA: 150

*Goratu egizue Jauna.*

*Esan salmuak biotzez, esan salmuak zuen adimen guztiaz, edo bardin dana: goratu egizue Jainkoa zuen gorputz-arimaz (HE-SIKIO).*

Goratu egizue Jauna Aren jauretxean, goratu egizue Aren izartegi sendoan.

Goratu egizue Aren egintza arrigarriakaitik, goratu egizue Aren andi-izate zabalagaitik.

Goratu egizue turuta-otsez, goratu egizue arpaz eta zitaraz,

goratu egizue tanborrez ta dantzaketaz, goratu egizue turuta-biurrez ta txilibituz,

goratu egizue txilin zoliz, †  
goratu egizue txilin dardaratsuz. \*

Arnasea dauken guztiak, Jauna goratu begie.

ANT. Jaunaren morroiok, abestu egizue gorapen-kantu bat gure Jainkoari, aleluia.

### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-domeketan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna eta eska-riak aldi orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Ez 36, 25-27

Ur garbia isuriko dot zuen gainera, eta garbi itziko zaitue; Neuk garbituko zaituet, bai, zuen loi ta sasi-jainkokeri guztietatik; biotz garbia emon eta espiritu barria isuriko dautsuet; zuen gorputzetik arrizko biotza kendu, eta aragizkoa ipiñiko dautsuet. Neure espiritua isuriko dautsuet, neure agindupean ibilli zaitezzen, eta neure legeak gorde ta bete dagizuezan.

### ITAUN-ERANTZUNA

B. Eskerrak emotea dautsuguz, Jainko, zure izenari dei egiñik.

E. Eskerrak emoten dautsuguz, Jainko, zure izenari dei egiñik.

B. Zeure miragarriak abesturik.

E. Zure izenari dei egiñik.

B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

E. Eskerrak emoten dautsuguz, Jainko, zure izenari dei egiñik.

EBANJELIOKO ABESTIA (Benedictus)

ANT. Erruki, Jauna, eta gomuta zaitez zure alkartasunaz.



ABESTIA. Lk 1, 68-79

Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna, \*  
bere erriari laguntza ekartera †  
eta askatasuna emotera etorri da-ta.

Dabid bere morroiaren ondorengoen artetik  
orain salbatzaille indartsu bat sortu dauku.

Au, aspaldidanik agindu izan eban  
bere profeta santuen bitartez :

gure arerio ta gorrotatzailleakandik  
onik atarako genduzala

gure aurretikoai erruki izango yakela  
eta beteko ebalá bere alkartasun santua.

Eta auxe da Abraham gure aitari  
egin eutsan zin sendoa :

gure arerioakandik askatu egingo genduzala, \*  
bildur bagarik otseindu dagigun †  
gure bizitza guztian,

Berari eskiñiak izan yakozanak lez,  
zuzentasunaren billa diarduenak lez.

Zu, barriz, nire seme ori,  
Jaungoiko gorengoaren profeta izango zara,

Jaunaren aurretik joango zara-ta  
Aren etorrerea atontzen.

Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren  
erriari,  
baita pekatuen parkamena be :

izan be, gure Jaungoikoak, †  
guganako ontasunez beterik, \*  
goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,  
illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak †  
argitasunez beteteko, \*  
gure oinkadak bake-bideetan zuzentzeko.

Aintza Aitari, ta Semeari...

ANT. Erruki, Jauna, eta gomuzta zaitetz zure al-  
kartasunaz.

#### ESKARIAK

Emon daioguzan eskerrak gure Salbatzailleari,  
mundura "Jaungoikoa gugaz" izateko etorri  
da-ta; esan daiogun uste onez beterik :

*Kristo, zeruko Errege, izan zaitetz gure argi ta  
poz.*

Jesus Jauna : goitik jaioten zaran eguzki ta gi-  
zadi herbiztuaren asikin zara :

egizu, zeuri jarraiturik, iñoiz be ez gaitetzala  
eriotz-gerizpetan ibilli, beti biziaren argia  
euki dagigula baiño.

Jakiten ikasi dagigula, Jauna, izaki guztiak zeure  
bikaintasunez beterik dagozala :

onela, izaki guztietan, zeuri begira egoten ika-  
si dagigun.

Ez itzi, Jauna, gaur gu gaiztakeriaren azpian  
jausten ;

emoiguzu, osterá, zure indarra, on egiñaz gaiz-  
takeria azpiratu dagigun.

Joan'ek zu Jordan'en bateatuta gero, Espiritu Santuaz igurtzia izan zintzazan :

lagun eiguzu egun onetan, santutasun-Espiritu beronek eraginda jardun dagigun.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Jesus'en bitartez, Jaungoikoaren seme dogu izena, eta izan be ba-gara; orregaitik, bildur bagarik esan dagigun : Gure Aita, zeruetan zarana...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Jauna, Jainko gure salbatzaille,  
emoiguzu zure laguntza,  
beti argiaren egintzak gura izan dagiguzan  
eta egia bete dagigun :  
orrela, zeugandik jaio garanok, argiaren seme-  
alaba lez,  
gizakien aurrean zeure testigu izango gara.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.

## III DOMEKEA

### GORAPENAK

#### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

*B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.

*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.

Aintza Aitari, ta Semeari...

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-domeketan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

Gure orduen Jauna,  
Asiera, Aita, Jabea :  
loaz arindu egiten gaituzu

eta loaldian zeure indarra luzatzen dauskuzu ;  
oillarrak jotean,  
mendietan egunsentiaren sua iratzartzen da  
eta zure eskuetatik eguzkia igoten.

Izar nagusiak sutu egiten dau  
gerizpean dagoan ortzia ;  
eta illunpean pekatu egin eta bidea galdu ebanak,  
argiaren errubagetasunean  
artzen dau barriro bere bidea.

Lurraren kolkotik  
zeure Igurtzitakoari egiten dautsazu dei,  
eta izadi guztiak, argitu-barriak,  
Kristo'gan aurkitzen dau bere diztira.

Bera da mundua ezarrita dagoan arri bizia,  
mundua atontzen dauan irudia,  
bere bultzakadarik sakonena  
izadi barrirantz.

Kristo'ren odoletan  
garbitzen dira pekatuak,  
eta bere bitartez gagoz  
zure begien aurrean berbiztu-barri  
eta bere osotasunean beteta.

Eta izadi barriaren poz barriaz,  
eguzki jaiobarriagaz batera,  
gure otoitza gora doa  
Jesus Jaunaren izenean.

## SALMUTEGIA

## 1° ANTIFONA

Jauna miragarria da zeruan, aleluia.

## SALMUA: 92

*Jaungoiko egillearen aintza.*

*Jauna, gure Jainko guztiaalduna, errege  
izaten asi da; emon daioguzan eskerrak  
poz ta alaitasunez (Ag 19, 6.7).*

Jauna errege da, anditasunez jantzita,  
Jauna, jantzizat eta gerrikotzat indarrez be-  
terik:

alantxe dago sendo lurbira,  
alboraka egin bagarik.

Sendo dago betidanik zure aulkia,  
eta Zu beti-betikoza zara.

Gora doa, Jauna, †  
gora doa ibaiaren berbotsa, \*  
gora doa arein zaratotsa;

baiña, ur andien otsa baiño, †  
itsasoko olatuak baiño aaltsuago, \*  
altsuago da Jauna zeruan.

Zure aginduak zintzoak eta zigurrak dira; †  
zure etxearen edertasuna, Jauna, santutasuna  
da \*  
amaibagako egunetan.

## 2° CARREN ANTIFONA

Zu, Jauna, goragarri ta aintzagarri zara gizal-  
dietan, aleluia.

## ABESTIA. Dn 3, 57-88.56

*Goratu begi Jauna izadi guztiak.*

*Goratu egizue Jauna, beronen morroi guz-  
tiok (Ag 19, 5).*

Jaunaren izaki guztiok, bedeinkatu egizue Jauna,  
goratu ta ospatu egizue betiraun guztian.

Jaunaren aingeruok, bedeinkatu egizue Jauna;  
zeruok, bedeinkatu egizue Jauna.



Zerupeko urok, bedeinkatu egizue Jauna;  
Jaunaren gudarozteok, bedeinkatu egizue Jauna.

Eguzki-illargiok, bedeinkatu egizue Jauna;  
zeruko izarrok, bedeinkatu egizue Jauna.

Euri ta iruntzok, bedeinkatu egizue Jauna;  
aize guztiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Su ta berook, bedeinkatu egizue Jauna;  
otz eta izotzok, bedeinkatu egizue Jauna.

Iruntz eta edurrok, bedeinkatu egizue Jauna;  
karrakaldo ta izotzok, bedeinkatu egizue Jauna.

Zurdai ta edurrok, bedeinkatu egizue Jauna;  
gau ta egunok, bedeinkatu egizue Jauna.

Argi ta illunok, bedeinkatu egizue Jauna;  
oiñaztarri ta odeiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Bedeinkatu begi lurak Jauna,  
goratu ta ospatu egizue betiraun guztian.

Mendi ta tontorrok, bedeinkatu egizue Jauna;  
lurrean erneten zareen guztiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Iturburuok, bedeinkatu egizue Jauna;  
itsaso ta ibaiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Itsas-pisti ta arrainok, bedeinkatu egizue Jauna;  
zeruko egaztiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Pisti ta abereok, bedeinkatu egizue Jauna;  
goratu ta ospatu egizue betiraun guztian.

Gizaseme guztiok, bedeinkatu egizue Jauna;  
bedeinkatu begi Israel'ek Jauna.

Jaunaren abadeok, bedeinkatu egizue Jauna;  
Jaunaren morroiok, bedeinkatu egizue Jauna.

Arima ta espiritu zintzook, bedeinkatu egizue Jauna;  
santu ta biotz-apalok, bedeinkatu egizue Jauna.

Ananias, Azarias eta Misael, bedeinkatu egizue Jauna,  
goratu ta ospatu egizue betiraun guztian.

Bedeinkatu dagiguzan Aita ta Semea, †  
Espiritu Santuagaz batera, \*  
goratu ta ospatu dagiguzan betiraun guztian.

Bedeinkatua Jauna zeruko izartegian,  
goratua ta ospatua betiraun guztian.

*Ez da esaten Aintza Aitari.*

ANT. Zu, Jauna, goragarri ta aintzagarri zara  
gizaldietan, aleluia.

### 3<sup>o</sup>CARREN ANTIFONA

Goratu egizue Jauna zeruan, aleluia.

SALMUA: 148

*Jaingo egilleari gorapena.*

*Aulkian jesarrita dagoanari eta Bildotsari gorapena, dedua, aintza ta nagusitza gizaldiz-gizaldi (Ag 5, 13).*

Goratu egizue Jauna zeruan,  
goratu egizue Jauna goian.

Goratu egizue, Aren aingeru guztiok,  
goratu egizue, Aren gudarozte guztiok.

Goratu egizue, eguzki ta illargi,  
goratu egizue izar diztiratsuok.

Goratu egizue zeru-zabalok,  
eta zeruan dingilizka zagozen urok.

Goratu begie Jaunaren izena,  
Aren aginduz izan ziran egiñak-eta;

Berak ezarri dauz betiko,  
eta ausiko ez dan legea emon eutsen.

Goratu egizue Jauna lurrean,  
itsas-abere ta itsas-sakonok;

oiñaztarri ta txingor, edur eta laiño,  
Aren aginduak beteten dozuzan aize biur orrek;

mendi ta mendi-besanga guztiok,  
igali-zugatz eta zedruok;

pisti ta etxe-abereok,  
narrazti ta egaz zabizen txoriok.

Lurreko errege ta erri guztiok,  
munduko nagusi ta buruzagi guztiok;

mutillok, baita neskak be,  
zaarrok umeakaz batera.

Goratu begie Jaunaren izena,  
Aren izena bakarrik andia,

Aren andi-izatea zeru-lurren gaiñetik;  
Berak anditzen dau bere erriaren indarra.

Bere zintzo guztien gorapena,  
bere erri aukeratua dan Israel'ena.

ANT. Goratu egizue Jauna zeruan, aleluia.

#### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-domeketan, irakugai laburra, itaun-erantzuna eta eska-riak aldi orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

#### IRAKURGAI LABURRA. Ez 37, 12b-14

Auxe diño Jaunak: "Neuk zabalduko dōdaz zuen illobiak; Neuk atarako zaituet zuen illobietatik, ene erri, eta Israel'go lurrera ekarriko zaituet barrero. Zuen illobiak zabaldu dagidazanean eta zuen illobietatik atara zagiedazanean, ene erri, orduantxe jakingo dozue Jauna Neu nazana. Neure espirtua isuriko dautsuet, bizi barrria izan dagizuen; zeuen lurrean ezarriko zaituet, eta orduantxe jakingo dozue, Nik, Jaun onek, esan eta egin egiten dodala". Jaunak esana.

#### ITAUN-ERANTZUNA

B. Kristo, Jaungoiko biziaren Seme ori, erruki zakiguz.

E. Kristo, Jaungoiko biziaren Seme ori, erruki zakiguz.

- B. Aitaren eskumaldean jesarrita zagozan ori.  
 E. Erruki zakiguz.  
 B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
 E. Kristo, Jaungoiko biziaren Seme ori, erruki zakiguz.

## EBANJELIOKO ABESTIA (Benedictus)

ANT. Jauna bere erriari laguntza ekartera eta askatasuna emotera etorri da.

ABESTIA. Lk 1, 68-79

Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna, \*  
 bere erriari laguntza ekartera †  
 eta askatasuna emotera etorri da-ta.

Dabid bere morroiaren ondorengoen artetik  
 orain salbatzaille indartsu bat sortu dauku.

Au, aspaldidanik agindu izan eban  
 bere profeta santuen bitartez :

gure arerio ta gorrotatzailleakandik  
 onik atarako genduzala ;

gure aurretikoai erruki izango yakela  
 eta beteko ebala bere alkartasun santua.

Eta auxe da Abrahan gure aitari  
 egin eutsan zin sendoa :

gure arerioakandik askatu egingo genduzala, \*  
 bildur bagarik otseindu dagigun †  
 gure bizitza gutzian,

Berari eskiñiak izan yakozanak lez,  
 zuzentasunaren billa diarduenak lez.

Zu, barriz, nire seme ori,  
 Jaungoiko gorengoaren profeta izango zara,

Jaunaren aurretik joango zara-ta  
 Aren etorrerea atontzen.

Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren  
 erriari,  
 baita pekatuen parkamena be ;

izan be, gure Jaungoikoak, †  
 gukanako ontasunez beterik, \*  
 goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,  
 illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak †  
 argitasunez beteteko \*  
 gure oinkadak bake-bideetan zuzentzeko.

Aintza Aitari, ta Semeari...

ANT. Jauna bere erriari laguntza ekartera eta  
 askatasuna emotera etorri da.

## ESKARIAK

Dei egin daiogun Aita Jaungoikoari : here Se-  
 mearen bitartez, Espiritu Santua bialdu eban,  
 beronen argi guztiz santua bere zintzoen ari-  
 ma-barruan sartu zeiten ; eta esan daiogun :

*Argitu egizu, Jauna, zure erria.*

Zeu bedeinkatzen zaitugu, Jauna, geure argi  
 zaran Ori.

—eta auxe eskatzen dautsugu: orain asten dogun domeka au oso-osorik zeure gorapenari eskiñita igaro daitela.

Zure Semearen biztueraren bidez, mundua argitu nai izan zenduan Orrek,

—egizu, zure Elizeak andra-gizon guztien artean Pazko-poza zabaldu dagiala.

Egiaren Espirituaren bidez zure Semearen ikasleai irakatsia emon zeutsen Orrek, bialdu egizu Espiritu berori zure Elizara, beti zugan zintzo iraun dagian.

Andra-gizon guztientzat argia zaran Orrek, oraindiño illunpeetan bizi diranak gogoan izanik,

—zabaldu egizuz arein adimeneko begiak, Zeu, egiazko Jaungoiko bakar Ori, onartu zagiezan.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Jesus'en bitartez, Jaungoikoaren Seme izan gara egiñak; orregaitik, bildur bagarik esan dagigun: Gure Aita...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Jaungoiko guztiaalduna, egin dan guztiaren ontasun eta edertasuna zeugandik datoz;

eta gure egintzak zeuganako ta anaiakanako maitasunak eraginda egin dagiguzala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu, gaitz guztietatik gorde eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.





## IV DOMEKEA

### GORAPENAK

#### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

*B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.

*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.

Aintza Aitari, ta Semeari...

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-domeketan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

Eta asieran Jainko Jaunak auxe esan eban: —Izan bedi argia!

Eta leenengo argia izan zan.

*Taldeak:* Eta gauzak onak zirala  
ikusi eban Jaunak.  
Aleluia!

Eta Jainkoak auxe esan eban: —Izan bedi ortzia!

Eta ortziak bere zeru-sabai hikaiña zabaldu eban.

*Taldeak:* Eta gauzak onak zirala  
ikusi eban Jaunak.  
Aleluia!

Eta Jainkoak auxe esan eban: —Izan beitez itsasoak  
eta agertu daitezala lurraren oiñarriak!

*Taldeak:* Eta gauzak onak zirala  
ikusi eban Jaunak.  
Aleluia!

Eta Jainkoak auxe esan eban: —Erne beite bedar ezea, eta lurak azia ta solo-aria emon dagizala!

*Taldeak:* Eta gauzak onak zirala  
ikusi eban Jaunak.  
Aleluia!

Eta Jainkoak auxe esan eban: —Argitu beite ortzia eta eguzkia, illargia ta izarrak jaio daitezala!

*Taldeak:* Eta gauzak onak zirala  
ikusi eban Jaunak.  
Aleluia!

Eta Jainkoak auxe esan eban: —Itsasoa arraiñez eta lurbirako eguratsa txoriz bete daitela!

*Taldeak:* Eta gauzak onak zirala  
ikusi eban Jaunak.  
Aleluia!

Eta Jainkoak auxe esan eban: —Gaur gizona egin dagigun,  
geure antzeko, geure irudiko!

*Taldeak:* Eta gauzak onak zirala  
ikusi eban Jaunak.  
Aleluia!

Eta Jaunak zazpigarren egunean atsedean artu eban.

Eta gizonak Aren arazoan diardu.

*Taldeak*: Eta gauzak onak zirala  
ikusi eban Jaunak.  
Aleluia!

## SALMUTEGIA

## 1º ANTIFONA

Emon egiozuez eskerrak Jaunari, Aren errukia  
beti-betikoa da-ta, aleluia.

## SALMUA: 177

*Garaipenaren ostean eskerrak emoteko gorapen-  
abestia.*

*Jesus da zuek, etxe-egilleok, baztartutako  
arria, eta giltzarri biurtu dana (Ap. 4,  
11).*

Emon egiozuez eskerrak Jaunari, ona da-ta,  
Aren errukia beti-betikoa da-ta.

Esan begi Israel'en etxeak :  
betikoa da Aren errukia.

Esan begi Aaron'en etxeak :  
betikoa da Aren errukia.

Esan begie Jaunaren zintzoak :  
betikoa da Aren errukia.

Arriskuan Jaunari egin neutsan deadar,  
eta entzun egin eustan, ni onik atararik.

Jauna neugaz dago : ez dot bildurrik ;  
zer egin aal izango daust gizonak?

Jauna neugaz dago eta laguntza emoten daust,  
nire arerioen ondamendia ikusiko dot.

Obe da, ustea gizonakan jartea baiño  
Jaunaren aterpean egotea ;

obe da, ustea nagusiakan jartea baiño  
Jaunaren aterpean egotea.

Erri guztiak inguratzen nenduen :  
Jaunaren izenean baztatu egin nebazan ;

estutu egiten nenduen inguruan :  
Jaunaren izenean baztatu egin nebazan ;

erlamiñoak lez inguratzen nenduen, †  
sua sasia lez erreten zirala : \*  
Jaunaren izenean baztatu egin nebazan.

Bultza ta bultza egiten eusten ni lurrera bota-  
teko,  
baiña Jauna lagun egin eustan ;

Jauna da nire indarra ta adorea,  
Bera da nire salbamena.

Entzun egizue : garaipen-abestiak dira  
zintzoen txaboletan :

“Aaltsua da Jaunaren eskumea, †  
bikaiña da Jaunaren eskumea, †  
aaltsua da Jaunaren eskumea”.

Ez, ez naz ilgo, bizi baiño,  
eta Jaunaren arrigarriak azalduko dodaz.

Zigortu bai, Jaunak zigortu egin nenduan,  
baiña ez nenduan eriotzaratu.

Zabaldu egidazuez garaipenaren ateak,  
eta Jaunari eskerrak emoteko sartuko naz.

Auxe da Jaunaren atea :  
andixek sartuko dira irabazleak.

Eskerrak emoten dautsudaz, entzun nozulako  
eta neure salbamen izan zaralako.

Etxegilleak baztartutako arria  
orain giltzarri da.

Jauna da ori egin dauana,  
mirari argia da.

Jaunak egin eban eguna da au :  
izan bedi gure poza ta gure atsegiña.

Emoiguzu salbamena, Jauna,  
emoiguzu zoriona, Jauna.

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena, †  
Jaunaren etxetik bedeinkatzen zaituegu ; \*  
Jauna Jainko da, Berak argitzen gaitu.

Eratu egizue ibillaldi bat abarrakaz  
altarearen ertzeraiño.

Zeu zara nire Jainkoa, eskerrak emoten dautsu-  
daz,  
ene Jainko, goratzen zaitu.

Emon egiozuez eskerrak Jaunari, ona da-ta,  
Aren errukia beti-betikoa da-ta.

ANT. Emon egiozuez eskerrak Jaunari. Aren  
errukia beti-betikoa da-ta, aleluia.

## 2º CARREN ANTIFONA

Aleluia, Jaunaren izaki guztiok, bedeinkatu egi-  
zue Jauna, aleluia.

ABESTIA. Dn 3, 52-57

*Izadi guztiak Jauna goratu dagiala.*

*Bedeinkatua beti Egillea* (Erm 1, 25).

Bedeinkatua gure aurretikoen Jainko Jauna :  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Bedeinkatua zure aintzaren izen santua :  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Bedeinkatua Zeu zure aintza santuaren jaure-  
txean :  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Bedeinkatua Zeu zure erreinuko aulkian :  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Bedeinkatua Zeu, kerubiñen gainean jesarrita, †  
lezak begien aurrean dozuzan Ori : \*  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Bedeinkatua Zeu zeruko izartegian :  
zeuri aintza ta gorapena betiraun guztian.

Jaunaren izaki guztiok, bedeinkatu egizue Jauna,  
goratu ta ospatu egizue betiraun guztian.

ANT. Aleluia, Jaunaren izaki guztiok, bedein-  
katu egizue Jauna, aleluia.

## 3'CARREN ANTIFONA

Arnasadun guztiak Jauna goratu begie, aleluia.

SALMUA: 150

*Goratu egizue Jauna.*

*Esan salmuak biotzez, esan salmuak zuen adimen guztiaz, edo bardin dana: goratu egizue Jainkoa zuen gorputz-arimaz (HE-SIKIO).*

Goratu egizue Jauna Aren jauretxean,  
goratu egizue Aren izartegi sendoan.

Goratu egizue Aren egintza arrigarriakaitik,  
goratu egizue Aren andi-izate zabalagaitik.

Goratu egizue turuta-otsez,  
goratu egizue arpaz eta zitaraz,  
goratu egizue tanborrez ta dantzaketaz,  
goratu egizue turuta-biurrez ta txilibituz,  
goratu egizue txilin soliz, †  
goratu egizue txilin dardaratsuz. \*  
Arnasea dauken guztiak, Jauna goratu begie.

ANT. Arnasadun guztiak Jauna goratu begie,  
aleluia.

## JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-domeketan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna ta eskariak aldi orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Tm 2, 8. 11-13

Gogoratu egizu, Dabid'en jatorriko Jesukristo illen artetik biztu egin zala. Sinistekoa da diñodan au: Aregaz il ba'gara, bizi be Aregaz bizi izango gara. Nekeak Aregaz eroaten ba'doguz, erregetza be Aregaz izango dogu. A ukatzen ba'dogu, Berak be ukatu egingo gaitu. Zintzoak ez ba'gara, Arek zintzo irauten dau, bere burua ezin ukatu daike-ta.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Eskerrak emoten dautsuguz, Jainko, zure izenari dei egiñaz.  
E. Eskerrak emoten dautsuguz, Jainko, zure izenari dei egiñaz.  
B. Zeure miragarriak azalduaz.  
E. Zure izenari dei egiñaz.  
B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
E. Eskerrak emoten dautsuguz, Jainko, zure izenari dei egiñaz.

EBANJELIOKO ABESTIA (Benedictus)

ANT. Bedeinkatua Jaungoikoa, here erriari askatasuna emotera etorri da-ta.

ABESTIA. Lk 1, 6879

Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna, \*  
bere erriari laguntza ekartera †  
eta askatasuna emotera etorri da-ta.



Dabid here morroiaren ondorengoan artetik  
orain salbatzaille indartsu bat sortu dausku.

Au, aspaldidanik agindu izan eban  
bere profeta santuen bitartez :

gure arerio ta gorrotatzailleakandik  
onik atarako genduzala ;

gure aurretikoai erruki izango yakela  
eta beteko ebalá bere alkartasan santua.

Eta auxe da Abraham gure aitari  
egin eutsan zin sendoa :

gure arerioakandik askatu egingo genduzala, \*  
bildur bagarik otseindu dagigun †  
gure bizitza gurtian,

Berari eskiñiak izan yakozanak lez,  
zuzentasunaren billa diarduenak lez.

Zu, barriz, nire seme ori,  
Jaungoiko gorengoaren profeta izango zara,

Jaunaren aurretik joango zara-ta  
Aren etorrerea atontzen.

Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren  
erriari,  
baita pekatuen parkamena be ;

izan be, gure Jaungoikoak, †  
guganako ontasunez heterik, \*  
goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,

illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak †  
argitasunez beteteko, \*  
gure oinkadak bake-hidetaan zuzentzeko.

Aintza Aitari, ta Semeari...

ANT. Bedeinkatua Jaungoikoa, bere erriari as-  
katasuna emotera etorri da-ta.

#### ESKARIAK

Jaungoikoak maite gaitu eta ba-daki gure bea-  
rrizana ; goratu daiguzan, ba, Aren aal-izate  
ta ontasuna, gure biotzak, poz-pozik, Bera  
goratzeko zabaldurik :

*Goratzen zaitugu, Jauna, eta zeugan dogu gu-  
re ustea.*

Bedeinkatzen zaitugu, Jainko guztiaaldun, mun-  
duko Errege, guri, zuzenbaga ta pekatarioi,  
egia ezagutzeko dei egin dauskuzulako :

—egizu, santutasun eta zuzentasunez zeure ser-  
bitzari izan gaitetzala.

Biurtu zaitetz gugana, zure errukiaren atea za-  
baldu nai izan dozun Jainko ori,

—eta egizu, bizitzara daroan bidetik ez gaitetza-  
la inoiz be aldendu.

Gaur zure Seme maitearen biztuerea ospatzen  
dogun ezkerro,

—egizu, egun au espiritu-pozez heterik igaro  
daitela.

Emon egiezu, Jauna, zure zintzoai otoitz eta gorapen-espirtua,  
—une guztietan eskerrak emon dagitzuguzan.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Orain guztioi Kristo berbiztuak emoten daukun Espirituak berak eraginda, jo dagigun Jaungoikoagana, Beronen egiazko semeak gara-ta, urrengo au dirautsagula: Gure Aita...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Jainko Jauna, Aita guztiaalduna,  
isuri eiguzu Espiritu Santuaren argia:  
zoritxar guztietatik aldenduta,  
beti Zeu goratzen poztu aal gaitzezan.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.

## ASTELEENA

### GORAPENAK

#### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

*B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.  
*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko astegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Urtebarruan, auxe esaten da:

Argitik jaiook! Egunaren semeok!  
Goizearen jabe dan Jaunaganuntz goaz.  
Bere argiak, gure inguruko laiñoa ezerezturik,  
biotza pozez beteten dauku.

Gure Jainkoak, zeruko Aitak,  
garbitu dagiala gure begien illuntasuna  
eta agertu daiskula zein dan  
Seme bakarragan itzi euskun oiñordetza.

Aintza ta gorapena Jainko Aitari,  
bardin Aren Seme Jesukristo'i,  
baita Espiritu Santuari be,  
gizaldien gizaldietan bizi danari.

## SALMUTEGIA

## 1° ANTIFONA

Noiz sartuko naz Jainkoaren aurpegia ikustera?

## SALMUA : 41

*Jauna gura dot eta jauretxera begira egon.  
Egarri izan daitena, etorri daitela; eta nai  
dagianak, artu dagiala utsean bizitzako  
ura (Ag 22, 17).*

Orein-emea ur-bizien billa dabillenez, \*  
alantxe dabil, ene Jainko, †  
zure billa nire arimea;

Jainkoaren egarri da,  
Jainko biziaren egarri:

noiz joango ete-naz  
Jainkoaren aurpegia ikustera?

Gau ta egun, negar-malkoak dira nire ogi, \*  
"Non da zure Jainkoa?" †  
egun guztian dirausten artean.

Beste aldi batzuk dakadaz gogora,  
eta arimea urtu egiten yat barruan:

gizataldearen aurrean joaten nintzala  
Jainkoaren etxerantz,

poz-deadarka ta goraka,  
jai egiten ziarduen artean.

Zegaitik larritzen zara, nire arima ori?,  
zegaitik artegatzen zaiataz?

Itxaron Jaunagan, barriro be Bera goratuko  
dozu-ta:

"Nire aurpegiaren osasun, ene Jainko!".

Nire arimea larritzen danean †  
ekarten zitut gogora \*  
Jordan'dik eta Ermon'dik eta Mendi Txiki'tik.

Leza batek beste leza bati egiten dautso dei  
uriol-zaratotsez:

zure errekek eta olatuak  
gaiñetik igaro yataz.

Egunez, Jauna nitzaz  
erruki izango da,

eta gabez, neure bizia dan Jainkoaren  
gorapena abestuko dot.

Auxe esango dautsat Jainkoari:  
Ene Arkaitz, zegaitik aaztuten zara nitzaz?,

zegaitik nabil illun,  
nire arerioak estutzen nauala?

Ausi egiten yataz azurrak  
arerioaren iraiñez;

"Non da zure Jainkoa?"  
dirauste egun guztian.



Zegaitik larritzen zara, ene arima ori?,  
zegaitik artegatzen zara?

Itxaron Jaunagan, barriro be Bera goratuko  
dozu-ta:

“Nire aurpegiaren osasun, ene Jainko!”.

ANT. Noiz sartuko naz Jainkoaren aurpegia  
ikustera?

### 2'GARREN ANTIFONA

Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat; eldu  
bedi gorapena Arentzat lurreko mugaraiño.

ABESTIA. Is 2, 2-5

*Jaunaren etxearen mendia, mendietako tontorre-  
tan.*

*Naziño guztiak etorri eta zeure aurrean  
auspaztuko dira (Ag 15, 4).*

Azken-egunetan, Jaunaren etxearen mendia  
sendo ezarria egongo da,

mendi guztien buru,  
mendi-tontortxo guztien gaiñetik.

Atzerri guztiak araxe joko dabe;  
erri asko etorriko dira, esanez:

Zatoze, igo gaitезan Jaunaren mendira,  
Jakob'en Jainkoaren etxera.

Berak erakutsiko dauskuz bere bideak,  
eta Aren zidorretan ibilliko gara,

Legea Sion'dik urtengo da-ta;  
Jaunaren itza, barriz, Jerusalem'dik.

Berak ebatziko dauz naziñoak,  
Berak emongo dautsez bere legeak erri askori.

Areik euren ezpatak golda-mutur biurtuko dabez,  
eta euren lantzak, igitai.

Ez dau errik erriren aurka ezpatarik jasoko,  
ez dira geiago gudurako gertatuko.

Zatoze, Jakob'en etxekook;  
ibili gaitезan Jaunaren argitan!

ANT. Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat;  
eldu bedi gorapena Arentzat lurreko mu-  
garaiño.

### 3'GARREN ANTIFONA

Auspaztu zaitезe Jaunaren aurrean ataurre san-  
tuan.

SALMUA: 28

*Jaungoikoaren agerpena ekaitzean.*

*Zerutik urteten zan abots batek auxe  
iñoan: Au, atsegin dodan neure Seme  
maitea da (Mt 3, 17).*

Goratu Jauna, Jainkoaren semeok,  
goratu Jaunaren aintza ta indarra,

goratu Jaunaren izenaren aintza,  
auspaztu Jaunaren aurrean Beronen ataurre  
santuan.

Jaunaren abotsa ur-gaiñean, †  
 Jainko goragarria trumoi-otsez, \*  
 Jauna ur ugarien gaiñean!

Jaunaren abotsa indartsu,  
 Jaunaren abotsa ospez heterik!

Jaunaren abotsak ausi egiten dauz zedruak,  
 ausi egiten dauz Jaunak Libano'ko zedruak.

Libano'ri triska eragiten dautso txaltxo bati lez,  
 baita Sarion'i be, basa-idikume bati lez.

Jaunaren abotsak sugarra jaurtiten dau, †  
 Jaunaren abotsak basamortua astindu egiten  
 dau, \*  
 Jaunak Kades'ko basamortua astindu egiten  
 dau.

Jaunaren abotsak aretxa biurtu egiten dau, †  
 Jaunak basoai kendu egiten dautse azala. \*  
 Aren jauretxean, guztiak batera, "Gora!", di-  
 ñoe.

Uriol-gaiñean jesarten da Jauna,  
 Jauna betiko errege lez jesarten da.

Jaunak bere erriari indarra emoten dautso,  
 Jaunak bere erria bakeaz bedeinkatzen dau.

ANT. Auzpaztu zaitze Jaunaren aurrean atau-  
 rre santuan.

## JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldian,  
 irakurgai laburra, itaun-erantzuna, Ebanjelioko  
 abestiaren antifona eta eskariak, aldi orreitaokoak  
 artzen dira (ikusi I Geigarria). Urtebarruan, auxe  
 esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Ts 2.<sup>a</sup>, 3, 10b-13

Norbaitek lan egiterik nai ez ba'dau, jan be ez  
 dagiala egin. Izan be, batzuk zuen artean nagi-  
 keritan bizi dirala entzun dogu, ezer be lanik  
 egin bagarik, baiña dana jakin nairik. Orrela-  
 koai auxe agintzen eta eskatzen dautsegu Jesu-  
 kristo Jaunagan: baketan lan egiñik jan dagiela  
 euren ogia. Zuek, barriz, anaiok, on egiten ez  
 asertu.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Bedeinkatua Jauna betiko.
- E. Bedeinkatua Jauna betiko.
- B. Miragarriak egiten dauzan bakarra.
- E. Betiko.
- B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
 tuari.
- E. Bedeinkatua Jauna betiko.

EBANJELIOKO ABESTIA (Benedictus)

ANT. Bedeinkatua gure Jainko Jauna.

ABESTIA. Lk 1, 68-79.

Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna, \*  
bere erriari laguntza ekartera †  
eta askatasuna emotera etorri da-ta.

Dabid bere morroiaren ondorengoen artetik  
orain salbatzaille indartsu bat sortu dausku.

Au, aspaldidanik agindu izan eban  
bere profeta santuen bitartez :

gure arerio ta gorrotatzailleankandik  
onik atarako genduzala ;

gure aurretikoai erruki izango yakela  
eta beteko ebalá bere alkartasun santua.

Eta auxe da Abraham gure aitari  
egin eutsan zin sendoa :

gure arerioakandik askatu egingo genduzala, \*  
bildur bagarik otseindu dagigun †  
gure bizitza guztian,

Berari eskiñiak izan yakozanak lez,  
zuzentasunaren billa diarduenak lez.

Zu, barriz, nire seme ori,  
Jaungoiko gorengoaren profeta izango zara,

Jaunaren aurretik joango zara-ta  
Aren etorrerea atontzen.

Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren erriari,  
baita pekatuen parkamena be ;

izan be, gure Jaungoikoak, †  
guganako ontasunez beterik, \*  
goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,

illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak †  
argitasunez beteteko, \*  
gure oinkadak bake-bideetan zuzentzeko.

Aintza Aitari, ta Semeari...

ANT. Bedeinkatua gure Jainko Jauna.

#### ESKARIAK

Iragarri dagigun Kristo'ren andi-izatea, graziaz  
eta Espiritu Santuaz beterik, eta jo dagigun  
Beragana, esanez :

*Emoiguzu, Jauna, zure Espiritua.*

Emoiguzu, Jauna, bakez, pozez eta errubageta-  
tasunez beteriko eguna,  
—gabera altzean, pozik eta pekatutik garbi, ba-  
rriro goratu aal zagiguzan.

Jatsi dakigula gaur zure ontasuna  
—eta baliotsu egin dagizala gure eskuetako egin-  
tzak.

Erakutsi eiguzu zure aurpegi onbera, eta emoi-  
guzu bakea,  
—egun guztian zeure eskuak zaintzen gaituala  
somatu dagigun.

Begiratu biotz onez, Jauna, geure otoitzen ardu-  
rapean jarri diranak  
—eta aberastu egizuz gorputz-arimako ondasu-  
nez.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

## DOMEKAKO OTOITZA

Amaitu dagigun gure otoitza Jaunak irakatsi euskun eskariaz : Gure Aita...

## AMAIERA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-astegunetan, azken-otoitza aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Urtebarruan, auxe esaten da:

## OTOITZA

Gure egintzai zeure graziak argi egin, eutsi ta lagun egin dagitsela, Jauna :  
gure lan guztiak,  
zeugandik urtenik, euren iturritik lez,  
zeugana jo dagien, euren elburura lez.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

- B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.
- E.* Amen.

## MARTITZENA

## GORAPENAK

## SARRERA

## ASIERARAKO DEIA

- B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.
- E.* Jauna, zatoz arin niri lagunza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

## GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko astegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Urtebarruan, auxe esaten da:

Gabeko illunpeak igesi doaz  
egunsentiaren aurrean ;  
da-dator argia  
eta Kristo urr dago.

Eguzkiak gaba ausi  
eta eguna zabaltzen dau ;  
bere argiaz gauza bakotxari  
kolorea biurtzen dautso.

Laguntaldeak, goizoro,  
biotz-argia artzen dau ;



Jainko-laguntza urrago dago  
eta argiago ikusten da egia.

Gorde gagizuz, egunsentiaren Jaun orrek,  
biotz-garbi, adoretu ta zeuri lotuta;  
argi-seme izan gaitzala,  
guztientzat eredugarri.

Gure zentzunak, gure bizikerea,  
gaur egin daigun guztia,  
zeure aintzarako ta gure onerako  
izan daitela, Jauna.

## SALMUTEGIA

## 1° ANTIFONA

Ona izan zara, Jauna, zure erriari buruz; par-  
katu egin dozu zure erriaren errua.

SALMUA: 84

*Gure salbamena urr dago.*

*Jaungoikoak bedeinkatu egin eban gure  
lurra Salbatzaillea bialdu ebanean (ORI-  
JENES).*

Ona izan zara, Jauna, zure erriari buruz, †  
Jakob'en zoria barriztu \*  
eta zure erriaren errua parkatu egin dozu;  
aren pekatu guztiak lurpean sartu dozuz, †  
zure asarreari atzeraka eragin \*  
eta zure sumin-garrari eutsi egin dautsazu.

Barriztu gagizuz, gure Jainko salbatzaille orrek,  
gelditu gure aurka dozun asarrea.

Beti egongo ete-zara, ba, asarre?, †  
edo-ta, gizaldiz-gizaldi \*  
luzatuko ete-dozu zure sumiña?

Ez ete-dauskuzu, ba, bizia biurtuko,  
zure erria Zeugaz poztu daiten?

Erakutsi eiguzu, Jauna, zure errukia  
eta emon zure salbamena.

Jaunak diñoana  
entzungo dot nik:

“Bere erriari eta bere adiskideai †  
eta biotzez biurtzen diranai \*  
Jaunak bakea iragarten dautse”.

Onezkero, urr dauke Aren zintzoak salbamena,  
eta aintza geure lurrean bizi izango da;

errukia ta zintzotasuna alkarregaz datoz,  
zuzentasunak eta bakeak mun egiten dautsoe  
alkarri;

zintzotasuna erneten da lurretik,  
eta zerutik zuzentasuna dago begira;

Jaunak euria emongo dausku,  
eta lurrak bere frutua ekarriko dau.

Zuzentasuna ibilliko da Aren aurrean,  
salbamenak jarraituko dautse Aren lorratzai.

ANT. Ona izan zara, Jauna, zure erriari buruz;  
parkatu egin dozu zure erriaren errua.

2<sup>o</sup> GARREN ANTIFONA

Goratu egizue zuen egintzen bidez gizaldien  
Erregea.

ABESTIA. Tb 13, 1-10

*Israel'en itxaropena Babilonia'n.*

*Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesukristo gure  
Jaunaren Aita, bere erruki andiz itxaro-  
pen bizirako sortu gaitu barriro-ta (P  
1.<sup>a</sup>, 1, 3).*

Bedeinkatua Jainkoa, beti bizi da-ta;  
gizaldietan irauten dau Aren erregetzak;

zigortu egiten dau eta errukitu egiten da; †  
lezaraiño amiltzen dau, baita andik atara be, \*  
eta ez da Aren eskutik iges egin daikenik.

Emon egiozue eskerrak, israeldarrok, jentillen  
aurrean,  
arein artean sakabanatu genduzan-eta.

Iragarri an Aren andi-izatea,  
goratu egizue bizidun guztien aurrean :

Bera dala gure Jainko ta Jaun,  
gure aita gizaldien gizaldietan.

Berak zigortzen gaitu gure gaiztakeriakaitik,  
baiña barriro errukituko da,

eta sakabanatuta zagozen  
erri guztien artetik batuko zaitue.

Aregana biotz-biotzez †  
eta gogo bizi az biurtzen ba'zaree, \*  
zuen biotza zabaltzen dautsazuela,

zeuekana biurturik  
ez dautsue bere aurpegia estalduko.

Zuei buruz egingo dauana ikusi  
eta eskerrak emongo dautsazue az ago betean,  
zuzentasun-Jauna bedeinkatuko dozue  
eta gizaldien Erregea goratuko.

Erbesteratuta nagoala,  
nik eskerrak emoten dautsada az,

Aren andi-izatea ta aal-izatea  
iragarten dautsada az erri pekatariari.

Onbideratu zaitez, pekatariok ! ;  
egizue zuzen dana Aren aurrean :

biotz-bigun agertuko yatzue, bearbada,  
eta erruki izango da.

Zeruko errege dan neure Jainkoa goratuko dot,  
eta Aren andi-izateaz poztu egingo naz.

Iragarri begiez erri guztiak Aren miragarriak  
eta jarri dagiela ustea Aregan bere aukeratuak  
Jerusalen'en.

ANT. Goratu egizue zuen egintzen bidez gizal-  
dien Erregea.

3<sup>o</sup> GARREN ANTIFONA

Lurre Jaunaren ontasunez beterik dago, aleluia.

SALMUA: 32

*Jaungoikoaren aal-izate ta ardurapenari gorapen-  
abestia.*

*Itzaren bitartez egin zan dana (Jn 1, 3).*

Goratu egizue Jauna, zintzook,  
zuzenen gorapena bidezko yako-ta.

Emon egiozue eskerrak Jaunari zitaraz,  
jo egizue amar ariko arpa Aren omenez;

abestu egiozue kanta barri bat,  
bordoien laguntzaz goratuz:

Jaunaren itza zuzena da-ta,  
Arek egindako guztia egitan sendotuta dago;

zuzen eta bidezko dana maite dau Arek,  
eta Aren errukiz lurra beterik dago.

Zerua Jaunaren itzak egin eban,  
eta Aren agoko arnaseak Aren gudarozteak;

itsasoko urak zaragi baten batzen dauz,  
itsas-lezak ur-asketan sartzen dauz.

Bildur bekio Jaunari lur osoa, †  
dardaraka jarri bediz Aren aurrean \*  
munduan bizi diran guztiak:

Berak esan eta alantxe izan zan,  
Berak agindu eta egin egin zan.

Ausi egiten dauz Jaunak errien egitamuak,  
ut's biurtzen dauz errien asmoak;

Jaunaren egitamuak, barriz, betiko irauten da-  
be,  
Aren biotzeko asmoak gizaldiz-gizaldi.

Zorionsua, Jauna Jainkotzat daukan naziñoa,  
bere oiñordetzat aukeratu eban erria!

Jauna zerutik dago begira,  
gizon guztiakana adi-adi egoten da begira;

adi-adi dago bere bizitokitik  
lurrean bizi diran guztiak begira:

Berak eratu eban biotz bakotxa,  
arein egitada guztiak ulertzen dauz.

Ez dau irabazten erregeak  
bere gudarozte andiagaitik,

gudariak be ez dau iges egiten  
bere indar galantagaitik;

gauza utsa zaldia garaipenerako,  
bere gudarozte andiagaitik be ez da onik ur-  
teten.

Jaunaren begiak bere zintzoen gaiñean dagoz,  
euren ustea Aren errukian dabenen gaiñean:

arein biziak eriotzatik askatzeko  
eta gosetean areik bizkortzeko.

Gu Jaunaren zain gagoz:  
Bera da gure laguntza ta babeskin;

Arexegan poztuten da gure biotza,  
Arexen izen santuan dogu ustea.



Etorri dakigula, Jauna, zure errukia,  
Zeugandik itxaroten dogunez!

ANT. Lurra Jaunaren ontasunez beterik dago,  
aleluia.

#### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldian, irakurgai laburra, itaun-erantzuna, Ebanjelioko abestiaren antifona eta eskariak, aldi orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Urtebarruan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Erm 13, 11b-12a

Eldu yatzue onezkero iratzartzeko ordua, sinisbarri gintzazanean baiño urrago dago gure salbamena-ta. Gaba oso aurrera doa, eta eguna ha-dator; erantzi gaitazan, ba, illunpeetako egitadetatik eta jantzi daiguzan sinismen-armak. Ibili gaitazan itxura onez, egunez lez.

#### ITAUN-ERANTZUNA

- B. Nire aterpe, nire gaztelu.  
E. Nire aterpe, nire gaztelu.  
B. Ene Jainkoa, zeugan dot ustea.  
E. Nire gaztelu.  
B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta EspirituSan-tuari.  
E. Nire aterpe, nire gaztelu.

EBANJELIOKO ABESTIA (Benedictus)

ANT. Jaunak salbatzaille indartsu bat sortu euskun, bere profeten bitartez aurretiaz esan izan ebanez.

ABESTIA. Lk 1, 68-79.

Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna, \*  
bere erriari laguntza ekartera †  
eta askatasuna emotera etorri da-ta.

Dabid bere morroiaren ondorengoen artetik  
orain salbatzaille indartsu bat sortu dausku.

Au, aspaldidanik agindu izan eban  
bere profeta santuen bitartez:

gure arerio ta gorrotatzailleakandik  
onik atarako genduzala;

gure aurretikoai erruki izango yakela  
eta beteko ebala bere alkartasun santua.

Eta auxe da Abraham gure aitari  
egin eutsan zin sendoa:

gure arerioakandik askatu egingo genduzala, \*  
bildur bagarik otseindu dagigun †  
gure bizitza guztian,

Berari eskiñiak izan yakozanak lez,  
zuzentasunaren billa diarduenak lez.

Zu, barriz, nire seme ori,  
Jaungoiko gorengoaren profeta izango zara,



Jaunaren aurretik joango zara-ta  
Aren etorrerea atontzen.

Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren  
erriari,  
baita pekatuen parkamena be;

izan be, gure Jaungoikoak, †  
guganako ontasunez beterik, \*  
goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,

illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak †  
argitasunez beteteko, \*  
gure oinkadak bake-bideetan zuzentzeko.

Aintza Aitari, ta Semeari...

ANT. Jaunak salbatzaille indartsu bat sortu  
euskun, bere profeten bitartez aurretiaz  
esan izan ebanez.

#### ESKARIAK

Zeruko deian eskuartzeko deituak izan garan  
ezkero, gure fedearen Buru dan Jesus bedeinkatu  
dagigun, eta urrengo eskariak egin daio-  
guzan :

*Jauna, geure Jainko ta Salbatzaillea!*

Jaungoiko guztiaalduna!, bateoaren bidez erre-  
ge-abadetzarako egin gaituzu :

—egizu, gure bizitza gorapen-opari etenbagea  
izan daitela.

Lagun eziguzu, Jauna, zure aginduak gordeten,

—Espiritu Santuaren indarraz, gu Zeugan iraun  
dagigun eta Zuk geugan.

Emoiguzu zure betiko jakituria

—geugaz iraun dagian eta geugaz egin dagian lan.  
Emoiguzu gure inguruan dagozan guztien poza  
izatea,

—baita makalduta dagozan itxaropen-iturri iza-  
tea be.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Jaungoikoaren seme garan ezkero, jo daigun  
gure Aitagana Kristo'k irakatsi euskun otoitzaz.  
Gure Aita...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Entzun, Jauna, goizeko gure eskariak  
eta, zure errukiaren argiaz.  
argitu egizu gure biotzeko illuntasuna :  
zure argitasunaz argituak izan garanok,  
illunpeetako egintzen atzetik iñoiz be ibilli ez  
gaitzean.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

B. Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

E. Amen.

# EGUASTENA

## GORAPENAK

### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

*B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.

*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko astegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Urtebarruan, auxe esaten da:

Ba-dator astiro-astiro egunsentia,  
illuna igesi doan artean;  
Jainkoa, gure Aita, zeure izenean  
artzen gaitu loak eta argi barriak.

Argi lez egiten dauskuzu ikustaldia,  
gizaki guztien Errege orrek,  
gabez beti iratzarririk dagoan  
maitasunak lez.

Loa eriotzaren irudi da;  
baiña zuk, Jauna,  
pekatuaren lotatik  
berbiztu egiten gaituzu.

Aintza Aitari eta Semeari,  
aintza Espiritu Santuari,  
Bakea, Argia ta Bizia danari,  
Bakar eta Irukotxari.

#### SALMUTEGIA

##### 1º ANTIFONA

Poztu egizu, Jauna, zure morroiaren arimea, nire arimea Zeugana jasoten dot-eta.

##### SALMUA : 85

*Beartsu baten otoitza estutasunen aurrean.*

*Bedeinkatua Jaungoikoa, gure atsekabe guztietan poztuten gaituana* (Ko 2.<sup>a</sup>, 1, 3.4).

Makurtu, Jauna, zure belarria; entzun nagizu,  
laguntza bagarik nagoan beartsua naz-ta;  
gorde egizu nire bizia, zeure zintzo bat naz-ta;  
onik atara egizu Zeugan itxaroten dauan morroi au.

Zeuren zara nire Jainko, erruki zakidaz, Jauna,  
egun guztian Zeuri deika diardut-eta;

poztu egizu zure morroi onen arimea,  
nire arimea Zeugana jasoten dot-eta;

izan be, Zu, Juana, ona ta biotz-biguna zara,  
Zuri dei egiten dautsuenentzat errukiz abe-  
ratsa.

Entzun, Jauna, nire otoitza,  
egon adi-adi nire eskariaren berbotsera.

Arrisku-egunean deika nagokizu,  
eta Zuk entzun egiten nozu.

Zure antzekorik ez da, Jauna, jainkoen ar-  
tean,  
ezta zureak lako egintzarik be.

Erri guztiak etorriko dira, Jauna, †  
zure aurrean auspaztera, \*  
eta zeure izena goratuko dabe :

“Andia zara Zu, eta arrigarriak egiten dozuz,  
Zeu zara Jainko bakarra”.

Erakutsi egidazu, Jauna, zure bidea,  
zure egiari jarraitu dagiodan ;

lotu nire biotza osorik  
Zure izenaren bildurrari.

Biotz-biotzez goratuko zaitut, ene Jainko,  
beti ospatuko dot zure izena,

niganako zure erruki andiagaitik,  
lurpe sakonetik onik atara nenduzun-eta.

Arroputz batzuk jagiten dira nire kontra, ene  
Jainko, †  
lotsabaga-talde batek neure biziaren aurka  
diardu, \*  
begien aurrean Zu ez zaukoezala.

Zuk, ostera, Jauna, Jainko biotz-bigun eta erru-  
kior orrek,  
asarrerako geldia,

eta errukiz eta zintzotasunez aberats orrek,  
begiratu nagizu, erruki zakidaz.

Emon egiozu indarra zure morroi oni,  
onik atara egizu zure mirabearen seme au :

emoidazu ezaugarri egoki bat, †  
nire arerioak, ori ikusirik, lotzaz bete daite-  
zan, \*  
Zeuk, Jaun orrek, laguntzen eta poztuten no-  
zu-ta.

ANT. Poztu egizu, Jauna, zure morroiaren ari-  
mea, nire arimea Zeugana jasoten dot-  
eta.

## 2º GAREN ANTIFONA

Jaunak zuzentasun eta santutasunez jantzi nau.

ABESTIA. Is 61, 10-62, 5

*Igarlearen poza Jerusalem barriaren aurrean.*  
*Uri santua, Jerusalem barria, ikusi neban,*  
*emaztea bere senararentzat apaintzen da-*  
*nez (Ap 21, 2).*

Pozez bete nau Jaunak ;  
neure Jaungoikoagan alaitzen yat barrua :  
osasan-soiñekoz jantzi nau Berak,  
zuzentasunaren estalgarriz apaindu,

senar ezkonbarria buruko ederrez jazen da-  
nez,  
eta emazte ezkonbarria edergarritz apaintzen  
danez.

Lurrak landarak emoten dauzanez  
eta baratzak bere aziak sortzen,

alantxe sortuko dauz Jaunak zuzenbidea  
ta gorapen-abestiak erri guztien aurrean.

Sion'en maitasunagaitik ez naz isilduko  
eta Jerusalem'en maitasunagaitik ez naz geldi-  
tuko,

aren zuzentasuna dirdira lez urten  
eta aren salbamenak zuzi batek lez dizdiz egin  
arte.

Erriak zeure zuzentasuna ikusiko dabe,  
eta errege guztiak zeure aintza,

eta Jaunaren agoak azalduko dauan  
izen barri bat ezarriko dautsue.

Koroe apaingarria izango zara Jaunaren eskuan,  
eta errege-buruko koroea zure Jainkoaren es-  
kuan.

Aurrerantzean ez dautsue izentzat "Bertan-bee-  
ra itzia" emongo,  
ezta zure lurraldeari be "Lur ondatua";

zure izena "Neure atsegiña" izango da,  
eta zure lurraldearena, "Emazte":

Jaunaren atsegiña izango zara-ta,  
eta zure lurraldeak senarra izango dau.

Mutilla neska bategaz eskontzen danez,  
zure egillea be zeugaz ezkonduko da-ta;

eta senar-barriaren atsegiña emaztea danez,  
zeu be Jaunaren atsegiña izango zara.

ANT. Jaunak zuzentasun eta santutasunez jan-  
tzi nau.

### 3'GARREN ANTIFONA

Goratu egizue Errege ta Jauna.

SALMUA: 97

*Jauna, auzi-epaille irabazlea.*

*Salmu onek Jaunaren leenengo etorrerea  
iragarten dau, baita jentillen Jaunagana  
biurtzea be (S. ATANASIO).*

Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat,  
miragarriak egin dauz-ta:

bere eskumeak emon dautso garaipena,  
bere esku santuak.

Jaunak bere garaipena jakiñerazoten dau,  
naziñoai bere zuzentasuna agertzen dautse:

Israel'en etxearen alde izan ebazan errukia ta  
zintzotasuna  
ekarri ebazan gogora.

Ikusi dabe lurreko mugak  
gure Jainkoaren garaipena.



Goratu Jauna, luz guzti orrek,  
egin deadar, jo txaloak, jo soñua :

jo zitarea Jaunarentzat,  
asi beitez ereskiñak :

goratu Erregea ta Jauna  
turuta ta adar-otsez.

Asi bedi burrundaraka itsasoa ta bertako guztia,  
legorra ta bertan bizi diran guztiak ;

jo begiez txaloak ibaiak, goratu begie men-  
diak

Lurrean nagusi izatera datorren Jauna.

ANT. Goratu Errege ta Jauna.

#### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldian, irakurgai laburra, itaun-erantzuna, Ebanjeliko abestiaren antifona eta eskariak, aldi orreitaokoak artzen dira. (ikus I Geigarria). Urtebarruan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Jb 1, 21 ; 2, 10b

Billoizik urten nintzan amaren sabeletik eta billoizik biurtuko naz ara. Jaunak emon eustan eta Jaunak kendu: bedeinkatua Jaunaren izena! Ona dana onartzen ba'dogu, zegaitik ez dogu txarra dana onartuko?

#### ITAUN-ERANTZUNA

B. Makurtu egizu, Jauna, nire biotza zure agin-  
duetara.

E. Makurtu egizu, Jauna, nire biotza zure agin-  
duetara.

B. Emoidazu bizia zure itzaz.

E. Zure aginuetara.

B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
tuari.

E. Makurtu egizu, Jauna, nire biotza zure agin-  
duetara.

#### EBANJELIOKO ABESTIA (Benedictus)

ANT. Erruki zakiguz, Jauna, eta gogoratu egi-  
zu zure alkartasun santua.

ABESTIA. Lk 1, 68-79

Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna, \*  
bere erriari laguntza ekartera †  
eta askatasuna emotera etorri da-ta.

Dabid bere morroiaren ondorengoen artetik  
orain salbatzaille indartsu bat sortu dausku.

Au, aspaldidanik agindu izan eban  
bere profeta santuen bitartez :

gure arerio ta gorrotatzailleakandik  
onik atarako genduzala ;

gure aurretikoai erruki izango yakela  
eta beteko ebalá bere alkartasun santua.

Eta auxe da Abraham gure aitari  
egin eutsan zin sendoa :

gure arerioakandik askatu egingo genduzala, \*  
bildur bagarik otseindu dagigun †  
gure bizitza guztian,

Berari eskiñiak izan yakozanak lez,  
zuzentasunaren hilla diarduenak lez.

Zu, barriz, nire seme ori,  
Jaungoiko gorengoaren profeta izango zara,

Jaunaren aurretik joango zara-ta  
Aren etorrerea atontzen.

Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren  
erriari,  
baita pekatuen parkamena be ;

izan be, gure Jaungoikoak, †  
guganako ontasunez beterik, \*  
goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,

illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak †  
argitasunez beteteko, \*  
gure oinkadak bake-bideetan zuzentzeko.

Aintza Aitari, ta Semeari...

ANT. Erruki zakiguz, Jauna, eta gogoratu egi-  
zu zure alkartasun santua.

## ESKARIAK

Dei egin daiogun Kristo'ri, bere burua Elizeagai-  
tik eskiñi eban-eta ; janaria ta berotasuna be  
emoten dautsaz Elizeari ; esan daiogun, ba :

*Begiratu, Jauna, zure Elizea.*

Bedeinkatua Zu, Jauna, Elizearen Artzain ori,  
gaur barrero argia ta bizia emoten dausku-  
zuz-ta ;

—egizu, doai bikain au zuri eskintzen jakin da-  
gigula.

Begiratu egizu maitasunez zure kristau-taldea,  
zeure izenean batu dozu-ta ;

—egizu, Aitak emon dautsuzunetarik bat bera  
be ez daitela galdu.

Zuzendu egizu zure Elizea zure aginduen bi-  
detik.

—eta egizu, Espiritu Santuak iraunerazo dagia-  
la zintzotasunean.

Zure zintzoak, Jauna, bizi barria artu dagiela,  
maian zeure ogi ta berban eskuarturik :

—janari onen indarraz, poz-pozik jarraitu da-  
gitzuen.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

## DOMEKAKO OTOITZA


Amaitu daigun gure otoitza guztiok batera  
geure Irakasle dan Jesus'en berbak esanik : Gu-  
re Aita...

## AMAIERA

## OTOITZA

Isuri egizu, Jauna, gure arimetara  
zure argiaren argitasuna;  
eta, zeure jakituri az gu egin  
eta zeure ardurapenaz zaintzen gaituzun ezkeru,  
egizu, gure bizikerea ta jokabidea  
oso-osorik zeuri eskiñita egon daitezala.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

- B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.  
*E.* Amen.



## EGUENA

## GORAPENAK

## SARRERA

## ASIERARAKO DEIA

- B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.  
*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
tuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldie-  
tan. Amen. (Aleluia).

## GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko as-  
tegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen  
da (ikusi I Geigarria). Urtebarruan, auxe esaten da:

Ba-dator argia zure eskuaren zainpean,  
zeruko Aita, gure Aita;  
eta guztiok, goiz onetan,  
Kristo Leensemeari bidera urteten gaiakoz.

Bera da munduaren  
asiera ta amaia;  
Berak emoten dautso  
edertasuna egunsentiari.

Bera da argi sakona,  
munduari arnasea emoten dautsana;

Berak indartzen dau gure barrua  
guztiok batera otoitz egiteko.

Ona emen argi barria,  
Aren Gorputz ezkututsua billatzen dauana.  
Ona emen, goizeko eguzki argitsuan,  
Aren aintzaren ezaugarria.

Eta ezaugarri ori  
egunoro emoten dauskuzun ezkerero,  
agertu eiguzu Semea,  
gizaki guztien Leensemea.  
Amen.

## SALMUTEGIA

## 1º ANTIFONA

Goizean, Jauna, entzunerazo egidazu zure grazia.

SALMUA: 142, 1-11

*Larrialdiaren aurrean eskaria.*

*Gizona ez da zindotzen legea beteteagaitik,  
Kristo Jesus'egan sinisteagaitik baiño (Ga  
2, 16).*

Entzun, Jauna, nire otoitza; †  
zintzoa zaran ezkerero, egin jaramon nire eska-  
riari; \*  
zuzena zaran ezkerero, entzun nagizu.

Egin dei auzitara zure otsein oni,  
errubaga dan gizon bizirik zure aurrean ez  
dago-ta.

Arerioa atzetik dabilkit eriotza emon nairik,  
nire biziari illobira eragiten dautso,

illunpera baztartzten nau  
aspaldian aaztuta dagozan ildakoen antzera.

Makaltzen daukat arnasea,  
biotza nire barruan gogortuta dago.

Beiñolako egunak dodaz gogoan,  
zure egintza guztiak gogoan darabildaz;

zeure esku-lanak ausnartzen dodaz †  
eta nire besoak Zeugana zabaltzen: \*  
Zeure egarri naz, lur errea lez.

Entzun nagizu arin, Jauna,  
ez daukat arnasarik-eta.

Ez egidazu zure aurpegia ezkutatu,  
illobira jatsiten diranai lez.

Goizean entzunerazo egidazu zure grazia,  
Zeugan dot ustea-ta.

Erakutsi egidazu artu bear dodan bidea,  
Zeugana jasoten dot nire arime-ta.

Askatu nagizu, Jauna, nire arerioagandik,  
Zeugan gordeten naz-ta.

Irakatsi egidazu zure naia beteten,  
nire Jainkoa Zeu zara-ta.

Zure arnasea ona da-ta,  
berak eroan nagiala lur lauan zear.



Zeure izenarren, Jauna, bizirik gorde nagizu;  
zure biotz-bigunagaitik, atara nagizu larrial-  
ditik.

ANT. Goizean, Jauna, entzunerazo egidazu zu-  
re grazia.

### 2'GARREN ANTIFONA

Poz-pozik atarako dozue ura Salbatzaillearen  
iturrietatik, aleluia.

ABESTIA. Is 12, 1-6

*Onik urtendako erriaren esker-emotea.*

*Egarri danak, neugana etorririk, edan da-  
giala (Jn 7, 37).*

Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna;  
asarre zintzazan nire aurka;

baiña zure asarrea baretu egin da,  
eta poztu egin nozu.

Bera da nire Jainko ta salbatzaillea:  
Beragan dot ustea eta ez dot ezeren bildurrik,

nire indar eta kemena Jauna da-ta;  
Bera da nire salbamena.

Pozik atarako dozue ura  
salbamenaren iturritik.

Egun aretan, auxe esango dozue: †  
Eskerrak emon Jaunari, \*  
dei egin Aren izenari,

zabaldu errietan Aren egintza bikaiñak,  
ospatu Aren izenaren andi-izatea.

Goratu egizue Jauna, arrigarriak egin dauz-ta;  
jakin dagiezala lurralde osoan;

ekin oiuka pozaren pozez, †

Sion'en bizi zareenok, \*

Israel'go Santua zuen erdian andia da-ta.

ANT. Poz-pozik atarako dozue ura Salbatzai-  
llearen iturrietatik, aleluia.

### 3'GARREN ANTIFONA

Goratu egizue geure indarra dan Jaungoikoa.

SALMUA: 80

*Alkartasuna andikiro erabarritzea.*

*Iñok ez dagiala euki biotz gaizto ta sinis  
gogorrik (Eb 3, 12).*

Goratu gure indar dan Jainkoa,  
jo txaloak Jakob'en Jainkoari:

lagundu, jo atanborak,  
zitara gozoak eta arpak;

jo turuta ilbarrian,  
ilbetean, geure jaia da-ta.

Israel'en lege bat da-ta,  
Jakob'en Jainkoaren agindu bat,

Jose'ri ezarri eutsan lege bat  
Ejipto'ko lurretik urtetean.

Berbakera ez-ezagun bat entzuten dot : †  
 Kendu egin neutsan sortea lepotik \*  
 eta aren eskuak itzi egin eben otzarea.

Samiñaldian deadar egin zenduan,  
 eta askatu egin zendudazan,

trumoi-artean gordeta erantzun neutsun,  
 Meriba'ko iturri-ondoan negurtu zendudazan.

Entzun, nire erri orrek, zeure aurka egiten dot  
 autorpen;  
 entzungo al nozu, Israel!

“Ez dozu izango jainko arrotzik, †  
 ez dozu gurtuko erbesteko jainkorik; \*  
 neu naz zure Jainko Jauna,

Ejipto'ko lurraldetik atara zendudazana;  
 zabaldu egizu agoa, bete dagitsudan”.

Baiña nire erriak ez eban nire abotsik entzun,  
 Israel'ek ez eban esanik egin nai izan:

euren biotz setatiaren naitara itzi nebazan,  
 euren naikerien eraz ibilli zeitezan.

Entzungo al nau nire erriak,  
 ibilliko al da Israel nire bidean zear!:

beingoan beeratuko neukez aren arerioak  
 eta nire eskua arein arerioen aurka biurtuko  
 litzake;

Jauna iguintzen dabenak †  
 laban-laban egingo leuskizue herba, \*  
 eta arein zoria erabagita geratuko litzake;

gari-mamiña emongo neuskizu janaritzat,  
 baso-eztiaz aseko zendukedaz.

ANT. Goratu geure indarra dan Jainkoa.

#### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko as-  
 tegunetan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna,  
 Ebanjelioko abestiaren antifona eta eskariak, aldi  
 orreitakoak artzen dira (tikusi I Geigarria). Urte-  
 barruan, auxe esaten da:

#### IRAKURGAI LABURRA. Erm 14, 17-19

Jaungoikoaren erreinua ez da jan-edana, Es-  
 piritu Santuagandiko zuzentasuna, bakea ta po-  
 za baiño. Orretan Kristo'ren morroi danak, Jaun-  
 goikoaren ederra ta gizonen txaloak daukaz.  
 Ekin daiogun, ha, bakerako ta alkarren obekun-  
 tzarako bideari.

#### ITAUN-ERANTZUNA

- B. Zeu zaitut gogoan, Jauna, iratzarririk.  
 E. Zeu zaitut gogoan, Jauna, iratzarririk.  
 B. Neure laguntza izan zintzazalako.  
 E. Zeu zaitut gogoan, Jauna.  
 B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
 tuari.  
 E. Zeu zaitut gogoan, Jauna, iratzarririk.

EBANJELIOKO ABESTIA (Benedictus)

ANT. Iragarri egiozu zure erriari salbamena,  
Jauna, eta parkatu eiguzuz gure peka-  
tuak.

ABESTIA. Lk 1, 68-79

Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna, \*  
bere erriari laguntza ekartera †  
eta askatasuna emotera etorri da-ta.

Dabid bere morroiaren ondorengoen artetik  
orain salbatzaille indartsu bat sortu dauku.

Au, aspaldidanik agindu izan eban  
bere profeta santuen bitartez :

gure arerio ta gorrotatzailleakandik  
onik atarako genduzala ;

gure aurretikoai erruki izango yakela  
eta beteko ebala bere alkartasun santua.

Eta auxe da Abraham gure aitari  
egin eutsan zin sendoa :

gure arerioakandik askatu egingo genduzala, \*  
bildur bagarik otseindu dagigun †  
gure bizitza guztian,

Berari eskiñiak izan yakozanak lez,  
zuzentasunaren billa diarduenak lez.

Zu, barriz, nire seme ori,  
Jaungoiko gorengoaren profeta izango zara,

Jaunaren aurretik joango zara-ta  
Aren etorrerea atontzen.

Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren  
erriari,  
baita pekatuen parkamena be.

izan be, gure Jaungoikoak, †  
guganako ontasunez beterik, \*  
goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,

illumetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak †  
argitasunez beteko, \*  
gure oinkadak bake-bideetan zuzentzeko.

Aintza Aitari, eta Semeari...

ANT. Iragarri egiozu zure erriari salbamena,  
Jauna, eta parkatu eiguzuz gure pekatuak.

#### ESKARIAK

Bedeinkatu dagigun Jaungoikoa, geure Aita ;  
bere semeak beti maitasunez begiratzen dauz  
eta ez dautse iñoiz be entzungor egiten arein  
eskariai, eta apalik esan daiogun :

*Argitu egizuz gure begiak, Jauna.*

Eskerrak emoten dautsuguz, Jauna, Jesukristo'-  
ren argiaz argitu gaituzulako ;  
—argitasun onek argitu dagizala gaur gure egi-  
tada guztiak.

Zeure jakituriak zuzendu gagizala gure lanal-  
dian ;  
—orrela, bizi barri bideetatik ibilliko gara.



Lagun eiguzu zoritxarrak sendotasunez garaitzen,  
—eta egizu, gogo zabalez otseindu zagiguzala.  
Zuzendu ta santutu egizuz gure eguneko burura-  
penak, herbak eta egintzak,  
—eta emoiguzu zure goi-argiai esana egiteko  
gogo bizia.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Zuzendu daiogun orain, guztiok batera, gure  
otoitza Aitari, eta esan daiogun: Gure Aita...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Apal-apalik eskatzen dautsugu, Jauna,  
egiazko argia ta argi guztien iturri zaran Orri:  
zure legea zintzoro ausnarturik,  
beti zeure argitan bizi gaitzezala.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

- B. Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gaizala.
- E. Amen.

## BARIKUA

### GORAPENAK

#### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

- B. Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.  
E. Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
tuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldie-  
tan. Amen. (Aleluia).

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko as-  
tegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen  
da (ikusi I Geigarria). Urtebarruan, auxe esaten  
da:

Argia zara, Jauna, eta argitasuna ereiten dozu.  
Zure Aitaren besoak eusten dautsen  
zeru zabalak zabaltzen dozuz.

Egunsentiak, printza gorritzak jantzita,  
atzamatu egin dauz urrunetako izarrak,  
lurra iruntzez dardaraka itzirik.

Illuna astiro-astiro joan dan artean,  
goizeko izar nausiak, Kristo'ren ezaugarriak,  
egun barria jaso ta sendotu egin dau.



Argi bete-betea zara, egunaren Egun ori,  
danean Bakar, Bakarrean Irutasun :  
Aintza zeuri, Jainko-agerkunde ezkututsu orri !

## SALMUTEGIA

## 1º ANTIFONA

Izan uste ona, seme; zure pekatuak parkatuta  
geratzen dira, aleluia.

SALMUA : 50

*Erruki, ene Jaungoikoa!*

*Espirituak barriztu dagiala zuen pentza-  
kerea : gizaki barriaz jantzi zaitetze (Ef.  
4, 23-24).*

Erruki zakidaz, ene Jainko, zure ontasunagai-  
tik,  
garbitu nire errua zure erruki andiagaitik;

kendu zearo nire dongakeria,  
garbitu nire pekatua.

Ezagutzen dot, bai, nire gaiztakeria,  
nire pekatua beti neure aurrean daukat :

zeure aurka, zeure aurka bakarrik egin dot pe-  
katu,

Zuk iguintzen dozun gaiztakeria.

Zuzena izango zara epaia emotean,  
errubagea izango zara ebaztean.

Begira : errudun jaio nintzan,  
nire amak pekatari sortu nenduan.

Biotz zintzoa atsegin yatzu,  
eta nire barruan jakituria irakasten daustazu.

Itze-bedarraz busti nagizu : garbi geratuko naz ; †  
garbitu nagizu, \*  
eta edurra baiño zuriago geratuko naz.

Entzunerazo niri atsegiña ta poza,  
alaitu bediz azur ausi oneik.

Aldendu zure aurpegia nire pekatutatik,  
garbitu nire pekatu guztiak.

Egin nigan, Jainko, biotz garbi bat,  
barriztu nire barruan gogo sendo bat ;

ez nagizu jaurti zure aurpegitik urrun,  
ez egidazu kendu zure arnasa santua.

Biurtu egidazu zure salbamen-poza,  
sendotu nagizu zintzotasun-arnasaz :

gaiztoai zeure bideak erakutsiko dautsedaz,  
pekatariak Zeugana biurtuko dira.

Odoletik atara nagizu, Jainko, †  
ene Jainko, nire Salbatzaille orrek !, \*  
eta nire miiñak zeure zuzentasuna abestuko  
dau.

Jauna, nire ezpanak zabaldu egingo dozuz,  
eta nire agoak zeure gorapena iragarriko dau.

Ez dozu oparirik atsegiñez ikusten ; †  
erre-oparirik eskiñi ba'negizu be, \*  
ez zeukean onartuko.

Nire oparia espiritu damutua da,  
biotz damutua ta apala ez dozu baztartzeko Zuk.

Lagun zakioz Sion'i, Jauna, zure ontasunagaitik,  
barriztu egizuz Jerusalem'go arresiak :

orduante onartuko dozuz opari jatorrak, †  
eskintzak eta erre-opariak, \*  
orduante eskiñiko yatzuz txalak zure altargaiñean.

ANT. Izan uste ona, seme; zure pekatuak parkatuta geratzen dira, aleluia.

### 2º GARREN ANTIFONA

Kristo, sorbaldan geure pekatuak eroiazala, egurrera igo zan, aleluia.

ABESTIA. Jr 14, 17-21

*Erriaren erostak gose ta gudaldian.*

*Jaungoikoaren erreñua urr dago; onbideratu zaitze eta sinistu egizue Barri Ona (Mk 1, 15).*

Nire begiak negar-anpuluh urtzen dira  
gau ta egun eten bagarik,  
nire erriko Alaba gaztearen zoritxar ikaragarriagaitik,  
oiñazeko zauriagaitik.

Landara urteten ba'naz,  
ezpataz ildakoak aurkitzen ditut;

eta urian sartzen ba'naz,  
gozeaz aulduta aurkitzen dodaz;

profeta naiz abade  
ara-ona dabiz lurraldean zear.

Zegaitik baztatu dozuz zearo Juda? †  
Zure iztarriak igundu egin ete-dau Sion? \*  
Zegaitik zauritu gaituz ezinbestean?

Bakearen zain gengoan, eta nasaitasunik ez;  
osasan-aldiaren zain, eta emen bildurra.

Autortzen dogu, Jauna, gure dongakeria, †  
gure aurretikoen errua, \*  
zure aurka pekatu egin dogu-ta.

Zeure izenarren, ez gagizuz baztatu, †  
ez kendu izen ona zure aulki aintzatsutik; \*  
gogoratu ta ez ausi gugaz dozun alkartasuna.

ANT. Kristo, sorbaldan geure pekatuak eroiazala, egurrera igo zan, aleluia.

### 3º GARREN ANTIFONA

Otseindu egizue Jauna pozik, aleluia.

SALMUA : 99

*Jauretxean sartzen diranen poza.*

*Garaipen-abesti bat kantatzeko agintzen yake erosiari (S. ATANASIO).*

Goratu egizue Jauna, lurtar guztiok, †  
otseindu egizue Jauna poz-pozik, \*  
sartu zaitzeze goraka baten Aren aurrean.

Jakin egizue Jauna dana Jainko : †

Berak egin gaituala eta Bereak garala, \*  
Beraren erri ta artaldeko ardi.

Sartu zaiteze Aren ateetatik eskerrak emonez, †

Aren aterpeetatik gorapen-abestiz, \*  
Ari eskerrak emonez eta Aren izena bedeinkatuz :

“Jauna ona da, †

Aren errukiak beti irauten dau, \*  
Aren zintzotasunak gizaldien gizaldietan”.

ANT. Otseindu egizue Jauna pozik, aleluia.

#### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizumá ta Pazko-aldiko as-  
tegunetan irakurgai laburra, itaun-erantzuna,  
Ebanjelioko abestiaren antifona eta eskariak, aldi  
orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Urte-  
barruan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Ef 4, 29-32

Ez bedi zuen agotik berba garratzik urten,  
onerako izan daitekezan berba on eta egokiak  
baiño, entzuleai gogoko izateko. Ez egizue Jaun-  
goikoaren Espiritua atsekabetu, erospen-egune-  
rako Aren ezaugarria artu dozue-ta. Urrundu  
zuekandik edozein samin, asarre, sumin, amo-  
rru, irain eta guztietariko gaiztakeriak. Izan  
zaiteze, barriz, alkarganako biozperatsu ta erru-  
kitsu, eta alkar parkatu egizue, Kristo'gan Jaun-  
goikoak be parkatu zaituenez.

#### ITAUN-ERANTZUNA

- B. Goizean entzunerazo egidazu zure grazia.  
E. Goizean entzunerazo egidazu ure grazia.  
B. Erakutsi egidazu artu bear dodan bidea.  
E. Entzunerazo egidazu zure grazia.  
B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
tuari.  
E. Goizean entzunerazo egidazu zure grazia.

#### EBANJELIOKO ABESTIA (Benedictus)

ANT. Jauna bere erriari laguntza ekartera eta  
askatasuna emotera etorri da.

ABESTIA. Lk 1, 68-79

Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna, \*  
bere erriari laguntza ekartera †  
eta askatasuna emotera etorri da-ta.

Dabid bere morroiaren ondorengoen artetik  
orain salbatzaille indartsu bat sortu dausku.

Au, aspaldidanik agindu izan eban  
bere profeta santuen bitartez :

gure arerio ta gorrotatzailleakandik  
onik atarako genduzala ;

gure aurretikoai erruki izango yakela  
eta beteko ebala bere alkartasun santua.

Eta auxe da Abraham gure aitari  
egin eutsan zin sendoa :



gure arerioakandik askatu egingo genduzala, \*  
bildur bagarik otseindu dagigun †  
gure bizitza guztian,

Berari eskiñiak izan yakozanak lez,  
zuzentasunaren billa diarduenak lez.

Zu, barriz, nire seme ori,  
Jaungoiko gorengoaren profeta izango zara,

Jaunaren aurretik joango zara-ta  
Aren etorrerea atontzen.

Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren erria-  
ri,  
baita pekatuen parkamena be.

izan be, gure Jaunkoikoak, †  
guganako ontasunez beterik, \*  
goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,

illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak †  
argitasunez beteteko, \*  
gure oinkadak bake-bideetan zuzentzeko.

Aintza Aitari, ta Semeari...

ANT. Jauna bere erriari laguntza ekartera eta  
askatasuna emotera etorri da.

#### ESKARIAK

Gurtu dagigun Kristo, bere gurutzeaz mundua  
salbatu ebana, eta eskatu daiogun biotzez:

*Emoiguzu, Jauna, zure errukia.*

Jesukristo Jauna, zure argitasunaz geure eguzki  
ta egun zaran Ori:

—egizu, goizaldea ezkerro, asmo gaizto guztiak  
ezereztu daitezala gugandik.

Zaindu egizuz, Jauna, gure bururapenak, herbak  
eta egintzak,

—gure eguna zure aurrean atsegingarri izan dai-  
ten.

Aldendu gure pekatuetatik zure begiak,

—eta kendu guban erru guztiak.

Zure gurutze ta biztueragaitik

—bete gagizuz Espiritu Santuaren pozaz.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Jaungoikoaren seme garan ezkerro, otoitz egin  
daiogun gure Aitari Kristo'k irakatsi euskunez:  
Gure Aita...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Zure Itzaren argiaz

gure ezjakintasunaren illunpeak

argitu dozuzan Jaungoikoa:

geitu guban Zeuk emon zeuskun fedea;

tentaldi batek be ez dagiala iñoiz be ondatu




zure graziak gure espirituan iziotu dauan  
sinismenaren eta maitasunaren sua.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gazizala.

*E.* Amen.



## ZAPATUA

### GORAPENAK

#### SARRERA

##### ASIERARAKO DEIA

*B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.

*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
tuari.

Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldie-  
tan. Amen. (Aleluia).

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko as-  
tegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen  
da (tikusi I Geigarria). Urtebarruan, auxe esaten  
da:

Goratu daigun Jainkoa  
argia sortzen danetik,  
egun onetako lanetan  
zaindu gaizala gatxetik.

Ezi dagigun miñña  
auzietan naastu bagarik;  
gorde daiguzan begiak  
uskeriak ikustetik.

Biotza garbi izan daigun,  
 ibilli gaitzezan zentzunez,  
 jan-edanetan ez daigun bizkortu  
 griña gaiztoen indarra.

Eguna barrero argitzean  
 barrua garbi gorderik;  
 abestu daigun Jaunari  
 zor dautsagun gorapena.

Aintza Jaungoiko Aitari  
 Seme Jainkoagaz batera;  
 Espiritu Santu Jainkoari be  
 bardin gizaldiz-gizaldi. Amen.

## SALMUTEGIA

## 1° ANTIFONA

Zure berbak, Jauna, espiritu ta bizia dira, ale-  
 luia.

SALMUA : 118, 145-152 (XIX)

*Legea agertzeari gorapen-abestia.*

*Jaungoikoaganako maitasuna auxe da :*  
*Beronen aginduak gordetea (Jn 1<sup>a</sup>, 5, 3).*

Biotz-biotzez egiten dautsut dei :  
 erantzun egidazu, Jauna, eta beteko dodaz  
 zure legeak ;

Zeuri egiten dautsut deadar : onik atara nagizu,  
 eta beteko dodaz zure erabagiak ;

egunsentiari aurea artzen dautsat laguntza-eske,  
 zure berben zain ;

gaualdiari aurea artzen dautsoe nire begiak,  
 zure agintzaria ausnartuz ;

entzun egizu nire abotsa, zeure errukiz ;  
 emoidazu bizia zure aginduakaz ;

ba-datoz urrera nire erasotaille gaiztoak,  
 zure naitik urrun dira.

Zu, Jauna, urr zagoz,  
 eta zure agindu guztiak sendoak dira ;

aspaldian ulertu neban  
 zure aginduak betiko ezarri zenduzala.

ANT. Zure berbak, Jauna, espiritu ta bizia di-  
 ra, aleluia.

## 3° GARREN ANTIFONA

Bialdu eiguzu, Jauna, zure jakituria, gure lane-  
 tan lagun egin daiskun.

ABESTIA. Jk 9, 1-6. 9-11

*Emoidazu, Jauna, jakituria.*

*Zuen arerio batek be ezin gogor egin aal  
 izango dautsuen berbetako etorria ta ja-  
 kituria emongo dautsuedaz nik (Lk 21,  
 15).*

Nire aurretikoen Aita, errukiaren Jauna, †  
 dana zeure berbaz egin \*  
 eta zure jakituriaraz gizona eratu zenduan Ori,

izaki guztiak menperatu egizan †  
 mundua zuzentasunez eta santutasunez zuzendu egizan, \*  
 eta zuzentasuna artez erabili egian :  
 emoidazu zure errege-aulki ondoan jesarrita dagoan jakituria,  
 ez nagizu baztatu zure semeen kopurutik.  
 Izan be, zeure morroi naz, zure mirabearen seme, †  
 gizon makal eta bizitza laburrekoa, \*  
 zuzentasuna ta legeak ulertzeko gai ez nazana.  
 Gizonik bikaiñena izanda be, †  
 Zugandik datorren jakituria ez ba'dauko, \*  
 ezetarako be ez da izango.  
 Zeugaz dago zure egintzak ezagutzen dauzan jakituria,  
 zeure ondoan egoan mundua egin zenduanean ;  
 berak daki Zuri gogoko yatzuna,  
 zure aginduai egoki datorkiena.  
 Bialdu egizu zeru santu orretatik,  
 bialdu zure aulki ospatsutik,  
 neure ondoan egon daiten eta neugaz egin dagian lan.  
 Zuri gogoko yatzuna erakusten daustala.  
 Dana dakian eta ulertzen dauan ezker, †  
 berak zuzenduko nau zuurki nire eginkizuntan \*  
 eta berak zainduko nau bere entzute onaz.  
 ANT. Bialdu eiguzu, Jauna, zure jakituria, gure lanetan lagun egin daiskun.

## 3'GARREN ANTIFONA

Jaunaren zintzotasunak beti irauten dau.

SALMUA: 116

*Jaunari gorapena emoteko deia.*

*Kristo'k abegi ona egiten dautse jentillai,  
 Jaungoikoa beronen errukiagaitik goratu  
 dagien (Erm 15, 9).*

Goratu egizue Jauna, atzerri guztiok, \*  
 ospatu egizue, erri guztiok :

guganako Aren errukia sendoa da, \*  
 Aren zintzotasunak beti irauten dau.

ANT. Jaunaren zintzotasunak beti irauten dau.

## JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko astegunetan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna, Ebanjelioko abestiaren antifona eta eskariak, aldi orreitakoak artzen dira (ikus I Geigarria). Urtebaruan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Flp 2, 14-15

Egizue guztia mormoxeta eta eztabaida bagarik, gizarte oker eta gaizto onen erdian Jaungoikoaren seme zintzo ta orbanbage izan zaitezzen; argi-zuzia lurrean lez agertzen zaree arein artean.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Zeuri egin neutsun dei, Jauna: Zeu zara nire aterpe.
- E. Zeuri egin neutsun dei, Jauna: Zeu zara nire aterpe.
- B. Eta nire arloa bizitza-lurrean.
- E. Zeu zara nire aterpe.
- B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.
- E. Zeuri egin neutsun dei, Jauna: Zeu zara nire aterpe.

## EBANJELIOKO ABESTIA (Benedictus)

ANT. Argitu egizuz, Jauna, illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak.

ABESTIA. Lk 1, 68-79

Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna, \*  
bere erriari laguntza ekartera †  
eta askatasuna emotera etorri da-ta.

Dabid bere morroiaren ondorengoan artetik  
orain salbatzaille indartsu bat sortu dausku.

Au, aspaldidanik agindu izan eban  
bere profeta santuen bitartez:

gure arerio ta gorrotatzailleakandik  
onik atarako genduzala;

gure aurretikoai erruki izan yakela  
eta beteko ebalá bere alkartasun santua.

Eta auxe da Abraham gure aitari  
egin cutsan zin sendoa:

gure arerioakandik askatu egingo genduzala, †  
bildur bagarik otseindu dagigun \*  
gure bizitza guztian,

Berari eskiñiak izan yakozanak lez,  
zuzentasunaren billa diarduenak lez.

Zu, barriz, nire seme ori,  
Jaungoiko gorengoaren profeta izango zara,

Jaunaren aurretiko joango zara-ta  
Aren etorrerea atontzen.

Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren erri-  
ri,  
baita pekatuen parkamena be;

izan be, gure Jaungoikoak,  
guganako ontasunez beterik,  
goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,

illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak †  
argitasunez beteteko, \*  
gure oinkadak bake-bideetan zuzentzeko.

Aintza Aitari...

ANT. Argitu egizuz, Jauna, illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak.

## ESKARIAK

Dei egin daiogun Jaungoikoari, zeru-lurreko iza-  
ki guztien gainetik Kristo'ren Ama dan Maria  
jarri eban Ari, eta uste osoz esan daiogun:



Aita errukiorra, eskerrak emoten dautsuguz amatzat eta ikasbidetzat Maria emon dauskuzulako,

—santutu gagizuz bere bitartez.

Zeuk emon zeutsan Maria'ri zure berbak ausnartzeko eta bere biotzean gordeteko indarra, baita beti zeure serbitzari zintzo-zintzoa izateko be;

—egizu, aren bitartez, geu be, benetan, zeure Semearen serbitzari ta ikasle izan gaitzezala.

Zeuk nai izan zenduan Maria'k Espiritu Santuaren egiñez sortzea;

—Maria'ren bitartez, emoiguzuz Espiritu beronen frutuak.

Zeuk emon zeutsan Maria'ri gurutze-ondoan irauteko indarra, eta pozez bete zenduan zure Semearen biztuereaz;

—Maria'ren bitartez, adoretu gagizuz atsekabeen eta bizkortu egizu gure itzaropena.

Beste asmo batzuk be esan daitekez gaiñera.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Amaitu daiguzan gure eskariak Jaunak berak irakatsi euskun otoitzaz: Gure Aita...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Gure salbamenaren iturri ta asiera zaran Jaungoikoa! :

egizu, emen lur onetan gure bizitzak irauten dauan artean,

eten bagarik goratu zagiguzala

eta onela, egunen baten,

zeruko betiko gorapenetan eskuartu dagigula.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.


*B.* Jaunak bedeinkatu,

gaitz guztietatik gorde

eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.






## ARRATSALDEKO OTOITZA

### BEZPERAK

*Bezperetako otoitza, egun-barruan artutako mesedeakaitik eskerrak emoteko da, baita artez burutu dogun guztiagaitik be.*

*Gaiñera, illunkeran egiten dan ordu onek, Jesus'ek bere apostoluakaz azken-aparitan ospatu eban Eukaristi-Oparia, Gurutzeko Opariaren gomutapena, ekarten dausku gogora.*

*Eguzkia sartzean, illuntzerik ez dauan egiazko Argiari, Kristo'ri, jasoten dautsagu gure biotza.*



## I DOMEKEA

### BEZPERAK

#### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

- B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.  
*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko domeketan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

Zatoz, Espiritu Santu,  
eta bialdu egizu zerutik  
zure argi-izpia.

Zatoz, gaisoen aita ;  
zatoz, doai-emoille,  
biotzen argi.

Poz-emoille bikaiña,  
etxelagun atsegin,  
bizkortzaille gozo.

Lanetan atseden,  
nekean aringarri,  
malkoetan pozgarri.

Bete egizu,  
argi guztiz doatsu orrek,  
zure zintzoen biotz-barrua.

Zure laguntza bagarik  
ez dau gizonak ezer,  
ez dau ezer on danik.

Garbitu egizu zikin dagoana,  
busti legor dagoana,  
osatu zauri guztiak.

Bigundu egizu gogor dagoana,  
berotu otz dagoana,  
zuzendu oker dagoana.

Emon egiezuz  
Zugan ustea daben zintzoai  
zure zazpi doai santuak.  
Emon egiezu onoinen-saria,  
emon azken-osasuna,  
emon betiko zoriona. Amen.

## SALMUTEGIA

## 1° ANTIFONA

Jauna biztu egin zan eta Aitaren eskumaldean  
dago jesarrita, aleluia.

SALMUA : 109, 1-5. 7

*Mesias, Errege ta Abade.*

*Mesias'ek errege izan bear dau, bere arerio guztiak bere oiñazpian ipiñi arte (Ko 1<sup>a</sup>, 15, 25).*

Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan :  
“Jesarri zaitez nire eskumaldean,

eta zure arerio guztiak  
zeure oiñazpiko egingo dodaz”.

Sion'dik zabalduko dau Jaunak †  
zure aginpide-makillearen indarra : \*  
azpiratu egizuz gudaketan zure arerioak.

“Andikia zara jaiotegunetik,  
dirdira santuen artean ;

neuk sortu zendudazan, iruntza lez,  
egunsentia baiño leen”.

Jaunak zin egin dau eta ez da garbatzen : †  
“Beti-betiko zara zu abade, \*  
Melkisedek'en arauz”.

Jauna zeure eskumaldean, bere asarre-egunean :  
ausi egingo dauz erregeak.

Bidean doala, errekan edango dau ura ;  
orrexegaitik jasoko dau burua.

ANT. Jauna biztu egin zan eta Aitaren eskumaldean dago jesarrita, aleluia.



2<sup>o</sup>GARREN ANTIFONA

Illunpeen menpetik atara eta bere Seme maitearen erreinura aldatu gaitu, aleluia.

## SALMUA: 113 A

*Israel Ejipto'gandik askatuta: Urteerako miragarriak.*  
*Autortu egizue, zeuek be, mundua ukatu dozuenok, urten egin zareela Ejipto'tik*  
 (S. AGUSTIN).

Isarel Ejipto'tik urten zanean  
 Jakob'en semeak erbestetik,

Juda izan zan arein jauretxea,  
 Israel izan zan arein etxaldea.

Areik ikustean, itsasoak iges egin eban,  
 Jordan'ek atzerantz egin eban;

mendiak triska egin eben, adarien antzera,  
 baita menditxoak be, bildotsen antzera.

—Zer dala-ta zoaz igesi, itsaso?,  
 eta zu, Jordan, zegaitik atzeraka?

Zegaitik egin triska, mendiok, adariak lez?,  
 zegaitik diarduzue saltoka, bildotsak lez?

Lurra ikaraka asten da Jaunaren aurrean,  
 Jakob'en Jainkoaren aurrean:

atxa urtegi biurtzen dau,  
 sukarrria iturburu.

ANT. Illunpeen menpetik atara eta bere Seme maitearen erreinura aldatu gaitu, aleluia.

3<sup>o</sup>GARREN ANTIFONA

Jaungoikoa errege da, lurra pozetan, aleluia.

Garizumatik kanpo, San Joan'en Agerpeneko abestia esaten da; Garizuman, barriz, ikusi beerago.

ABESTIA. Cf. Ap 19, 1-7

*Bildotsaren ezteguak*

Aleluia.

Salbamena ta aintza ta aal-izatea geure Jaungoikoarenak dira, Aren epaiak egiazkoak eta zuzenak dira-ta.

E. Aleluia.

Aleluia.

Goratu egizue Jauna, Beronen morroi guztiok, Beroni bildur dautsazuenok, txiki ta andi.

E. Aleluia.

Aleluia.

Jauna, gure Jainkoa, danaren Jabea, errege da-ta, poztu ta alaitu gaitazan, eta eskerrak emon daio-guzan.

E. Aleluia.

Aleluia.

Eldu da Bildotsaren eztegua,  
Beronen emaztea apaindu egin da.  
E. Aleluia.

ANT. Jaungoikoa errege da, lurra pozetan, aleluia.

Garizumako domeketan, San Joan'en Agerpeneko abestiaren ordeztan, San Pedro'ren Idazkiko abestia esaten da.

ANT. Zure gurutze ta nekaldia gaitik, onik atara gagizuz, Jauna.

ABESTIA. Cf. P 1<sup>a</sup>, 2, 21b-24

*Kristo'k Jaungoikoaren morroiak, bere gogoz artu eban nekaldia.*

Kristo'k gugaitik nekeak eroan ebazan,  
Aren lorratzai jarraitzeko eredia zuei itzirik.

Ez eban pekatuak egin,  
eta Aren agoan ez zan iruzurrik aurkitu;  
iraindua izanik,  
ez eban iraiñaz erantzuten;  
oiñazetua izanik,  
zemaika asi bagarik,  
ebazle zuzenaren eskuetan  
izten eban bere auzia.

Berak eroan ebazan bere gorputzean  
gure pekatuak egur-gaiñean:

gu, pekatuentzat ilda,  
zuzentasunarentzat bizi gaitzezan.  
Aren zaurien bidez izan gara osatuak.

ANT. Zure gurutze ta nekaldia gaitik, onik atara gagizuz, Jauna.

#### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko, domeketan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna eta eskariak, aldi orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Ko 2<sup>a</sup>, 1, 3-4

Bedeinkatua Jesukristo gure Jaunaren Jaungoiko ta Aita, Aita guztiz errukitsu ta Jaungoiko guztiz poz-emoillea, gure atsekabe-aldi guztietan poztuten gaituana: geuk be, neke-aldian diranak, Jaungoikoak alaitzen gaituan pozez poztu dagiguzan.

#### ITAUN-ERANTZUNA

B. Bedeinkatua zara, Jauna, zeru-sabaian.  
E. Bedeinkatua zara, Jauna, zeru-sabaian.  
B. Aintzagarri ta goragarri gizaldietan.  
E. Zeru-sabaian.  
B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
E. Bedeinkatua zara, Jauna, zeru-sabaian.

## EBANJELIOKO ABESTIA (Magnificat)

ANT. Zuzentasun-egarri diranak, Jaunak ase ta ondasunez beteten dauz.

ABESTIA. Lk 1, 46-55

Nire izate guztiak Jauna goratzen dau. \*  
Nire biotza pozez beterik dago †  
nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,

bere begiak neugan jarri dauzalako,  
Aren mirabe apala naz-ta.

Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango daus-  
te: †  
guztialdun Arek, izena santu dauan Arek, \*  
nire alde arrigarriak egin dauz-ta.

Arek beti izango dautse errukia  
Bera goratzen dabenai.

Bere besoaren indarraz  
arroen asmoak ondatu egiten dauz.

Andikia aulkitik lurrera bota  
eta apala gora jasoten dau.

Gose diranak ondasunez bete  
eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Bere morroiari, Israel erriari, †  
laguntza ekartera dator, \*  
bere errukia gogoan izanik,

geure aurretikoai †  
—Abrahan'i ta onen ondorengo guztiai— \*  
egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren  
arauz.

Aintza Aitari...

ANT. Zuzentasun-egarri diranak, Jaunak ase ta ondasunez beteten dauz.

## ESKARIAK

Gurtu daigun Kristo, gure Jaun eta Elizearen  
Buru, eta uste osoz esan daigun :

*Betorkigu zure erreñua, Jauna.*

Jauna, gizonen adiskide, zure Elizea gizonen  
artean alkartasun  
eta batasun-eragile egizu,  
—baita erri guztientzat salbamen-ezaugarri be.  
Zaindu egizuz zure beso aaltsuaz Aita Santua ta  
Gotzain guztiak,  
—eta batasunez, maitasunez eta bakez lan egitea  
emoiezu.

Emoiguzu kristauoi, Kristo'gaz, geure Irakaslea-  
gaz, biotz-biotzez  
bat eginda bizi izatea,  
—eta zure zintzo guztiai, euren bizikeretan, zeu-  
re Erreñuaren etorrerea autortzea emoiezu.

Emoiozu, Jauna, munduari bakearen doia,  
—eta egizu, erri guztietan zuzentasuna ta zorio-  
na izan daitezala nagusi.

Beste asmo batzuk be agertu daitezkez gaiñera.

II diranai biztuera goragarria emon egiezu,  
—eta egizu, oraindiño mundu onetan bizi garano,  
egunen baten arekaz batera betiko zoriona lortu dagigula.

## DOMEKAKO OTOITZA

Amaitu daigun gure otoitza Jaunaren berbakaz : Gure Aita...

## AMAIERA

## OTOITZA

Gorapenezko gure illunkera-oparia  
Zeuri eskintzean, Jauna,  
apal-apalik eskatzen dautsugu :  
gau ta egun zeure legea ausnarturik,  
egunen baten betiko bizitzako  
argia ta saria lortu dagiguzala.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

*E.* Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.

## II DOMEKEA

## BEZPERAK

## SARRERA

## ASIERARAKO DEIA

*B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.

*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

## GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko domeketan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

TALDEAK : Geratu zaitetz gugaz,  
ba-dator gaba-ta.

Zelan aurkituko zaitugu, ba,  
eguna illuntzean,  
zure bidea gure bidea ez ba'da?  
Geratu zaitetz gugaz ;  
maia gertu dago,  
ba-doguz ogia ta ardaoa.



Zelan jakingo dogu  
gizonen artean gizon zarana  
gure mai apalean eskuartzen ez ba'dozu?  
Banandu eiguzu zure gorputza  
eta pozak uxatu egingo dau  
gizonaren gainean dagoan illuntasuna.

Zure aurpegi ederraren gainean  
eguna urratzen ikusi genduan,  
eta eguzkia zure aurpegitik aurrera igaroten.  
Gabeko aizeak ez daiskula atzamatu  
goizean zure igarroteak  
itzi euskun su bizia.

Jaurti egizuz zeure billa luzatuta dagozan  
gure eskuetara  
Espirituaren txingar iziotuak ;  
eta garbitu gizonaren biotzaren  
sakon-sakonean  
erruak illundutako zure irudia.

## SALMUTEGIA

## 1º ANTIFONA

Egia burutzen dauana, argitara urreratzen da,  
aleluia.

SALMUA : 118, 105-112

*Jainko-legeari gorapen-abestia.*

*Auxe da nire agindua: alkar maite izan  
dagizuela (Jn 15, 12).*

Argi-ontzia da zure itza nire oiñentzat,  
argia nire bidean :

zin egin dot eta beteko dot :  
beteko dodaz zure agindu zuzenak.

Ni bai saminduta, Jauna ! :  
emoidazu bizia zure agintzariaren eraz.

Onartu egizuz, Jauna, diñodazan zin-eskintzak,  
irakatsi egidazuz zure aginduak ;  
nire bizia arriskuan dago,  
baiña ez yat zure naia aaztuten ;

gaiztoak lakioa jarri eusten,  
baiña ez nintzan zure erabagietatik okertu.

Zeure aginduak dira nire betiko oiñordetza,  
nire biotzaren poza ;

nire biotza zeure legeak betetera makurtzen  
dot,  
beti ta zearo.

ANT. Egia burutzen dauana, argitara urreratzen  
da, aleluia.

## 2º GARREN ANTIFONA

Jauna, eriotz-loturetatik askatuta, biztu egin da,  
aleluia.

SALMUA : 15

*Kristo'k eta Beronen gorputz-atalak biztuereaa  
itxaroten dabe.*

*Jaungoikoak Jesus biztu egin eban, eriotz-  
loturak ausirik (Ap 2, 24).*

Zaindu nagizu, ene Jainko,  
nire gordelekua Zeugan dago-ta;

auxe dirautsat Jaunari :  
“Zeu zara nire ondasuna”.

Lurreko jainkoak eta jaunak  
ez nabe beteten.

Jainko arrotzen irudiak  
ugaritu egiten dabez;

nik ez dot iñoiz be nire eskuakaz †  
arein odol-oparirik isuriko, \*  
arein izenak nire ezpanetan ez dodaz artuko.

Jauna da nire oiñordetzaren saila ta nire edon-  
tzia,  
zeure eskuan dago nire zoria :

atal ederra urten yat niri,  
betiko yat nire soloa.

Onulari yatan Jauna bedeinkatuko dot,  
gabez be irakatsi egiten nau barruz.

Jauna daukat beti nire aurrean ; †  
nire eskumaldean Bera dodala, \*  
ez dot zirkiñik egingo.

Orregaitik, poztu egiten yat biotza, †  
alaitu egiten yataz erraiak, \*  
eta nire aragia nasai-nasai dago :

ez nozu eriotzara eroango-ta,  
zure adiskideari usteltzea ezagutzen be  
ez dautsazu itziko.

Bizitza-bidea erakutsiko daustazu, †  
atsegiñez beteko nozu zure aurrean, \*  
betiko pozez zure eskumaldean.

ANT. Jauna, eriotz-loturetatik askatuta, biztu  
egin da, aleluia.

### 3'GARREN ANTIFONA

Jesus izenaren aurrean, jarri bediz balauniko  
zeru-lurreko guztiak, aleluia.

### ABESTIA. Flp 2, 6-11

*Kristo, Jaungoikoaren morroia, bere Pazko-  
misterioan.*

Kristo'k, izatez Jaungoikoa izanarren,  
ez eban bere burua Jaungoiko-maillan era-  
kutsi :

bere burua beeratu egin eban, ostera, †  
morroi-itxurea arturik \*  
eta gizonen antzeko egiñik.

gizon-eraz zala,  
bere burua txiki egin eban,

eriotzaragiño esaneko egiñaz,  
gurutzean ilteragiño egin be.

Aregaitik, Jaungoikoak be goratu egin eban  
eta izen guztien gaiñeko dan izena emon eu-  
tsan :

Jesus izena entzutean,  
zeruetan, lurrean eta inpernuetan dagoan da-  
na  
belauniko jarri daiten,

eta, Jaungoiko Aitaren aintzarako,  
miin guztiak Jesukristo Jauntzat autortu da-  
gien.

ANT. Jesus izenaren aurrean, jarri bediz be-  
launiko zeru-lurreko guztiak, aleluia.

#### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko domeketan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna, Ebanjelioko abestiaren antifona eta eskariak, aldi orreitakoak artzen dira (ikus I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

#### IRAKURGAI LABURRA. Kol 1, 3-6a

Zuen alde egiten doguzan gure otoitzetan, beti eskerrak emoten dautsaguz Jaungoikoari, Jesukristo gure Jaunaren Aitari: Jesukristo'gan zuen sinismena ta santu guztiakanako dozuen maitasuna jakin dogun ezkerro; eta ori, zeruetan itzita daukazuen itxaropenagaitik. Itxaropen orretan izan zaree irakatsiak, Barri Onaren egiazko itzaren bidez. Eldu izan yatzuen Barri On onek, lur guztian lez, zeuen artean be frutua emoten dau eta aurrera egiten.

#### ITAUN-ERANTZUNA

- B. Eguzkiaren urteeratik sartzerarte, bedeinkatua Jaunaren izena.  
E. Eguzkiaren urteeratik sartzerarte, bedeinkatua Jaunaren izena.  
B. Aren aintza zeruen gainetik.  
E. Bedeinkatua Jaunaren izena.  
B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
E. Eguzkiaren urteeratik sartzerarte, bedeinkatua Jaunaren izena.

#### EBANJELIOKO ABESTIA (Magnificat)

ANT. Jaunak andikia aulkitik lurrera bota eta apala gora jasoten dau.

#### ABESTIA. Lk 1, 46-55

Nire izate guztiak Jauna goratzen dau. \*  
Nire biotza pozez beterik dago †  
nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,

bere begiak neugan jarri dauzalako,  
Aren mirabe apala naz-ta.

Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango dauste: †  
guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan  
Arek, \*  
nire alde arrigarriak egin dauz-ta.

Arek beti izango dautse errukia  
Bera goratzen dabenai.

Bere besoaren indarraz  
arroen asmoak ondatu egiten dauz.

Andikia aulkitik lurrera bota  
eta apala gora jasoten dau.

Gose diranak ondasunez bete  
eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Bere morroiari, Israel erriari, †  
laguntza ekartera dator, \*  
bere errukia gogoan izanik,

gure aurretikoai †  
—Abrahan'i eta onen ondorengo guztiai— \*  
egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren  
arauz.

Aintza Aitari...

ANT. Jaunak andikia aulkitik lurrera jaurti eta  
apala gora jasoten dau.

#### ESKARIAK

Emon daioguzan eskerrak Jaunari, bere solotzat  
aukeratu dauan erria lagundu ta gordeten  
dauan Ari, eta, guganako Aren maitasuna go-  
goraturik, eskatu daiogun biotzez esanez:

*Entzun gagizuz, Jauna, zeugan dogu ustea-ta.*

Maitasunez beteriko Aita, I. Aita Santuaren alde  
eta I. gure Gotzaiñaren alde eskatzen dautsu-  
gu:

—gorde egizuz zure indarraz eta santutu zure  
graziaz.

Geisoak ikusi dagiela euren miñetan zure Semea-  
ren nekaldian eskuartzen dabela:

—orrela Aren poztasunean be eskuartu dagien.  
Begiratu, errukiz beterik, estaltzeko aterperik  
ez daukenak,  
—eta egizu, gura daben bizitokia aurkitu dagie-  
la aalbait lasterren.

Emon eta iraunerazo egizuz, arren, Jauna, lu-  
rreko frutuak,  
—egunoroko ogi bagarik iñor be geratu ez dai-  
ten.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

Erruki zakiez, Jauna, ildakoai  
—eta zabaldu egiezu zure betiko bizitokiko atea.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Espiritu Santuak eraginda, egin daiogun Aita-  
ri Jaunak irakatsi euskun otoitza: Gure Aita...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Onartu biotz onez, Jauna,  
illunkerako gure eskaria,  
eta egizu, zure Semearen lorratzai jarraiturik,




eten bagarik egintza onen frutuak emon dagiguzala.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

*E.* Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.



### III DOMEKEA

#### BEZPERAK

#### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

*B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.

*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko domeketan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

Ilda zengozala  
esan cuskuen gabez,  
eta fedea iratzarririk egon zan  
zure gorputz-ondoan.  
Gau guztia egin genduan  
arriari eragin nairik.

**TALDEAK :** Eguzkia barrero etortean,  
lurrak barrero ikusiko dau  
Jaunaren aintza.

Ez ekien azaltzen  
illobiko zaintzailleak :  
iñok ez eban jakin ordurik,  
ezta zelan izan zan be.  
Baiña egundu baiño leen,  
aintzaz bete ziran  
zure bost zauriak.

TALDEAK : Eguzkia barriri etortean,  
lurrak barriri ikusiko dau  
Jaunaren aintza.

Gure bost zentzunak  
loa billatzen ba'dabe,  
gure sinismena zoli ta iratzarririk  
geratu daitela.  
Fedea zain,  
gabez Zu biztuten  
ikusi zagizan.

TALDEAK : Eguzkia barriri etortean,  
lurrak barriri ikusiko dau  
Jaunaren aintza.

## SALMUTEGIA

## 1° ANTIFONA

Eguzkiaren urteeratik sartzerarte, bedeinkatua  
Jaunaren izena.

SALMUA : 109, 1-5. 7

*Mesias, Errege ta Abade.*

*Mesias'ek errege izan bear dau, bere arerio guztiak bere oiñazpian ipiñi arte (Ko 1<sup>a</sup>, 15, 25).*

Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan :  
“Jesarri zaitetz nire eskumaldean,

eta zure arerio guztiak  
zeure oiñazpiko egingo dodaz”.

Sion'dik zabalduko dau Jaunak †  
zure aginpide-makillearen indarra : \*  
azpiratu egizuz gudaketan zure arerioak.

“Andikia zara jaiotegunetik,  
dirdira santuen artean ;

neuk sortu zendudazan, iruntza lez,  
egunsentia baiño leen”.

Jaunak zin egin dau eta ez da garbatzen : †  
“Beti-betiko zara zu abade, \*  
Melkisedek'en arauz”.

Jauna zeure eskumaldean, bere asarre-egunean :  
ausi egingo dauz erregeak.

Bidean doala, errekan edango dau ura ;  
orrexegaitik jasoko dau burua.

ANT. Eguzkiaren urteeratik sartzerarte, bedeinkatua Jaunaren izena.

## 2'GARREN ANTIFONA

Jaunak mirari gomutagarriak egin dauz, aleluia.

SALMUA : 110

*Andiak dira Jaunaren egintzak.*

*Andiak eta arrigarriak dira zure egintzak  
Jainko Jaun guztiaaldun (Ag 15, 3).*

Biotz-biotzez emoten dautsadaz eskerrak Jaunari,  
zintzoen lagunartean, batzarrean.

Andiak dira Jaunaren lanak,  
maite dabezan guztientzat aztergarri.

Argitasuna ta edertasuna da Aren lana,  
Aren eskuzabalak beti irauten dau;

mirari gomutagarriak egin dauz,  
Jauna biozpera ta biotz-bigun da :

Bere zintzoai janaria emoten dautse,  
bere alkartasuna gogoan dauala.

Bere egiñen indarra erakutsi eutsan bere erriari,  
arei jentillen soloa emonik.

Zuzentasuna ta egia dira Aren eskuen lanak,  
Aren agindu guztiak ustetsu artu daitekez :

sendo dagoz beti-betiko,  
benetan eta zuzen beteko dira.

Erospena bialdu eutsan bere erriari, †  
betiko ezarri dau bere alkartasuna : \*  
Aren izena santua ta bildurgarria da.

Jaunaganako bildurra jakituriaren asikiña da, †  
zuur diardue a beteten dabenak : \*  
Jaunaren gorapenak beti irauten dau.

ANT. Jaunak mirari gomutagarriak egin dauz,  
aleluia.

## 3'GARREN ANTIFONA

Aleluia, gure Jainko Jauna errege da, poztu gaitazan eta eskerrak emon daioguzan, aleluia.

ABESTIA. Cf. Ag 19, 1-7

*Bildotsaren ezteguak*

Aleluia.  
Salbamena ta aintza ta aal izatea geure Jaungoikoarenak dira, Aren epaiak egiazkoak eta zuzenak dira-ta.

E. Aleluia.

Aleluia.  
Goratu egizue Jauna, Beronen morroi guztiok,  
Beroni bildur dautsazuenok, txiki ta andi.

E. Aleluia.

Aleluia.  
Jauna, gure Jainkoa, danaren Jabea, errege data, poztu ta alaitu gaitazan, eta eskerrak emon daioguzan.

E. Aleluia.

Aleluia.

Eldu da Bildotsaren eztegua,

Beronen emaztea apaindu egin da.

E. Aleluia.

ANT. Aleluia, gure Jainko Jauna errege da,  
poztu ta alaitu gaitzean eta eskerrak  
emon daioguzan, aleluia.

Garizumako domeketan, San Joan'en Agerpeneko  
abestiaren orde, San Pedro'ren Idazkiko abestia  
esaten da.

ANT. Aren zauriak osatu egin gaitue.

ABESTIA. Cf. P 1<sup>a</sup>, 2, 21b-24

*Kristo'k, Jaungoikoaren morroiak, bere gogoz  
artu eban nekaldia*

Kristo'k gugaitik nekeak eroan ebazan,  
Bere lorratai jarraitzeko eredia izten eus-  
kula.

Ez eban pekatu rik egin,  
eta Aren agoan ez zan iruzurrik aurkitu;

iraindua izanik,  
ez eban iraiñaz erantzuten;

oiñazetua izanik zemaika asi bagarik, †  
ebazle zuzenaren eskuetan \*  
izten eban bere auzia.

Berak eroan ebazan bere gorputzean  
gure pekatuak egur-gaiñean :

gu, pekatuentzat ilda, †  
zuzentasunarentzat bizi gaitzean. \*  
Aren zaurien bidez izan gara osatuak.

ANT. Aren zauriak osatu egin gaitue.

#### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko  
domeketan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna eta  
eskariak, aldi orreitakoak artzen dira (ikus I Gei-  
garria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. P 1<sup>a</sup>, 1, 3-5

Bedeinkatua Jesukristo gure Jaunaren Jaun-  
goiko ta Aita, bere erruki andiz illen artetik Je-  
sukristo'ren biztueraz, itxaropen bizirako sortu  
gaitu barriro-ta, zuentzat zeruan ezin usteldu,  
loitu ta zimeldu daiteken ondasunerako. Zeuen-  
tzat, bai, sinismenaren bidez, azken-aldian ager-  
tzeko gertu dagoan salbamena jaristeko, Jaun-  
goikoaren indarrak zainduta zagozenontzat.

#### ITAUN-ERANTZUNA

B. Bedeinkatua zara, Jauna, zeru-sabaian.  
E. Bedeinkatua zara, Jauna, zeru-sabaian.  
B. Aintzagarri ta goragarri gizaldietan.  
E. Zeru-sabaian.



B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

E. Bedeinkatua zara, Jauna, zeru-sabaian.

EBANJELIOKO ABESTIA (Magnificat)

ANT. Guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan Arek, arrigarriak egin dauz nire alde.

ABESTIA. Lk 1, 46-55

Nire izate guztiak Jauna goratzen dau. \*

Nire biotza pozez beterik dago †  
nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,

here begiak neugan jarri dauzalako, \*  
Aren mirabe apala naz-ta.

Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango dautte: †  
guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan Arek, \*  
nire alde arrigarriak egin dauz-ta.

Arek beti izango dautse errukia  
Bera goratzen dabenai.

Bere besoaren indarraz  
arroen asmoak ondatu egiten dauz.

Andikia aulkitik lurrera bota  
eta apala gora jasoten dau.

Gose diranak ondasunez bete  
eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Bere morroiari, Israel erriari, †  
laguntza ekartera dator, \*  
bere errukia gozoan izanik,

gure aurretikoai †

—Abrahan'i ta onen ondorengo guztiai— \*  
egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren arauz.

Aintza Aitari...

ANT. Guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan Arek, arrigarriak egin dauz nire alde.

ESKARIAK

Dei egin daiogun Jainko gure Aitari; era miragarritz egin eban mundua, era miragarriagoz erosi eban, eta eten bagarik maitasunez iraunerazoten dau; esan daiogun, ba, pozez beterik:

*Barriztu egizuz, Jauna, zure maitasunaren miragarriak.*

Eskerrak emoten dautsuguz, Jauna, munduaren bidez zeure aal-izatea ta aintza agertu dautsukuz-ta;

—egizu, munduko gora-beeretan zeure ardura-pena ikusten ikasi dagigula.

Zure Semeak gurutzean izan eban garaipenaren bidez, munduari bakea iragarri zeutsan Jauna:

—zaindu gagizuz edozein etsipen eta bildurretik.

Zuzentasuna maite ta au lortzen diarduen guztiai,

—mundu ohea egiten, benetan eta alkartasunez lagundu dagiela jadetsi egiezu.

Lagun egiezu, Jauna, zapalduai, poztu atsekabe-tuak, askatu katiguak, emon ogia gose diranai, sendotu makalak,

—guztiakan gurutzeko garaipena agertu daiten.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

Irugarren eguncan zure Semea illobitik aintzaz beterik biztu zenduan Jauna :  
egizu, geure anai ildakoak be biziaren osotasunera eldu daitezala.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Amaitu daigun gure eskaria Jaunak berak irakatsi euskun otoitzaz : Gure Aita...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Jainko guztiaaldun eta betikoa,  
egunaren eta gabaren Jauna ;  
apal-apalik eskatzen dautsugu :  
egiazko zuzentasun-eguzkia dan  
Kristo'ren argiak  
argitu dagizala beti gure biziak ;  
orrela, egunen baten,


Zu beti bizi zaran argi orretan  
poztutea merezi dagigun.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

E. Amen.

B. Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

E. Amen.



## IV DOMEKEA

### BEZPERAK

#### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

- B. Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.  
E. Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko domeketan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikus I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

Esaiguzu, gau-zain orrek :  
zer ikusten dozu gabean?  
Iñoiz be lo egiten ez dauan Jainkoak  
lo egiten ez dagiana billatzen dau,  
eta amar nesken artean  
bost soillik dagoz iratzarririk.

Iru aldiz ukatu ebanak  
beste irutan autortu dau :

Pedro'k bildurrez ukatu ebana  
gero negarrez iragarri eban.

Ilda eroan eben  
illobi barrira.  
Iñoiz be ez eban euki  
lurrak eguzkia ain barruan.

Zeru barriak eta lur barria  
ikusit nebazan.  
Kristo, bizien artean,  
eta eriotza, ilda.

#### SALMUTEGIA

#### 1º ANTIFONA

Jesukristo, danaren eta guztien Jauna.

SALMUA : 109, 1-5. 7

*Mesias, Errege ta Abade.*

*Mesias'ek errege izan bear dau, bere arerio guztiak bere oiñazpian ipiñi arte (Ko 1ª, 15, 25).*

Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan :  
"Jesarri zaitex nire eskumaldean,

eta zure arerio guztiak  
zeure oiñazpiko egingo dodaz".

Sion' dik zabalduko dau Jaunak †  
zure aginpide-makillearen indarra : \*  
azpiratu egizuz gudaketan zure arerioak.

“Andikia zara jaiotegunetik,  
dirdira santuen artean;

neuk sortu zendudazan, iruntza lez,  
egunsentia baiño leen”.

Jaunak zin egin dau eta ez da garbatzen: †  
“Beti-betiko zara zu abade, \*  
Melkisedek’*en* arauz”.

Jauna zeure eskumaldean, bere asarre-egunean:  
ausi egingo dauz erregeak.

Bidean doala, errekan edango dau ura;  
orrexegaitik jasoko dau burua.

ANT. Jesukristo, danaren eta guztien Jauna.

## 2<sup>o</sup> GARREN ANTIFONA

Zorionekoak zintzoak izateko gose-egarri diranak,  
aseak izango dira-ta.

SALMUA: 111

*Zintzoaren zoriona.*

*Ibili zaitetze argiaren seme lez: on eta zuzen eta egia dan guztia, argiaren fruitua da (Ef 5, 8-9).*

Zorionekoa Jaunaren bildur dana  
eta Aren aginduak biotzez maite dauzana!

Aaltsua izango da lurrean aren jatorrikoa,  
zintzoaren ondorengoak bedeinkatuak izango dira.

Aberastasanak eta ondasunak izango dira aren  
etxean,  
aren goi-maitasuna beti bat, iraunkor.

Zintzoa, biotz-bigun eta errukior danak  
argiak lez egiten dau dizdiz.

Zorionekoa errukitu ta emon egiten dauana,  
eta bere arazoak artez eroaten dauzana!

Zintzoa ez da inoiz be alboraka ibilliko,  
aren gomutapenak beti iraungo dau.

Barri txarrai ez dautse bildurrik izango,  
aren biotza sendo dago Jaunagan.

Nasai dauko biotza, bildur bagarik,  
bere arerioak ondatuta ikusi arte.

Beartsuai limosnea egiten dautse, †  
aren maitasuna beti bat, iraunkor, \*  
eta ospez jasoten dau aurpegia.

Ori ikustean, gaiztoa sumindu egingo da, †  
agin-karraska asiko da, igartu arte. \*  
Gaiztoaren lar-gureak uts egingo dau.

ANT. Zorionekoak zintzoak izateko gose-egarri  
diranak, aseak izango dira-ta.



3<sup>o</sup>GARREN ANTIFONA

Goratu egizue Jauna, Beronen morroi guztiok,  
txiki ta andi, aleluia.

ABESTIA. Cf. Ag 19, 1-7)

*Bildotsaren ezteguak.*

Aleluia.

Salbamina ta aintza ta aal-izatea geure Jaungoi-  
koarenak dira,  
Aren epaiak egiazkoak eta zuzenak dira-ta.

E. Aleluia.

Aleluia.

Goratu egizue Jauna, Beronen morroi guztiok,  
Beroni bildu dautsazuenok, txiki ta andi.

E. Aleluia.

Aleluia.

Jauna, gure Jainkoa, danaren Jabea, errege da-  
ta,  
poztu ta alaitu gaitezán, eta eskerrak emon  
daioguzan.

E. Aleluia.

Aleluia.

Eldu da Bildotsaren eztegua,  
Beronen emaztea apaindu egin da.

E. Aleluia.

ANT. Goratu egizue Jauna, Beronen morroi  
guztiok, txiki ta andi.

---

Garizumako domeketan, San Joan'en Agerpene-  
ko abestiaren ordeaz, San Pedro'ren Idazkiko abes-  
tia esaten da.

ANT. Kristo geure pekatuakaitik il da eta geure  
zindokuntzarako biztu.

ABESTIA. Cf. P 1<sup>a</sup>, 2, 21b-24

*Kristo'k, Jaungoikoaren morroiak, bere gogoz  
artu eban nekaldia.*

Kristo'k gugaitik nekeak eroan ebazan,  
Bere lorratzai jarraitzeko eredia izten eus-  
kula.

Ez eban pekatuak egin,  
eta Aren agoan ez zan iruzurrik aurkitu;

iraindua izanik,  
ez eban iraiñaz erantzuten;

oiñazetua izanik zemaika asi bagarik, †  
ebazle zuzenaren eskuetan \*  
izten eban bere auzia.

Berak eroan ebazan bere gorputzean \*  
gure pekatuak egur-gaiñean :

gu, pekatuentzat ilda, †  
zuzentasunarentzat bizi gaitzean. \*  
Aren zaurien bidez izan gara osatuak.

ANT. Kristo geure pekatuakaitik il da eta geure zindokuntzarako biztu.

#### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko domeketan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna eta eskariak, aldi orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Osterantzeko domeketan, auxe esaten da:

Zuek Sion-mendira urreratu zaree, Jaungoiko biziaren urira, zeruko Jerusalem'era, ezin zenbatu-ala aingeruakana, batzar alaitsura, zeruetan idatzitako leensemeen elizara, guztien ebazle dan Jaungoikoagana, guztiz santu egindako espirituakana, Alkartasun Barriko bitarteko dan Jesus'egana.

#### ITAUN-ERANTZUNA

- B. Gure Jauna andia ta aaltsua da.  
E. Gure Jauna andia ta aaltsua da.  
B. Aren jakituriak ez dauko negurririk.  
E. Andia ta aaltsua da.  
B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
E. Gure Jauna andia ta aaltsua da.

EBANJELIOKO ABESTIA (Magnificat)

ANT. Egizu gugan, Jauna, egintza andiak; izan be, Zu aaltsua zara eta zure izena santua da.

ABESTIA. Lk 1 46-55

Nire izate guztiak Jauna goratzen dau. \*  
Nire biotza pozez beterik dago †  
nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,

bere begiak neugan jarri dauzalako,  
Aren mirabe apala naz-ta.

Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango dauste: †  
guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan  
Arek, \*  
nire alde arrigarriak egin dauz-ta.

Arek beti izango dautse errukia  
Bera goratzen dabena.

Bere besoaren indarraz  
arroen asmoak ondatu egiten dauz.

Andikia aulkitik lurrera bota  
eta apala gora jasoten dau.

Gose diranak ondasunez bete  
eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Bere morroiari, Israel erriari, †  
laguntza ekartera dator, \*  
bere errukia gogoan izanik,

gure aurretikoai †

—Abrahan'i ta onen ondorengo guztiai— \*  
egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren  
arauz.

Aintza Aitari...

ANT. Egizuz guban, Jauna, egintza andiak; izan  
be, Zu aaltsua zara eta zure izena santua  
da.

ESKARIAK

Doai guztiak datorkiguzan Jaunagan poztuten ga-  
rala, esan daiogun biotzez :

*Entzun, Jauna, gure otoitza.*

Guztien Aita eta Jauna : munduari zeure Semea  
bialdu zeutsan, eguzkia urteten dan tokitik  
sartzeraiño zeure izena goratua izan zeiten :  
—sendotu egizu zure Elizearen autorpena errien  
artean.

Apostoluen iragartearen esaneko egin gagizuz,  
—baita gure fedearen egiaren erarakoa be.

Zuzentasuna maite dozun Jaun orrek,  
—egiezu zuzenbidea zapalduai.

Askatu egizuz katiguak, edegi begiak itsuari,  
—zuzendu makurtua, gorde erromesa.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

Egizu, bakearen lotan dagozanak,  
—zure Semearen bitartez, biztuera santura eldu  
daitezala.

DOMEKAKO OTOITZA

Geure artean eta Jesukristo'gaz bat eginda,  
eta alkar-arteko utsegiñak parkatzeko beti gertu  
gagozala, egin daiogun Aitari uste oneko gure es-  
karia : Gure Aita...

AMAIERA

OTOITZA

Eldu bedi zure belarrietara, Jauna,  
zure Elizearen eskari sutsua :  
gure pekatuen parkamena lortuta,  
zure laguntzaz  
zeure serbitzaritzan jardun aal dagigun  
eta zure babespean  
uste onez bizi gaitezan.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

*E. Amen.*

*B. Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gazigala.*

*E. Amen.*

# ASTELEENA

## BEZPERAK

SARRERA

ASIERARAKO DEIA

- B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.  
*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko astegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko astegunetan, auxe esaten da:

TALDEAK : Illuntzeko ordua,  
lanen amaia.  
Ordaindu egizuz, soloen jabe Orrek,  
nekazarien lanak.

Eguna argitzean,  
dei egin zeuskun.  
Egunsentitik illuntzerarte  
zaindu genduan zure soloa.

151

*Asteleena*

Orain guri ordaintzean,  
utsean emoten dauskuzu :  
lan guztiak txiki  
zerua jaristeko.

TALDEAK : Illuntzeko ordua,  
lanen amaia.  
Ordaindu egizuz, soloen jabe Orrek,  
nekazarien lanak.

Illuntzeko langilleari  
goizekoari lez emoten dautsazu.  
Zeureak dira orduak,  
zeureak soloak.  
Emoiozu gorakoa  
ereiten dogunari.  
Zaindu egizuz solo-ariak  
solo zaran Orrek.

TALDEAK : Illuntzeko ordua,  
lanen amaia.  
Ordaindu egizuz, soloen jabe Orrek,  
nekazarien lanak.

SALMUTEGIA

1° ANTIFONA

Kristo'gan dagoana, izaki barri da, aleluia.

SALMUA : 135

PAZKO-GORAPEN-ABESTIA

*Jaungoikoa goratzea, Beronen miragarriak  
azaltzea da (KASIANO).*



Emoiozuezk eskerrak Jaunari, ona da-ta,  
Aren errukia betikoa da-ta.

Emoiozuezk eskerrak jainkoen Jainkoari :  
Aren errukia betikoa da-ta.

Emoiozuezk eskerrak jaunen Jaunari :  
Aren errukia betikoa da-ta.

Berak bakarrik egin ebazan mirari andiak :  
Aren errukia betikoa da-ta.

Berak egin ebazan jakituriz zeruak :  
Aren errukia betikoa da-ta.

Berak sendotu ebazan urak lur-gaiñcan :  
Aren errukia betikoa da-ta.

Berak egin ebazan argidun andiak :  
Aren errukia betikoa da-ta.

Eguna zaintzen dauan eguzkia :  
Aren errukia betikoa da-ta.

Gaba zaintzen dauan illargia :  
Aren errukia betikoa da-ta.

ANT. Emoiozuezk eskerrak Jaunari, Beronen  
errukia betikoa da-ta.

## 2'GARREN ANTIFONA

Zorionekoak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko  
dabe-ta.

SALMUA : 14

*Nor da zuzena Jaunaren aurrean?*  
*Sion-mendira urreratu zaree, Jainko bi-*  
*ziaren urira (Ebr 12, 22).*

Jauna, nor egongo da ostatuz zure txabolan?  
Nor bizi izango da zure mendi santuan?

Orban bagarik bizi dana  
eta zuzentasuna egiten dauana,

asmo zintzoak daukazana  
eta bere miiñaz guzur-baltzik ez diñoana;

bere lagun-urkoari kalterik egiten ez dautsana,  
baita auzokoa lotsagarri izten ez dauana be;

gaiztoa gutxitzat artzen dauana  
eta Jaunaren bildur diranak aintzat artzen  
dauzana;

bere buruaren aurka zin eginda be,  
bere ziñari eusten dautsana;

dirua irabazitan emoten ez dauana  
eta errubagearen aurka eskupekorik artzen ez  
dauana.

ANT. Zorionekoak biotz-garbiak, Jaungoikoa  
ikusiko dabe-ta.

## 3'GARREN ANTIFONA

Kristo'ren bitartez bere seme izateko aukeratu  
gaitu Jaungoikoak.

ABESTIA. Ef 1, 3-10

*Salbameneko Jainko-asmoa.*

Bedeinkatua izan dadilla

Jesukristo gure Jaunaren Jaungoiko ta Aita,

guztietariko espiritu-bedeinkapenez

Kristo'gan zerutik bedeinkatu gaituana.

Mundua egin baiño leen,

Berak aukeratu genduzan Kristo'gan,

Aren aurrean, maitasunean,

santu ta errubage izan gaitzezan.

Berak aukeratu genduzan aurretiaz Jesukristo'-  
ren bitartez,

gu bere semetzakotzat artzeko,

bere naiaren gogoz,

bere grazi goragarriaren aintzarako.

Orregaitik, atsegingarri egin genduzan

bere Seme maiteagan.

Onegantxe dogu erospena

beronen odolaren bitartez,

baita pekatuen parkamena be,

Jaungoikoaren graziaren aberastasunaz.

Grazi au eurrez isuri dausku,

jakituri ta zuurtasun osoz.

Oncin bidez, bere naimenaren Ezkutapena  
ezaguerazo dausku, bere asmoaren eraz.

Asmo ori, barriz, erabagitako aldiak beteta, †  
zeruan eta lurrean diran gauza guztiak \*

Kristo'gan alkartzea zan.

ANT. Kristo'ren bitartez bere seme izateko au-  
keratu gaitu Jaungoikoak.

#### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko  
astegunetan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna,  
Ebanjelioko abestiaren antifona eta eskariak, aldi  
orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Oste-  
rantzeko astegunetan, auxe esaten da:

#### IRAKURGAI LABURRA. Kol 1, 9b-11

Jaungoikoaren naia oso-osorik ezagutu egizue,  
goi-jakitez eta senez bete-betea argituak izan  
zaitezen. Orrela, Jaunari zor yakon bizikerea  
eroango dozue eta danetan atsegin izango dautsa-  
zue, edozein egintza onaren frutuak emonik eta  
Jaungoikoaren ezagueran aurreraturik. Aren aal-  
izate ospatsuak guztiz indartuta, gauza guztietan  
pozez beterik eroapenari ta adoreari ekin aal  
izango dautsezue.

#### ITAUN-ERANTZUNA

B. Osatu nagizu, Jauna, zure aurka pekatu  
egin dot-eta.

E. Osatu nagizu, Jauna, zure aurka pekatu  
egin dot-eta.

- B. Auxe esan neban nik : Erruki, Jauna.  
 E. Zure aurka pekatu egin dot-eta.  
 B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
 E. Osatu nagizu, Jauna, zure aurka pekatu egin dot-eta.

## EBANJELIOKO ABESTIA (Magnificat)

ANT. Nire izate guztiak Jaunaren andi-izatea iragarten dau, Jaungoikoak neure apaltasuna begiratu dau-ta.

## ABESTIA. Lk 1, 46-55

Nire izate guztiak Jauna goratzen dau. \*  
 Nire biotza pozez beterik dago †  
 nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,

bere begiak neugan jarri dauzalako,  
 Aren mirabe apala naz-ta.

Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango dauste : †  
 guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan Arek, \*  
 nire alde arrigarriak egin dauz-ta.

Arek beti izango dautse errukia  
 Bera goratzen dabenai.

Bere besoaren indarraz  
 arroen asmoak ondatu egiten dauz.

Andikia aulkitik lurrera bota  
 eta apala gora jasoten dau.

Gose diranak ondasunez bete  
 eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Bere morroiari, Israel erriari, †  
 laguntza ekartera dator, \*  
 bere errukia gogoan izanik,

gure aurretikoai †

—Abrahan'i ta onen ondorengo guztiai— \*  
 egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren arauz.

Aintza Aitari...

ANT. Nire izate guztiak Jaunaren andi-izatea iragarten dau, Jaungoikoak neure apaltasuna begiratu dau-ta.

## ESKARIAK

Emon daioguzan eskerrak Jaungoiko gure Aitari, beti bere alkartasun santua gogoan izanik, eten bagarik bedeinkatzen gaitu-ta ; esan daio-gun uste onez :

*Zure erria biotz onez erabilli egizu, Jauna.*

Onik atara egizu zure erria, Jauna,  
 —eta bedeinkatu egizu zure soloa.

Batasunean batu egizuz kristau guztiak,  
 —munduak zeure bialdua dan Kristo'gan sinistu dagian.

Isuri egizu zure grazia gure senide ta adiskideen gaiñera :

—euren egiazko zoriona Zeugan aurkitu dagiela, Jauna.

Erakutsi egiezu zure maitasuna il-zorian dago-  
zanai :

—ikus! aal dagiela, Jauna, zure salbamena.

Beste asmo batzuk be agertu daitezkez gaiñera.

Erruki zakiez il diranai

—eta artu egizuz Kristo'ren atsedenean.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Amaitu dagigun gure otoitza Jaunak irakatsu  
euskuzan berbakaz : Gure Aita...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Gure serbitzaritza apalak, Jauna,  
zeure andi-izatea iragarri dagiela ;  
eta, gu salbatzarren,  
Maria Birjiñaren apaltasuna begiratu zenduan  
ezkeru,  
gora jaso gagizuzala eskatzen dautsugu,  
gu salbamenaren osotasunera eroanik.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

*E.* Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.

## MARTITZENA

### BEZPERAK

#### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

*B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.

*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
tuari.

Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldie-  
tan. Amen. (Aleluia).

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko  
astegunetan, gorapen-abetia aldi orreitakoa artzen  
da (ikus! I Geigarria). Osterantzeko astegunetan,  
auxe esaten da:

Nor da orain datorren au,  
arrats-beera onetan,  
odolez estalduta  
maats-mordoak zapaltzen dauzan  
gizonezkoa lez?

TALDEAK : Au, Kristo da, Jauna,  
eriotzara deitua,  
biztueran goratua.



Nor da, aintzatsu ta zaurituta  
barrero datorren au?  
Bere eriotzaren truk,  
bakea erosi  
eta katiguak askatu egin dauzan au?

TALDEAK : Au, Kristo da, Jauna,  
eriotzara deitua,  
biztueran goratua.

Illakaz artu eban loak  
eta bizien artean da errege;  
illobiak ez eban azpiratu,  
bere Aukeratuari Jaunak  
eutsi egin eutsan-eta.

TALDEAK : Au, Kristo da, Jauna,  
eriotzara deitua,  
biztueran goratua.

## SALMUTEGIA

## 1° ANTIFONA

Jaungoikoaren eta diruaren morroi ezin izan zai-  
tekeze batera.

SALMUA : 48

*Aberastasunen uskeria.*

*Nekez sartuko dira aberatsak Jaungoikoa-  
ren erreñuan (Mt 19, 23).*

Entzun au, erri guztiok;  
aditu au, lurreko bizilagun guztiok :

bee-maillako ta andikiok,  
aberatsok eta beartsuok;  
nire agoak jakintsu egingo dau berba,  
eta zuurtasunez esango dodaz nire burubideak;  
adi-adi entzungo dot esakunea  
eta nire asmakizuna zitara-otsez agertuko dot.

Zegaitik izan bildur egun baltzai,  
gaiztoak inguratu ta zirikatu nagienean?

Euren ondasunetan jarten dabe ustea  
eta euren aberastasun andietan arrotzen dira.  
izan be, areitariko bat be ezin onik urten dai-  
teke,  
batek be ezin emon daikeo bere ordaiñik Jain-  
koari.

Biziaren erospena oso baliotsua dan ezkerok, †  
ez dabe naikoa izango betiko bizi izateko, \*  
illobira jatsi bagarik.

Begira : jakitunak il egiten dira, †  
zoroak eta zuzenbageak galtzen diranez, \*  
eta euren ondasunak beste batzuei izten dau-  
tsez.

Illobiak dira arein bizitokiak betiko, †  
baita arein etxeak be gizaldiz-gizaldi, \*  
lurraldeai euren izena emon ba'dautsee be.

Gizonak ez dau bere ondasunetan irauten,  
abereak lez ilten da, ostera.

ANT. Jaungoikoaren eta diruaren morroi ezin  
izan zaittekeze batera.

## 2'GARREN ANTIFONA

Ume lez izatera biurtzen ez ba'zaree, ez zaree  
zeruetako Erreñuan sartuko.

SALMUA: 130

*Ume bat lez, Israel Jaungoikoaren besoetan etzun  
zan.*

*Ikasi egizue nigandik, biotzez laua ta apa-  
la naz-ta (Mt 11, 29).*

Nire biotz au ez da andizalea,  
ezta nire begiak arroak be;

ez nabil andikerien atzetik,  
ni baiño gorago dagozanenetik;

nire gurariak isillerazo ta arindu egiten dodaz, \*  
umetxoa amaren besoetan lez.

Izan begi ustea Jaunagan Israel'ek  
orain eta beti.

ANT. Ume lez izatera biurtzen ez ba'zaree, ez  
zaree zeruetako Erreñuan sartuko.

## 3'GARREN ANTIFONA

Gure Jaungoikoarentzat abade-erreñu egin gai-  
tuzu, Jauna.

ABESTIA. Ag 4, 11; 5, 9.10.12

*Erosien gorapen-abestia*

Aintza, dedu ta agintaritza artzeko gai  
ba-zara Zu, gure Jainko Jaun ori!

Gauza guztiak Zeuk egin zenduzan,  
zeure nai-izatez dira ta izan ziran egiñak-eta.

Liburua artzeko ta aren ezaugarriak askatzeko  
gai zara,  
illa izan zintzazan ezkeru,

eta jatorri, izkera, enda ta erri guztitik  
zeure odolaz erosi zenduzan Jaungoikoaren-  
tzat;

gure Jainkoarentzat errege ta abade egin dozuz,  
eta lurrean erregetza dauke.

Indarra, aberastasuna, jakituria, aal-izatea, de-  
dua, †  
aintza ta gorapena artzeko gai da \*  
illa izan dan Bildotsa.

ANT. Gure Jaungoikoarentzat abade-erreñu  
egin gaituzu, Jauna.

## JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko as-  
tegunetan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna,  
Ebanjelioko abestiaren antifona eta eskariak, aldi  
orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Oste-  
rantzeko astegunetan, auxe esaten da:

## IRAKURGAI LABURRA. Erm 12, 9-12

Zuen maitasuna zintzoa izan dadilla. Iguindu gaiztakeria, eta onzaleak izan zaitez; anai-arteke maitasunez maite egizue alkar, alkarri leenengo tokia emonez. Nagikeri bagarik, ardurasu izan zaitez, gogo beroz Jaunaren menpean, geroko itxaropenaren pozez; atsekabea ondo eroan, ekin otoitzari.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Zure itza, Jauna, betikoa da, zerua baiño iraunkorragoa.  
 E. Zure itza, Jauna, betikoa da, zerua baiño iraunkorragoa.  
 B. Zure zintzotasuna gizaldiz-gizaldi.  
 E. Zerua baiño iraunkorragoa  
 B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
 E. Zure itza, Jauna, betikoa da, zerua baiño iraunkorragoa.

## EBANJELIOKO ABESTIA (Magnificat)

ANT. Nire biotza pozez beterik dago nire Salbatzaille dan Jaungoikoagaitik.

## ABESTIA. Lk 1 46-55

Nire izate guztiak Jauna goratzen dau. \*  
 Nire biotza pozez beterik dago †  
 nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,

bere begiak neugan jarri dauzalako,  
 Aren mirabe apala naz-ta.

Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango dauste: †  
 guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan  
 Arek, \*  
 nire alde arrigarriak egin dauz-ta.

Arek beti izango dautse errukia  
 Bera goratzen dabenai.

Bere besoaren indarraz  
 arroen asmoak ondatu egiten dauz.

Andikia aulkitik hurrera bota  
 eta apala gora jasoten dau.

Gose diranak ondasunez bete  
 eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Bere morroiari, Israel erriari, †  
 laguntza ekartera dator, \*  
 bere errukia gogoan izanik,

gure aurretikoai †

—Abraham'i ta onen ondorengo guztiai— \*  
 egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren  
 arauz.

Aintza Aitari...

ANT. Nire biotza pozez beterik dago nire Salbatzaille dan Jaungoikoagaitik.

## ESKARIAK

Dei egin daiogun bere erriaren itxaropena dan Jaungoikoari :

*Zeu zara zure erriaren itxaropena, Jauna.*

Eskerrak emoten dautsuguz, Jauna, Kristo zure Semearen bitartez, aberastu egin garalako —edozetariko berba ta ezagueran.

Zeure eskuetan dagoz, Jauna, agintarien biotza ta adiemana :

—emon egiezu, ba, zuurtasuna euren erabagietan, euren pentzakeran eta egikeran atsegin-garri izan dakizuzan.

Zeuk emoten dautsezu goi-argia ertilariai, Zeugandik datorren edertasuna eratzeko :

—egizu, euren lanakaz gizonen poza ta itxaropena geitu daitela.

Zeu zara gure indarrez gaineko tentaldirik guk izatea izten ez dozuna :

—emon egiezu sendotasuna makalai, jaso egizuz jausitakoak.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gainera.

Zeuk agindu dauskuzu biztuerea azken-egunean :

—ez bekizuz betiko aaztu euren gorputz ilkorretik erantziak izan diranak.

## DOMEKAKO OTOITZA

Etxe bereko anai-arreba lez bat eginda, dei egin daiogun guztion Aitari : Gure Aita...

## AMAIERA

## OTOITZA

Eldu dadilla zure belarrietara, Jauna, zure Elizearen eskari sutsua :  
gure pekatuen parkamena lortuta,  
zure laguntzaz zeure serbitzaritzan jardun aal dagigun  
eta zure babespean uste onez bizi gaitzean.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

*E.* Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gazigala.

*E.* Amen.





# EGUASTENA

## BEZPERAK

### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

- B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.  
*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko astegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko astegunetan, auxe esaten da:

**TALDEAK :** Auxe da Jaunaren eguna.  
Auxe da erruki-aldia.

Onzkerok ez gara lotsatuko  
zure begien aurrean  
zure erriaren  
antxiñako pekatuagaitik.  
Zusterretik atarako dozu biotz arroa,  
eta erri apala egingo dozu,  
giotz garbikoa.

**TALDEAK :** Auxe da Jaunaren eguna.  
Auxe da erruki-aldia.

Errien artean,  
ondakin lez gordeten gaituzu,  
zeure egintzak abesteko  
eta zeure Erreiñua aurreragotzeko.  
Erri barri izango gara  
zeru barrietarako :  
abade-jatorri  
zeure Seme bakarraren eraz.

**TALDEAK :** Auxe da Jaunaren eguna.  
Auxe da erruki-aldia.

Zapaltzailleak jausi  
eta morroiak poztu egingo dira ;  
lotsabide-semeak  
zeure oiñordeko izango dira.  
Orduan, euren ogia  
basamortuan jaten ebenentzat,  
biurtze-eguna  
izentatuko dozu.

**TALDEAK :** Auxe da Jaunaren eguna.  
Auxe da erruki-aldia.

Poztu bedi nire barrua !  
Alaitu beite nire erria !  
Jaunak, zuzena dan ezkerok,  
bartzartu egin dauz bere crabagiak.  
Ondapenaren ordez,  
salbamera iragarten yaku :  
Jauna bere erriaren artean  
hizi da-ta.

## SALMUTEGIA

## 1° ANTIFONA

Jauna, zure jakituria nire gaiñetik dago.

SALMUA : 138, 1-18. 23-24

*Jaungoikoa toki guztietan dago eta Arek dana ikusten dau.*

*Nok ezagutu dau Jaunaren asmoa?*

*Nor izan da Aren onulari? (Erm 11, 34).*

Zeuk aztertzen eta ezagutzen nozu, Jauna;  
ba-dakizu noiz jesarten eta zutuntzen nazan,

urrundik ulertzen dozuz nire bururapenak; †  
ezagutzen dozuz nire bidea ta atsedena, \*  
nire bide guztiak ezagunak dozuz.

Nire itza miñnera eldu baiño leen,  
ba-dakizu Zuk, Jauna.

Atze ta aurre estutzen nozu,  
zeure eskuaz estaltzen nozu.

Orrelako jakintza arrigarri yat;  
garaitsu da, eta ezin dot buruz artu.

Nora joango naz zure asarretik urrun?  
nora iges egin zure begirakunetik?

Zerura igoten ba'naz, antxe zagoz Zu;  
Iurpean etzuten ba'naz, antxe aurkitzen zaitut;

egunsentiaren ertzeraiño egaz egiten ba'dot,  
bizi izatera itsas-ertzeraiño joaten ba-naz,

antxe artuko nau zure ezkerak,  
antxe oratuko daust zure eskumeak.

“Illunak, beiñepein, estaldu nagiala,  
nire inguruan argia gau biurtu daitela” esaten  
ba'dot,

illuna be ez da zuretzat illun,  
eta gaba eguna baizen argitsua da.

ANT. Jauna, zure jakituria nire gaiñetik dago.

## 2° GARREN ANTIFONA

Il, naiz bizi, Jaunarenak gara, aleluia.

SALMUA : 126

*Giza-aalegiña alperrekoa da Jaungoikoa bagarik.*  
*Jaungoikoaren etxe zaree (Ko 1ª, 3, 9).*

Etxea Jaunak egiten ez ba'dau,  
alperrik nekatzen dira etxegilleak;

uria Jaunak zaintzen ez ba'dau,  
uri-zaiñak alperrik dagoz zuur.

Alperrik dozue goiz jagitea, †  
lotara berandu joatea, \*  
zuen izerdien ogia jatea :

Jainkoak emoten dautse bere adiskideai,  
oneik lo dagozan artean !

Semeak dira Jaunak emoten dauan oiñordetza :  
bere lan-saria, sabeleko frutua :

gudariaren eskuan geziak lez dira  
gaztaroko semeak.

Zoriontsua, gezi-ontzia arekaz beteten dauana! : †  
ez dau galduko uriko atean \*  
bere arerioagaz auzia egin dagianean.

ANT. II, naiz bizi, Jaunarenak gara, aleluia.

### 3'GARREN ANTIFONA

Bera da izaki guztien leen-semea, danetan leen-  
nen dana.

ABESTIA. Kol 1, 12-20

*Kristo'ri gorapen-abestia, izaki guztien leen-se-  
me ta illen artetik leenen biztu danari.*

Eskerrak emoten dautsaguz Jaungoiko Aitari, †  
argi-erreinuan santuen oiñorde-lagun \*  
izateko gai egin gaitualako,

eta, illunpeetako menpetik atarata,  
bere Seme kutunaren erreinura aldatu gaitua-  
lako.

Seme onegan dogu erospena,  
baita pekatuen parkamena be.

Jesukristo da begiak †  
ezin ikusi daikegun Jaungoikoaren irudia, \*  
egindako guztien leen-semea :

zeruko ta lurreko gauza guztiak, †  
ikusgarri ta ezin ikusi diranak, \*  
guztiak Aregan egiñak izan dira-ta :

Aulki, Jaun, Nagusi ta Agintedunak ;  
dana Berak eta Beretzat egiña da.

Diranak baiño leenago da,  
eta diranak Aregan dagoz.

Bera da Elizearen gorputzaren buru ; †  
Bera da asiera, illen artetiko leen-semea, \*  
gauza guztietan leenen izateko.

Jaungoiko Aitak nai izan eban  
dana Semeagan batuta egotea :

Onen bidez, Beronen gurutzeko odolaz bakeak  
egiñik, †  
gauza guztiak, lurrekoak lez zerukoak be, \*  
Beragaz adiskidetzeko.

ANT. Bera da izaki guztien leen-semea, dane-  
tan leenen dana.

### JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko  
astegunetan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna,  
Ebanjelioko abestiaren antifona eta eskariak, aldi  
orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Oste-  
rantzeko astegunetan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Ef 3, 20-21

Guk eskatu naiz asmatu daikegun baiño askoz  
be negurri obeaz gudan egiteko indarra daukan

Ari, Berari aintza Elizan eta Jesukristo'gan belaunik-belaun, gizaldiz-gizaldi. Amen.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B.* Onik atara nagizu, Jauna, eta erruki zakidaz.  
*E.* Onik atara nagizu, Jauna, eta erruki zakidaz.  
*B.* Ez egidazu kendu bizia pekatariakaz.  
*E.* Erruki zakidaz.  
*B.* Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
*E.* Onik atara nagizu, Jauna, eta erruki zakidaz.

## EBANJELIOKO ABESTIA (Magnificat)

ANT. Egizuz arrigarriak, Jauna, zure besoaz; sakabanatu egizuz biotz-arroak eta jaso gora apalak.

## ABESTIA. Lk 1, 46-55

Nire izate guztiak Jauna goratzen dau. \*  
 Nire biotza pozez beterik dago †  
 nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,

bere begiak neugan jarri dauzalako,  
 Aren mirabe apala naz-ta.

Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango dauste: †  
 guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan  
 Arek, \*  
 nire alde arrigarriak egin dauz-ta.

Arek beti izango dautse errukia  
 Bera goratzen dabenai.

Bere besoaren indarraz  
 arroen asmoak ondatu egiten dauz.

Andikia aulkitik lurrera bota  
 eta apala gora jasoten dau.

Gose diranak ondasunez bete  
 eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Bere morroiari, Israel erriari, †  
 laguntza ekartera dator, \*  
 bere errukia gogoan izanik,

gure aurretikoai †

—Abrahan'i ta onen ondorengo guztiai— \*  
 egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren  
 arauz.

Aintza Aitari...

ANT. Egizuz arrigarriak, Jauna, zure besoaz; sakabanatu egizuz biotz-arroak eta jaso gora apalak.

## ESKARIAK

Goratu dagigun pozik zeruko Aita, beronen erriaganako biotz ona zeruak baiño andiagoda; esan daiogun:

*Poztu bediz Zeugan itxaroten daben guztiak, Jauna.*



Izan egizu gogoan, Jauna, ez zenduala zure Semea mundua galtzera bialdu, salbatzera baiño;

—egizu, Aren eriotza goragarriak salbamena ekarri daiskula.

Zeuk egin zenduzan zure abadeak Kristo'ren morroi eta zure misterioen banatzaille:

—emon egiezu biotz zintzoa, jakintza ta maitasuna.

Egizu, zeruetako erreinuagaitik kastitate osora dei egin dautsezuzanak

—zure Semeari zintzoro jaraitu dagioela.

Zeuk egin zenduzan asierarik gizona ta emakumea:

—gorde egizuz sendi (famili) guztiak egiazko maitasunean bat eginda.

Zeuk bialdu zenduan Jesukristo mundura pekatariak salbatzeko:

—emoiezu ildako guztiai euron obenen parkamena.

Beste asmo batzuk be agertu daitezkez gaiñera.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Espiritu Santuak eraginda eta beronen maitasunez beterik, zuzendu daiogun zeruko Aitari gure otoitza: Gure Aita...


#### OTOITZA

Gogoan izan, Jauna, zure errukia, eta, gose diranak ondasunez beteten dozuzan ezkerro, ekarri egiezu laguntza gure bearrizanaiz zure aberastasumen ugaritasunaz. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

*E.* Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.



# EGUENA

## BEZPERAK

### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

- B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.  
*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
Leen lez orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko astegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko astegunetan, auxe esaten da:

Askatu egizuz, Jauna, nire begiak eriotzatik, emoiezu euren elburu dan argia.  
Nik, bideko itsua lez,  
mirari bat eskatzen dot, Zeu ikusteko.

Nire esku makalok  
tresna eragille egizuz;  
zekenkeria itzi dagiela  
eta neure anai-arreben onerako zabaldu daitetzala.

Ulertu dagidala, ene Jauna,  
naibagetuta atzerantz egiten dauana;  
ez dakidala biotza otzitu  
gaiñetikoen bearrizanen aurrean.

Gorde egizu nire fedea arerioagandik,  
biztu egidazu biotzean Zeuganako itxaropena.  
Basamortua ezagutzen dozun Orrek,  
emoidazu zure eskua eta zatoz nigaz.

### SALMUTEGIA

#### 1° ANTIFONA

ANT. Ene Jainko Jauna, Zeuri egin neutsun  
deadar eta Zuk onik atara nenduzun;  
eskerrak emongo dautsudaz beti.

#### SALMUA: 29

*Eskerrak emotea eriotz-arriskuan egoan geiso  
bat osatzeagaitik.  
Kristo'k bere biztuera goragarriaren os-  
tean, eskerrak emoten dautsaz Aitari (KA-  
SIANO).*

Goratu egingo zaitut, Jauna,  
onik atara nozu-ta;

ez dautsezu itzi nire arerioai  
nire lepotik barre egiten.

Ene Jainko Jauna, zeuri egin neutsun deadar,  
eta Zuk osatu egin nenduzun.

Jauna, zeuk atara zenduan nire arimea lezatic, †  
 illobira jatsiten nintzala \*  
 biztu egin nenduzun barriro.

Jo soiñua Jaunarentzat, Beronen zintzook,  
 emon eskerrak Aren izen santuari;

Aren asarrea une batekoa da,  
 eta Aren ontasuna bizi guztikoa;

arratsaldean negarra datorkigu,  
 goizean, poza.

Auxe esaten neban nasai-nasai:  
 "Iñoiz be ez dot ikararik egingo".

Zure ontasunak, Jauna,  
 dedua ta indarra emoten eustazan;

baiña, zure aurpegia gorde,  
 eta larrituta geratu nintzan.

Zeuri egin neutzun dei, Jauna,  
 neure Jainkoari egin neutsan erregu:

"Zer irabazten dozu nire eriotzaz,  
 ni illobira jatsiteaz?

Eskerrik emongo ete-dautsu autsak?,  
 iragarriko ete-dau zure zintzotasunik?

Entzun, Jauna, eta erruki zakidaz;  
 izan zakidaz laguntza, Jauna".

Nire negarra dantza biurtu zenduan, †  
 oil latza erantzi \*  
 eta jai-soiñekoak jantzi daustazuz;

nire arimeak isildu bagarik abestuko dautsu,  
 Jauna, ene Jainko, beti emongo dautsudaz es-  
 kerrak!

ANT. Ene Jainko Jauna, Zeuri egin neutsun  
 deadar eta Zuk onik atara nenduzun;  
 eskerrak emongo dautsudaz beti.

## 2'GARREN ANTIFONA

Jauna da nire aterpe ta askatzaille, aleluia.

## SALMUA: 143

*Erregaren otoitza guduko eragozpenen aurrean.*  
*Aren besoa trebetu egin zan burrukan,*  
*mundua azpiratu ebanean; ain zuzen be,*  
*auxe esan eban: "Neuk azpiratu dot mun-*  
*dua" (S. HILARIO).*

Bedeinkatua nire Arkaitz dan Jauna, \*  
 nire eskuok gudarako †  
 ta nire atzamarrok burrukarako gertatzen dau-  
 zana;

nire ongille, nire gaztelu,  
 nire bizia gordeten dodan igesleku,

nire aterpe ta gordeleku,  
 erriak menperatzen daustazan.

Jauna, zer da gizona Zu aretzaz arduratu zai-  
 tezan?;\*  
 zer dira Adan'en semeak †  
 Zuk areik buruan erabili dagizuzan?

Gizona arnasaldi baten antzekoa da,  
aren egunak, igesi doan gerizearen antzeko.

Jauna, makurtu egizu zure zerua ta jatsi zaitetz;  
ikutu egizuz mendiak, eta ketan asiko dira,

jo egizu oiñaztarria eta sakabanatu egizuz,  
jaurti zure geziak eta birrindu egizuz.

Luzatu egizu eskua goitik: \*  
gorde nagizu, atara nagizu ur andietatik, †  
atzerritarren eskutik:

arein agoa guzurra,  
eta arein eskumea guzurrezko ziña da-ta.

ANT. Jauna da nire aterpe ta askatzaille, ale-  
luia.

## 2<sup>o</sup> GARREN ANTIFONA

Gaur lez atzo be, berbera da Jesukristo, eta beti  
izango da berbera, aleluia.

ABESTIA. Ag 11, 17-18; 12, 10b-12a

### *Jaungoikoaren auzia.*

Eskerrak emoten dautsuguz, Jainko Jaun guz-  
tiaaldun,  
zaran eta izan zintzazan Ori,

zure aal-izate andia zeureganatu dozulako  
eta errege izaten asi zaralako.

Atzerritarrak asarre bizitan jarri ziran; \*

baña eldu da zure asarrea, †  
baita ildakoak ebazteko aldia be,

baita zure morroi diran profetai, santuai †  
ta zure izenaren bildur diran txiki ta andiai \*  
saria emoteko aldia be,

eta lurra ondatzen ebenak  
galtzeko aldia be bai.

Oraintxe dator osasuna ta indarra, \*  
gure Jaungoikoaren erregetza †  
eta Aren Kristo'ren aal-izatea:

gure Jaungoikoaren aurrean gure anaiak †  
gau ta egun salatzen ebazana, \*  
jaurtia izan da-ta.

Baiña areik, Bildotsaren odolaz  
eta eurak emon eben autorpenaz,

iransugea azpiratu egin eben, †  
euren bizitza bera be \*  
ez eben eriotza baiño maiteago izan-eta.

Poztu zaitetze, ba, zeruok  
eta berton bizi zareen guztiok!

ANT. Gaur lez atzo be, berbera da Jesukristo,  
eta beti izango da berbera, aleluia.

## JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko  
astegunetan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna,  
Ebanjelioko abestiaren antifona eta eskariak, aldi



orreitakoak artzen dira (ikus I Geigarria). Oserantzeko astegunetan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. Kol 1, 23

Iraun egizue sinismenean oiñarriak errime jarrita eta sendotuta, zuei ta zerupeko guztiai iragarritako Barri Onaren itxaropenetik zirkiñik egin bagarik egonik.

ITAUN-ERANTZUNA

- B. Jauna da nire artzain, ez dot ezeren bearrik.  
 E. Jauna da nire artzain, ez dot ezeren bearrik.  
 B. Zelai ezetan etzunerazoten nau.  
 E. Ez dot ezeren bearrik.  
 B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
 E. Jauna da nire artzain, ez dot ezeren bearrik.

EBANJELIOKO ABESTIA (Magnificat)

ANT. Zuzentasun-egarri diranak, Jaunak ase eta ondasunez beteten dauz.

ABESTIA. Lk 1, 46-55

Nire izate guztiak Jauna goratzen dau. \*

Nire biotza pozez beterik dago †  
 nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,

bere begiak neugan jarri dauzalako,  
 Aren mirabe apala naz-ta.

Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango dautete, †  
 guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan Arek, \*  
 nire alde arrigarriak egin dauz-ta.

Arek beti izango dautse errukia  
 Bera goratzen dabena.

Bere besoaren indarraz,  
 arroen asmoak ondatu egiten dauz.

Andikia aulkitik lurrera bota  
 eta apala gora jasoten dau.

Gose diranak ondasunez bete  
 eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Bere morroiari, Israel erriari, †  
 laguntza ekartera dator, \*  
 bere errukia gogoan izanik,

gure aurretikoai †

—Abrahan'i ta onen ondorengo guztiai— \*  
 egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren arauz.

Aintza Aitari...

ANT. Zuzentasun-egarri diranak, Jaunak ase eta ondasunez beteten dauz.

ESKARIAK

Dei egin daiogun Kristo Jaunari, munduaren argi eta izaki bizidun guztien poza danari, eta esan daiogun uste onez beterik:

*Emoiguzu, Jauna, osasuna ta bakea.*

Argi atzamatu-eziña eta Aitaren Itz betikoa, gizon guztiak salbatzera etorri zaran Ori :

—argitu egizuz Elizearen kristau-gaiak zure egia-  
ren argiaz.

Ez izan gogoan, Jauna, gure gaiztakeriak,

—Zeugandik dator parkamena-ta.

Gizonaren adimenak izadiko ezkutuak azterka-  
tzea nai izan dozun Jauna :

—egizu, jakintzak eta ertiak lagun egin dagitsela  
zure aintzari eta gizon guztien nasaitasunari.

Gorde egizuz, Jauna, munduan euren anai-arre-  
ben serbitzaritzan diarduenak :

—gogo nasaiz eta kikildu bagarik euren elbu-  
rua burutu aal dagien.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

Jauna, Zuk zabaltzen dozuna iñok be ezin itxi  
daike; argitu egizuz illunpeetan eta eriotz-ge-  
rizpean datzazan gure ildakoak, eta zabaldu  
egiezuz zure erreinuko atea.

#### DOMEKAKO OTOITZA

Guztiok anai-arreba garan ezkeru, Jaungoiko ba-  
karraren seme-alaba, uste onez eta bildur ba-  
garik esan dagigun : Gure Aita...

#### AMAIERA

#### OTOITZA

Jaungoiko guztiaalduna,  
eskerrak emoten dautsuguz egun au amaitzean  
eta zeure errukia eskatzen dogu,  
giza-makaltasunagaitik  
egun onetan egin doguzan erru guztiak  
biotz onez parkatu daiskuzuzan.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

*E.* Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.



# BARIKUA

## BEZPERAK

### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

- B. Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.  
E. Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

#### GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko astegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen da (ikusi I Gaigarria). Osterantzeko astegunetan, auxe esaten da:

TALDEAK : Esaiguzu, gau-zain orrek :  
zer ikusten dozu gabeen?

1. Iñoiz be lo egiten ez dauan Jainkoak lo egin ez dagiana billatzen dau, eta amar nesken artean bost soillik dagoz iratzarririk.

TALDEAK : Esaiguzu, gau-zain orrek :  
zer ikusten dozu gabeen?

2. Iru aldiz ukatu ebanak beste irutan autortu dau :  
Pedro'k bildurrez ukatu ebana gero negarrez iragarri eban.

TALDEAK : Esaiguzu, gau-zain orrek :  
zer ikusten dozu gabeen?

3. Ilda eroan eben illobi barrira.  
Iñoiz be ez eban euki lurrak eguzkia ain barruan.

TALDEAK : Esaiguzu, gau-zain orrek :  
zer ikusten dozu gabeen?

4. Zeru barriak eta lur barria ikusi nebazan.  
Kristo, bizien artean, eta eriotza ilda.

#### SALMUTEGIA

#### 1º ANTIFONA

Neu nago zuekaz egun oro munduaren azken arte.

SALMUA : 114

*Eskerrak emotea.*

*Jaungoikoaren erreñuan sartzeko, neke asko eroan bear dira (Ap 14, 22).*

Jauna maite dot, nire eskarien deia  
entzun egiten dau-ta ;

dei egiten dautsadan egunean,  
bere belarria neugana makurtzen dau-ta.

Eriotz-sareak inguratzen nenduen, †  
lezako lakioak oratu eusten, \*  
estualdi ta larrialdian jausi nintzan.

Jaunaren izenari egin neutsan dei :  
Onik atara egizu nire bizia, Jauna”.

Jauna onbera ta zuzena da,  
gure Jainkoa errukiorra da ;

zaindu egiten dauz Jaunak biotz-zintzoak :  
indar bagarik nengoala, onik atara nenduan.

Zeuganatu egizu barriro zure bakea, ene arima !,  
Juana zutzaz ona izan zan-eta :

atara egin eban nire arimea eriotzatik, †  
nire begiak negar-malkoetatik, \*  
nire oiñak jausi-alditik.

Jaunaren aurrean ibilliko naz,  
bizien lurrean.

ANT. Neu nago zuekaz egun oro munduaren  
azkenerarte.

## 2'GARREN ANTIFONA

Laguntza Jaunagandik datorkit, zeru-lurrak egin  
ebazanagandik.

SALMUA : 120

*Erriaren zaintzaillea.*

*Ez dira gose izango, ezta egarri be, ezta  
eguzkiak eta sargoriak be ez dautsee kal-  
terik egingo (Ag 7, 16).*

Nire begiak mendietara jasoten dodaz :  
nondik etorriko yat laguntza?

Laguntza Jaunagandik datorkit,  
zeru-lurrak egin ebazan Aregandik.

Ez dau itziko zure oiñak laban egiten,  
zure zaintzailleak ez dau lorik egiten ;

Israel'en zaintzailleak  
ez dau lorik egiten, ez atsedenic artzen.

Jaunak bere gerizpean zaintzen zaitu,  
zeure eskumaldean dago ;

egunez ez dautsu eguzkiak kalterik egingo,  
ezta gabez illargiak be.

Jaunak gordeten zaitu gaitz guztitik,  
Berak zaintzen dau zure arimea ;

Jaunak zaintzen dauz zure sartu-urtenak,  
orain eta beti.

ANT. Laguntza Jaunagandik datorkit, zeru-lu-  
rrak egin ebazanagandik.

## 3'GARREN ANTIFONA

Zuzenak eta egiazkoak dira zure bideak, giza-  
dien Errege !



ABESTIA. Ag 15, 3-4

*Irabazleen abestia.*

Andiak eta arrigarriak dira zure egintzak,  
Jainko Jaun gurtiaaldun ori!

zuzenak eta egiazkoak zure bideak,  
gizaldien Errege ori!

Nor ez da zure bildur izango, Jauna, \*  
eta nok ez dau zure izena goratuko? †  
Izan be, Zeu bakarrik zara santu.

Atzerri guztiak etorri †  
eta zeure aurrean auspaztuko dira, \*  
zure egintza zuzenak agirian geratuko dira-ta.

ANT. Zuzenak eta egizakoak dira zure bideak,  
gizaldien Errege!

JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko  
astegunetan, irakurgai laburra, itaun-erantzuna,  
Ebanjelioko abestiaren antifona eta eskariak, aldi  
orreetakoak artzen dira (ikus I Geigarria). Oste-  
rantzeko astegunetan, auxe esaten da:

IRAKURGAI LABURRA. K. 1<sup>a</sup>, 2, 7-10a

Jaungoikoaren jakintza ezkutu ta isilpekoa ira-  
kastez dautsuegu, betidanik gure aintzarako  
Jaungoikoak aukeratu ebana. Gizarte onetako  
nagusi batek be ez dau jakintza ori ezagutu  
izan: ezagutu izan ba'lebe, ez leukeen aintzaren

Jauna gurutzeratuko. Baiña idatzita dagoanez:  
"Ez dau begik ikusi, ez belarrrik entzun, ez gi-  
zonaren biotzek somatu, Bera maite dabenen-  
tzat Jaungoikoak atonduta daukana", orixe ira-  
garten dogu guk. Guri, barriz, Jaungoikoak bere  
Espirituaren bitartez agertu dausku.

ITAUN-ERANTZUNA

B. Kristo geure pekatuakaitik il zan, gu Jaun-  
goikoagana eroateko.

E. Kristo geure pekatuakaitik il zan, gu Jaun-  
goikoagana eroateko.

B. Aragiz ilda, baiña espirituz biztuta.

E. Jaungoikoagana eroateko.

B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
tuari.

E. Kristo geure pekatuakaitik il zan, gu Jaun-  
goikoagana eroateko.

EBANJELIOKO ABESTIA (Magnificat)

ANT. Izan egizu gogoan, Jauna, zure errukia:  
gure aurretikoai egindako agintzaria.

ABESTIA. Lk 1, 46-55

Nire izate guztiak Jauna goratzen dau. \*

Nire biotza pozez beterik dago †  
nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,

bere begiak neugan jarri dauzalako,  
Aren mirabe apala naz-ta.

Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango dauste: †  
guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan  
Arek, \*  
nire alde arrigarriak egin dauz-ta.

Arek beti izango dautse errukia  
Bera goratzen dabena.

Bere besoaren indarraz,  
arroen asmoak ondatu egiten dauz.

Andikia aulkitik lurrera bota  
eta apala gora jasoten dau.

Gose diranak ondasunez bete  
eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Bere morroiari, Israel erriari, †  
laguntza ekartera dator, \*  
bere errukia gogoan izanik,

gure aurretikoai †  
—Abraham'i ta onen ondorengo guztiai— \*  
egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren  
arauz.

Aintza Aitari...

ANT. Izan egizu gogoan, Jauna, zure errukia,  
gure aurretikoai egindako agintzaria.

## ESKARIAK

Bedeinkatu daigun orain Jesus Jauna; izan be,  
bere bizitza ilkorrean Beragana joten eben es-  
kariak beti biotz onez entzuten ebazan eta  
negar egiten ebenen negar-malkoak maitasu-  
nez sikatzen ebazan; eta geuk be esan daio-  
gun:

*Erruki zakioz, Jauna, zure erriari.*

Itun eta atsekabetuta egozanai poza emoten zeu-  
tsen Jesukristo Jauna:

—ezarri egizuz orain zure begiak beartsuen ne-  
gar-malkoetan.

Entzun, Jauna, il-zorian dagozanen antziak  
—eta bialdu egiezuz zure aingeruak, bizkortu  
ta indartu dagiezan.

Erbestera joandakoak be, erbeste-aldian zeure  
lur-ardurapena somatu dagiela,

—euren aberrira biurtu aal daitezala, eta egunen  
baten eurak be betiko aberria lortu dagiela.

Pekatarriak zeure maitasunera bigundu

—eta Zugaz eta zure Elizeagaz adiskidetu daite-  
zala.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gainera.

Parkatu, Jauna, il diranen obenak

—eta emon egiezu zure salbamenaren osotasuna.

## DOMEKAKO OTOITZA

Jaungoikoaren seme-alaba garana jakiteak  
emoten dauskun pozaz, uste on osoz esan dagi-  
gun : Gure Aita...

## AMAIERA

## OTOITZA

Gurutzeko opariaz zeure jakituri ezkutua  
era miragarritz agertu dozun Jaungoikoa :  
eiguzu, zure Semearen nekaldiko aintza  
fede osoz begiratu  
eta gure aintza beti  
Jesukristo'ren gurutzean aurkitu dagigula.  
Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera Jaungoiko  
ta Errege bizi dan Jesukristo beraren bitartez.

*E.* Amen.

*B.* Jaunak bedeinkatu,  
gaitz guztietatik gorde  
eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*E.* Amen.

## ZAPATUA

## BEZPERAK

## SARRERA

## ASIERARAKO DEIA

*B.* Zatoz, ene Jainko, niri lagun egitera.

*E.* Jauna, zatoz arin niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
tuari.

Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldie-  
tan. Amen. (Aleluia).

## GORAPEN-ABESTIA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko  
astegunetan, gorapen-abestia aldi orreitakoa artzen  
da (ikusi I Geigarria). Osterantzeko astegunetan,  
auxe esaten da:

TALDEAK : Izan egizu gogoan  
illen artetik biztutako Jesukristo.  
Bera da gure salbamena,  
Bera gure aintza betiko.

1. Beragaz ilten ba'gara, Beragaz bizi izango  
gara.  
Nekeak Beragaz eroaten ba'doguz, Beragaz  
izango gara errege.

2. Beragaz gure naibageak, Beragan gure poza.  
Beragan gure itxaropena, Beragan gure ba-  
kea.
3. Beragan grazia guztia, Beragan gure bakea.  
Beragan gure aintza, Beragan salbamera.

## SALMUTEGIA

## 1º ANTIFONA

Igo bedi gure otoitza, Jauna, intzentzua lez zure  
aurrean.

SALMUA : 140, 1-9

*Arriskuaren aurrean otoitza.*

*Santuen otoitzakaz batera, usaingarrien  
kea aingeruaren eskutik Jaungoikoaren  
aurrera igo zan (Ag 8, 4).*

Deika nagokizu, Jauna, zatorkidaz arin,  
entzun nire abotsa dei egiten dautsudanean.

Igo bedi nire otoitza intzentzua lez zure au-  
rrean,  
nire esku-jasotea arratsaldeko oparia lez.

Ipiñi egizu, Jauna, zaintzaille bat nire agoan,  
jagole bat nire ezpanetako atean ;

ez itzi nire biotza txarkerira makurtzen,  
dongakeriak eta gaiztakeriak egiten ;

ezta gizon gaiztoakaz batera  
janaldi ederrak egiten be.

Jo nagiala zintzoak,  
onak asarre egin daistala,  
baiña gaiztoaren miritzak  
ez dagiala nire burua usaindu ;  
nik arein zoritxarretan  
ekin egingo dautsat otoitzari.

Arein buruzagiak atxetik beera jausi ziran,  
nire berba maitagarriak entzun ebezanarren  
be ;

errotarria lez, lurrean zear ausita,  
gure azurrak illobi-agoan dagoz sakabanatuta.

Zeugana biurtuta dagoz, Jauna, nire begiok ;  
Zeugana egiten dot iges, ez nagizu bertan-bee-  
ra itzi ;

gorde nagizu ezarri dausten lakiotik,  
gaizkilleen jauspidetik.

ANT. Igo bedi gure otoitza, Jauna, intzentzua  
lez zure aurrean.

## 2º GARREN ANTIFONA

Zeu zara nire gordeleku, Jauna, bizitzako lurral-  
dean.

SALMUA : 141

*Bertan-beera itzita dagoan gizonaren otoitza :*  
*Zeu zara nire gordeku.*  
*Salmuak azaltzen dauan guztia, Jaunagan*  
*burutu zan Beronen Nekaldian (S. HI-*  
*LARIO).*



Deadarka baten nago Jaunari,  
deadarka baten eskatzen dausat Jaunari;

Aren aurrean isurten dodaz nire ardurak, †  
Aren aurrean zabaltzen dot nire samiña, \*  
arnasea gutxiagotzen yatan artean.

Baiña ba-dakizuz Zuk nire bide-zidorrak, †  
eta ni nabillen bidean \*  
jauspide bat gorde daustena.

Begira eskumatara, ikusi egizu :  
ez daust iñok jaramonik egiten;

ez daukat iñora iges egiterik ;  
iñok ez dauko nire biziaren ardurarik.

Zeuri egiten dautsut deadar, Jauna, †  
eta esaten : "Zeu zara nire gordeleku, \*  
nire atala bizidunen lurraldean".

Entzun nire deadarrak,  
etenda nago-ta;

askatu nagizu nire erasotailleakandik,  
ni baiño gogorragoak dira-ta.

Atara nagizu giltzapetik,  
eta eskerrak emongo dautsadaz zure izenari :

zintzoak inguratuko nabe  
zeure ederra biurtu daistazunean.

ANT. Zeu zara nire gordeleku, Jauna, bizitza-  
ko lurraldean.

## 3'GARREN ANTIFONA

Jauna beeratu egin zan, eta orregaitik Jaungoi-  
koak gora jaso eban gizaldiz-gizaldi.

ABESTIA. Flp 2, 6-11

*Kristo, Jaungoikoaren morroia, bere Pazko-mis-  
terioan.*

Kristo'k, izatez Jaungoikoa izanarren,  
ez eban bere burua Jaungoiko-maillan eraku-  
tsi :

gizon-eraz zala,  
bere burua txiki egin eban,

eriotzaragiño esaneko egiñaz,  
gurutzean ilteragiño egin be.

Aregaitik, Jaungoikoak be goratu egin eban  
eta izen guztien gaiñeko dan izena emon eu-  
tsan :

Jesus izena entzutean, †  
zeruetan, lurrean eta inpernuetan dagoan da-  
na \*  
belauniko jarri daiten,

eta, Jaungoiko Aitaren aintzarako,  
miin guztiak Jesukristo Jauntzat autortu da-  
gien.

ANT. Jauna beeratu egin zan, eta orregaitik  
Jaungoikoak gora jaso eban gizaldiz-gi-  
zaldi.

## JAUNGOIKOAREN ITZA

Abendu, Gabonaldi, Garizuma ta Pazko-aldiko astegunetan, irakurgai laburra, Ebanjelioko abestiaren antifona, itaun-erantzuna eta eskariak, aldi orreitakoak artzen dira (ikusi I Geigarria). Osterantzeko astegunetan, auxe esaten da:

## IRAKURGAI LABURRA. Erm II, 33-36

Sakonak, benetan, Jaungoikoaren aberastasuna, jakituria ta jakintza! Bai aztergatxak Aren erabagiak, eta barrendu-eziñak Aren bideak! Nok ezagutu dau Jaunaren asmoa?, edo nor izan da Aren onulari? Nok emon dautsu leendik, Ari ordaiña eskatzeko? Dana Beragandik, Beragaitik eta Beragan da. Berari aintza gizaldietan. Amen.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Zure egintzak bai bikaiñak, Jauna!  
 E. Zure egintzak bai bikaiñak, Jauna!  
 B. Sakonak benetan zure asmoak!  
 E. Zure egintzak bai bikaiñak, Jauna!  
 B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
 E. Zure egintzak bai bikaiñak, Jauna!

## EBANJELIOKO ABESTIA (Magnificat)

ANT. Nire biotza pozez beterik dago nire Salbatzaille dan Jaungoikoagaitik.

## ABESTIA. Lk 1, 46-55

Nire izate guztiak Jauna goratzen dau. \*

Nire biotza pozez beterik dago †  
 nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,  
 bere begiak neugan jarri dauzalako,  
 Aren mirabe apala naz-ta.

Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango dauste, †  
 guztiaaldun dan Arek, izena santu dauan  
 Arek, \*  
 nire alde arrigarriak egin dauz-ta.

Arek beti izango dautse errukia  
 Bera goratzen dabena.

Bere besoaren indarraz,  
 arroen asmoak ondatu egiten dauz.

Andikia aulkitik lurrera bota  
 eta apala gora jasoten dau.

Gose diranak ondasunez bete  
 eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.

Bere morroiari, Israel erriari, †  
 laguntza ekartera dator, \*  
 bere errukia gogoan izanik,

gure aurretikoai †

—Abrahan'i ta onen ondorengo guztiai— \*  
 egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren  
 arauz.

Aintza Aitari...

ANT. Nire biotza pozez beterik dago nire Salbatzaille dan Jaungoikoagaitik.

## ESKARIAK

Goratu daigun Jaungoikoa, Aita, Semea, ta Espiritu Santua, eta auxe eskatu daiogun :

*Entzun, Jauna, zure erria.*

Aita guztiaalduna, lurrean zuzentasuna ugaritu daitela egizu,

—eta zure erria bakean poztu daitela.

Erri guztiak zeure Erreiñuan eskuartu dagiela,

—eta Israel onik urten daitela.

Senar-emazteak zeure naia bete dagiela, alkartasunez bizi daitezala

—eta euren alkar-maitasunean beti zintzo iraun dagiela.

Saritu egizuz, Jauna, gure ongilleak,

—eta emon egiezu betiko bizitza.

Beste asmo batzuk be agertu daitekez gaiñera.

Artu maitasunez, Jauna, gorrotoagaitik, idarke-riagaitik edo guduagaitik il diranak,

—eta emon egiezu betiko atsedena.

## DOMEKAKO OTOITZA

Espiritu Santuak eraginda, egin daiogun zeruko Aitari Jaunak irakatsi euskun otoitza : Gure Aita...

## AMAIERA

## OTOITZA

Igo dadilla Zuganaiño gure illunkerako otoitza, Aita errukior, eta jatsi daitela gure gaiñera zure bedeinkapena ; onela, zure laguntzaz, onik urtengo gara orain eta beti. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

*E. Amen.*


*B. Jaunak bedeinkatu, gaitz guztietatik gorde eta betiko bizitzara eroan gagizala.*

*E. Amen.*




I GEIGARRIA

LITURJI-ALDIAK







## ABENDU-ALDIA

### GORAPENAK

#### GORAPEN-ABESTIA

Bialdu, zeruok, zuen zuzentasuna!  
Edegi zaitetz, lur ori!  
Ernerazo egizu Salbatzaillea!

1. Zure erria zuzentzen dozun Jauna,  
Israel'en etxearen Artzaiña! :  
zatoz gu askatzera zure besoaren aal-izateaz.  
Zatoz laster, Jauna. Zatoz, Salbatzaille ori!
2. Aitaren agotik urtendako jakituri ori,  
profetak iragarritako ori! :  
zatoz salbameneko bidea guri irakastera.  
Zatoz laster, Jauna. Zatoz, Salbatzaille ori!
3. Dabid'en seme, errien eta erregeen ikurrin,  
mundu osoak deadar egiten dautsun ori! :  
zatoz gu askatzera, Jauna; ez zaitetz luzatu  
onezkero.  
Zatoz laster, Jauna. Zatoz, Salbatzaille ori!
4. Dabid'en giltz eta Israel'en etxeko makilla,  
munduaren gaiñetik errege zaran ori! :  
zatoz illunpeetan itxaroten dagozanak aska-  
tzera.  
Zatoz laster, Jauna. Zatoz, Salbatzaille ori!
5. Eguzki barri, betiko argiaren Diztira eta zu-  
zentasun-Eguzki zaran ori!

Zatoz eriotz-gerizpetan datzazanak argitzera.  
Zatoz laster, Jauna. Zatoz, Salbatzaille ori!

6. Errien Errege eta Elizako giltzarri!  
Erriak batzen dozuzan ori,  
zatoz Zeuk egin dozuzan andra-gizonak askatzerara.  
Zatoz laster, Jauna. Zatoz, Salbatzaille ori!
7. Emanuel,  
geure Errege, errien Salbatzaille ta itxaropen!  
Zatoz gu askatzerara, Jauna; ez luzatu onezkerore zure etorrera.  
Zatoz laster, Jauna. Zatoz, Salbatzaille ori!

#### IRAKURGAI LABURRA. Is 2, 3

Zatoze, igo gaitezcan Jaunaren mendira, Jakob'en Jaungoikoaren etxera; Berak erakutsiko daukuz bere bideak, eta Aren bide-zidorretan ibilliko gara, Legea Sion'dik urtengo da-ta; Jaunaren Itza, barriz, Jerusalem'dik.

#### ITAUN-ERANTZUNA

- B. Zeure gaiñean, Jerusalem, argituko da Jauna.
- E. Zeure gaiñean, Jerusalem, argituko da Jauna.
- B. Aren aintza zeure gaiñean agertuko da.
- E. Argituko da Jauna.
- B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.
- E. Zeure gaiñean, Jerusalem, argituko da Jauna.

#### BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA

Jaso zure begiak, Jerusalem, eta begiratu zure Erregearen aal-izatea; begira: zure Salbatzaillea zeure kateetatik askatzerara dator.

#### ESKARIAK

Argiaren Argi ta Jainko biziaren Seme dan Jesukristo Jaunak atarako gaitu gu gagozan illunpeetatik, Aren aintza begiratu aal izan dagigun; jo dagigun, ba, Beragana eta uste onez auxe esan daiogun:

*Zatoz, Jesus Jauna.*

Gure illunpeak argitzen zatozan Argi ezereztuezin Ori! : berotu egizu gure fede otza.  
Egun-barruan zuurtasunez ibilli gaitezcala egizu, —zure argitasunaren diztiraz zuzenduta.  
Aldi oro otzanak izan gaitezcala egizu, Jauna, —gu andra-gizon guztientzat eredugarri izanik.  
Zatoz guk gura dogun lur barria egitera: —zuzentasuna ta bakea bizi daitezcala bertan.  
Gure Aita...

#### OTOITZA

Egizu, gure Jainko Jaun orrek, zure Semearen etorrerako adi-adi egon gaitezcala: etorrira, atea jo dagianean, otoitzean iratzarririk eta zeure gorapenak kantatzen aurkitu gagizan. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.  
E. Amen.

## BEZPERAK

## GORAPEN-ABESTIA

Zatoz, Jesus Jauna!

1. Neu naz Dabid'en Zusterrea ta Semea, goizeko Izar diztiratsua.
2. Espirituak eta Emazteak "Zatoz, Jauna!" diñoe.  
Ori entzun dagianak, "Zatoz, Jauna", esan begi.
3. Egarri dana, etorri daitela; gura dagianak, artu dagiala bizitzako uraren doaia.
4. Bai, ni laster nator.  
Amen! Zatoz, Jesus Jauna!

IRAKURGAI LABURRA. Ko 1<sup>a</sup>, 4, 5

Ez emon epairik ordua baiño leen, Jauna etorri arte. Berak argituko dauz illunpeetako ezku-tuak, Berak agertuko dauz biotzetako asmoak; orduantxe artuko dau baktotxak Jaungoikoagandik norberari dagokion gorapena.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Iratzartu zure aal-izatea ta zatoz gu salbatzera, Gudarozteen Jainko Jauna.
- E. Iratzartu zure aal-izatea ta zatoz gu salbatzera, Gudarozteen Jainko Jauna.

- B. Argi egin dagiala zure aurpegiak eta onik atara gaizala.
- E. Gudarozteen Jainko Jauna.
- B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.
- E. Iratzartu zure aal-izatea ta zatoz gu salbatzera, Gudarozteen Jainko Jauna.

## MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA

Sion'dik urtengo da Legea; Jerusalem'dik Jauraren Itza.

## ESKARIAK

Dei egin daiogun Aita Jaungoikoari, azken-bagako bakea ekarteko, bere Semea bialdu euskun-eta; esan daiogun biotzez:

*Betorkigu zure erreñua, Jauna.*

Begiratu, Aita Santu orrek, zure Elizea, —eta zatoz zure erriari ikustaldia egitera. Zure agintzariari beti zintzoro eusten dautsezun Jauna:

—izan egizuz gogoan Abraham'en semeak eta bete arein aurretikoai egin zeutsezan agintzariak.

Begiratu, Jainko errukior orrek, sinisbageak, —eta dei egiezu, zure errukiz, eurak be Zu goratu ta ospatu zagiezan.

Ikustaldia egiezu, betiko Artzain orrek, zure artaldeko ardiai,

—eta batu egizuz guztiak zure bedartza ezeetan.  
Izan egizuz gogoan, Jauna, mundu onetatik zeu-  
re bakean joan diranak be,

—eta artu zure Semearen erreñuan.  
Gure Aita...

## OTOITZA

Gure Jaun eta Jainkoa,  
Zeuk atondu egizuz gure biotzak,  
Jesukristo zure Semea eldu daitenean,  
betiko jairako duin aurkitu gagizan  
eta, Aren eskuetatik,  
zeruko saria artzea merezi dagigun.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.  
E. Amen.



## GABONALDIA

## GORAPENAK

## GORAPEN-ABESTIA

Gaur ikusiko dozue Jaunaren ditzira,  
orra or zuen Jaungoikoa.  
Gaur jaio da zuen Salbatzaillea,  
Kristo Jauna.

Erri guztien pozgarri,  
antxiña danik iragarria,  
jaiotegunetik Errege.

Gaur ikusiko dozue...

Argitik argi, gizartean gizon,  
ume bat jaio yaku, seme bat emon;  
“Bake-Seme” dau izena.

Gaur ikusiko dozue...

Bakea lurrean...  
Urak itsasoa beteten dauanez  
artuko dau bakeak lurra.

Gaur ikusiko dozue...

Auxe da Jaunak egin dauan eguna.  
Barri on bat dakartsuegu:  
orra or zuen Jaungoikoa.



## IRAKURGAI LABURRA. Ebr 1, 1-2

Jaungoikoak antxiña gure aurretikoai ainbat aldiz eta eraz Profeten bidez berba eginda gero, azken-egunotan bere Semearen bidez egin dausku berba, Semea gauza guztien oiñordeko jarriarik; gizaldiak be Beronen bidez egin dauz.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Jaunak Salbatzaillea agertu dau, aleluia, aleluia.  
 E. Jaunak Salbatzaillea agertu dau, aleluia, aleluia.  
 B. Lurreko bazter guztiak ikusi dabe.  
 E. Aleluia, aleluia.  
 B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
 E. Jaunak Salbatzaillea agertu dau, aleluia, aleluia.

## BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA

Aintza zeruetan Jaungoikoari, eta bakea lurrean Aren gogoko gizonai.

## ESKARIAK

Goratu daigun Kristo, Aitaren betiko Itza, gizaldiak baiño leenago sortua eta lurreko aldian geugaitik jaioa, eta deadar egin daiogun:

*Poztu daitela lurra, Jauna, zure etorrerearen aurrean.*

Kristo, betiko Itza, mundura etortean, lurrari poza iragarri zeutsan ori:

—poztu egizuz gure biotzak zure ikustaldiaren graziaz.

Munduaren Salbatzaille, zure jaiotzaz Jaungoikoa bere agintzarietan zintzoa dala agertu dauskuzun ori:

—geu be gure bateoko agintzariai zintzoak izan gakiezala egizu.

Zeru-lurren Errege, zure aingeruen bidez andra-gizon guztiai bakea iragarri zeutsen ori:

—iraunerazo egizuz gure bizitzak zure bakean.

Jauna, guri bizi-frutua emoteko, egiazko maatsondoa izateko etorri zintzazan ori:

— egizu, beti Zeugan iraun eta frutu ugari emon dagigula.

Gure Aita...

## OTOITZA

Jaungoiko guztiaalduna:  
 gizon egin dan zure Itzaren argiak beteten gaitu:  
 eiguzu, gure biotzetan argi egiten dauan fede onek,

geure egintzetan be dizdiz egin dagiala.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

E. Amen.

## BEZPERAK

## GORAPEN-ABESTIA

Neguaeren erdian  
 Ume bat jaio da;  
 Belen'go estalpera  
 zerutik jatsi da.

Jesus Salbatzaillea,  
 biotzen pozgarria,  
 agertu da gaur  
 Belen'go askan,  
 Jaungoiko, Errege,  
 zeruko nagusi,  
 guztion Jabea.

Zeruan dago izar bat  
 estalpea argitzen;  
 artzaiñak belauniko  
 gure Jauna gurtzen.

Jesus Salbatzaillea...

Gurtu dagigun geuk be  
 gure Osasuna;  
 eskiñi dagiogun  
 gure maitasuna.

Jesus Salbatzaillea...

IRAKURGAI LABURRA. Jn 1<sup>a</sup>, 5b-7

Jaungoikoa argi da eta Aregan ez dago illu-  
 nik. Baiña argitan bizi ba'gara, Jesukristo argi-

tan dagoanez, alkarren alkartasunean gagoz, eta  
 Aren Seme Jesus'en odolak pekatu guztitik gar-  
 bitzen gaitu.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Itza aragi egin zan, aleluia, aleluia.  
 E. Itza aragi egin zan, aleluia, aleluia.  
 B. Eta geure artean bizi izan zan.  
 E. Aleluia, aleluia.  
 B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
 tuari.  
 E. Itza aragi egin zan, aleluia, aleluia.

## BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA

Dana oso isilletan egoala, gaba bere erdira el-  
 tzean, zeure Itz guztiaalduna, Jauna, jatsi zan  
 bere errege-aulkitik. Aleluia.

## ESKARIAK

Eskatu daiogun Jaungoikoaren Itzari, geure ar-  
 tean biziaz, betiko salbameneko atea zabaldu  
 euskun Ari, eta esan daiogun uste osoz:  
*Onik atara gagizuz, Jauna, gaitz guztietatik.*

Zeure gizakundearen misterioagaitik, zeure jai-  
 oza ta umezaroagaitik,  
 —zure bizia oso-osorik eskiñi zendualako:  
*Onik atara gagizuz, Jauna, gaitz guztietatik.*

Zeure lanagaitik, zeure iragarteagaitik eta Barri  
 Onagaitik,

—pekatariari agertu zeutsen biotz onagaitik :

*Onik atara gagizuz, Jauna, gaitz guztietatik.*

Zure neke ta atsekabeakaitik, zeure gurutze ta larriakaitik,

—zeure oiñazeakaitik, zeure eriotza ta illobiagaitik :

*Onik atara gagizuz, Jauna, gaitz guztietatik.*

Zeure biztueragaitik, zeruetara igoteagaitik, Espiritu Santua bialtzeagaitik, Bateoa ta Eukaristiagaitik, zeure poz eta betiko aintzagaitik :

—onik atara egizuz, Jauna, gure anai-arreba ildakoak.

*Eta gu onik atara gagizuz, Jauna, gaitz guztietatik.*

Gure Aita...

#### OTOITZA

Jainko guztiaalduna :  
zeure Semearen aragizko jaiotza barriagaitik,  
askatu gagizuz pekatuaren buztarpean gaukazan  
antxiñako morroitzatik.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

*E. Amen.*

## GARIZUMALDIA

### GORAPENAK

#### GORAPEN-ABESTIA

TALDEAK : Auxe da Jaunaren eguna.  
Auxe da erruki-aldia.

Onezkero ez gara lotsatuko  
zure begien aurrean  
zure erriaren  
antxiñako pekatuagaitik.  
Zusterretik atarako dozu biotz arroa,  
eta erri apala egingo dozu,

TALDEAK : Auxe da Jaunaren eguna.  
Auxe da erruki-aldia.

Errien artean,  
ondakin lez gordeten gaituzu,  
zeure egintzak abesteko  
eta zeure Erreiñua aurreragotzeko.  
Erri barri izango gara  
zeru barrietarako :  
abade-jatorri  
zeure Seme bakarraren eraz.

TALDEAK : Auxe da Jaunaren eguna.  
Auxe da erruki-aldia.

Zapaltzailleak jausi  
eta morroiak poztu egingo dira ;



lotsabide-semeak  
zeure oiñordeko izango dira.  
Orduan, euren ogia  
basamortuan jaten ebenentzat,  
biurtze-eguna  
izentatuko dozu.

TALDEAK : Auxe da Jaunaren eguna.  
Auxe da erruki-aldia.

Poztu bedi nire barrua!  
alaitu beite nire erria!  
Jaunak, zuzena dan ezkerro,  
bartzartu egin dauz bere erabagiak.  
Ondapenaren ordezt,  
salbamena iragarten yaku:  
Jauna bere erriaren artean  
bizi da-ta.

TALDEAK : Auxe da Jaunaren eguna.  
Auxe da erruki-aldia.

IRAKURGAI LABURRA. Is 1, 16-18

Uretan busti ta garbitu zaitzeze; kendu nire  
aurretik zuen egitada gaiztoak, itzi egizue gaiz-  
takeria, ikasi on egiten, billatu zuzentasuna, la-  
gundu zapaldua, egin zuzenbidea umezurtzari,  
jarri auzian andra alargunaren alde. Zatoze ta  
alkar ondo artu dagigun —diño Jaunak—:  
Zuen pekatuak gorri-miña lakoak ba'litaz be,  
edurra baizen zuri geratuko litzakez; purpura  
baizen gorriak ba'litaz be, artule zuria lez ge-  
ratuko litzakez.

#### ITAUN-ERANTZUNA

- B. Berak atarako nau eiztariaren saretik.  
E. Berak atarako nau eiztariaren saretik.  
B. Berak estalduko nau bere lumakaz.  
E. Eiztariaren saretik.  
B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu San-  
tuari.  
E. Berak atarako nau eiztariaren saretik.

#### BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA

Pillatu egizuez ondasunak zeruan; an ez dira  
zerentzen, ez ondatzen.

#### ESKARIAK

Eskerrak emon daioguzan beti ta edonon Kristo  
gure Salbatzailleari, eta eskatu daiogun:

*Lagun zakiguz, Jauna, zure graziaz.*

- Eiguzu, gure gorputzak loikeri bagarik gorde da-  
giguzala,  
—eurotan zeure Espiritu Santua bizi daiten.  
Geitu egizuz gudan, egunaren asieratik, gure  
anai-arrebakanako maitasuna  
—eta egun guztian zeure naia beteteko gogoia.  
Emoiguzu betiko bizitza emoten dauan janari-  
gosea,  
—emongo euskuzula agindu zeuskun-eta.  
Bitarteko egin dagiala gure alde pekatarien gor-  
deleku dan zure Amak,  
—geure pekatuen parkamena jadetsi dagigun.  
Gure Aita...



## OTOITZA

Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: begiratu samurkiro gure makaltasuna eta luzatu egizu gure gainera zure esku aaltsua. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

E. Amen.

## BEZPERAK

## GORAPEN-ABESTIA

Eskerrak emoten dautsuguz, Jauna, zure asarrea bazartu dozulako eta erriaren aurrean berau zigortzen dauan eskua gelditu dozulako.

Onik ataraten gaituan Jainkoa zara Zu, gu argitzen gaituan argia, guri custen dauskun eskua eta aterpea emoten dauskun gordelekua.

Eta pozik atarako dogu, Bizitzaren iturburutik, gizonari biztuteko indarra emoten dautsan ura.

Orduan, deadarka iragarriko dogu:  
—Abestu egiozue pozez beterik!  
Jainkoaren izena andia da!  
Aren maitasuna, azkenbagea!

Jauna goratu dagiala lurrak!  
Azaldu egiozue Aren miragarriak.

Andia benetan erriaren aurrean gu zintzotzen gaituan Jaungoikoa!

IRAKURCAI LABURRA. Erm 12, 1-2

Jaungoikoaren errukiagaitik eskatzen dautsuet, anaioi: zuen gorputzak opari bizi, santu ta atsegingarritzat eskiñi egiozue Jaungoikoari: orixe dozue espirituzko gurtza-ta. Mundu onetako antzik ez artu; adimena barriztuaz aldatu bai, ostera: Jaungoikoaren gurari on, atsegingarri ta bikaiña zein dan ezagutu dagizuen.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Auxe esan neban nik: Erruki, Jauna.  
E. Auxe esan neban nik: Erruki, Jauna.  
B. Osatu nagizu, zure aurka pekatu egin dot-eta.  
E. Erruki, Jauna.  
B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
E. Auxe esan neban nik: Erruki, Jauna.

## BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA

Auxe diño Jaunak: Nire anai oneitariko apalenaren alde egin dozuena, neuri egin daustazue.

## ESKARIAK

Bere erri garanok, geure pekatuetatik askatu gaituan Jesus Jaunari dei egin eta apalik eskatu daiogun:

*Jesus, Dabid'en Seme ori, erruki zahiguz.*

Zeure Eliza santuaren alde eskatzen dautsugu,  
Jauna, uraz eta Itzaz bera santutzeko, bera-  
gaitik eskiñi zenduan zure burua-ta :

—garbitu eta barriztu egizu damu-nekearen bi-  
dez.

Egizu, Irakasle on orrek, zuk gertatzen dautse-  
zun bideaz gazteak konturatu daitezala  
—eta beti biotz-zabalez zeure deia erantzun da-  
gitseela.

Zugana joten eben geisoai errukia izan zeutsen  
Ori: jaso egizu gure geisoen itxaropena  
—eta egizu, Zuk biotz-zabalez egin zenduanari  
jarraitu daiogula eta nekeetan dagozanen one-  
rako beti adi-adi egon gaitezala.

Beti gogoan izan dagigula, Jauna, bateoaren bi-  
dez zeure seme-alaba egin gintzazala,  
—eta beti Zeuretzat bizi gaitezala.

Emoiezu zure ildakoai zure bakea ta saria,  
—eta batu gagizuz egunen baten arekaz batera  
zure Erreiñuan.

Gure Aita...

#### OTOITZA

Biurtu gagizuz Zeugana,  
gure Jainko Salbatzaille orrek;  
argitu gagizuz zure Itzaren argiaz:  
Garizuma au ospatzeak,  
gugan here fruturik onenak ekarri dagizan.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

E. Amen.

## PAZKO-ALDIA

### GORAPENAK

#### GORAPEN-ABESTIA

Biztu da Kristo, aleluia!  
Geugan dago, aleluia!

1. Goratu begie kristauak Pazko-Bildotsa.  
Bildotsak, ardiak erosi dauz;  
Kristo errubageak  
bere adiskide egin dauz pekatariak.
2. Eriotzak eta bizitzak  
alkar-burruka gogorra egin dabe;  
bizitzaren Jauna  
errege da ilda gero be.
3. Esan eiguz, Mari:  
Zer ikusi dozu bidean?  
Kristo biziaren illobia  
eta Berbiztuaren aintza ikusi dodaz.
4. Aingeruak ikusi dodaz autorle,  
baita il-zapia ta jantziak be.  
Biztu egin da Kristo, ene itxaropena!  
Galilea'ra aurea artuko dautsue.
5. Ba-dakigu Kristo illen artetik  
biztu egin dana benetan.  
Zu, Errege garaille,  
erruki zakiguz. Amen, Aleluia.

## IRAKURGAI LABURRA. Erm 10, 8b-10

Itza zeure ondoan dago: zeure agoan eta zeure biotzean. Berba au da iragarten dogun sinis-menaren itza. Izan be, Jesus Jauna agoz autor-tzen ba'dozu eta Jaungoikoak illen artetik biztu egin ebala sinisten ba'dozu zure biotzean, salba-tu egingo zara. Zindokuntzarako, biotzez sinistu bear da, eta salbamenerako agoz autortu.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Kristo biztu egin da illobitik. Aleluia, aleluia.  
 E. Kristo biztu egin da illobitik. Aleluia, aleluia.  
 B. Egurrean gugaitik dingilizka egon zana.  
 E. Aleluia, aleluia.  
 B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
 E. Kristo biztu egin da illobitik. Aleluia, aleluia.

## BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA

Benetan dirautsuet: Barriri jaio ez daitenak, ezin ikusi daike Jaungoikoaren Erreiñua, aleluia.

## ESKARIAK

Otoitz egin daiogun Jainko Aita guztiaaldunari, eriotzan eta biztueran bere aintza erakutsi dauskunari, eta uste onez esan daiogun:

*Argitu, Jauna, gure adimenak.*

Aita, argi guztien iturri, mundua Kristo biztuaz argitu nai izan dozun Ori:

—argitu egizuz, egun onen asierarik, gure ari-mak fedearen argiaz.

Illen artetik biztutako zure Semearen bitartez, gizonai salbameneko atea zabaldu dautsezuzan Ori:

—egizu, egun onetako lanen bidez, gure itxaropena geitu daitela.

Zure Seme biztuaren bitartez, munduari zeure Espiritu Santua isuri dautsazun Ori:

—iziotu egizuz gure biotzak Espiritu beraren suaz.

Kristo, Jauna, gu askatzeko gurutzean josia, —gaur guretzat geure salbamina ta erospena izan daitela.

Gure Aita...

## OTOITZA

Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa, Zuri Aita dei egiten izten dauskuzuna: geitu gudan seme-espirtua, egunen baten, agintzaritzat itzi dauskuzun oiñordetzaren jabe izatera eldu gaitzean. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

E. Amen.

## BEZPERAK

## GORAPEN-ABESTIA

Geratu zaitetz gugaz,  
ba-dator gaba-ta.



Zelan aurkituko zaitugu, ba,  
 eguna illuntzean,  
 zure bidea gure bidea ez ba'da?  
 Geratu zaituz gogaz;  
 maia gertu dago,  
 ba-dogu ogia ta ardaoa.

Zelan jakingo dogu  
 gizonen artean gizon zarana  
 gure mai apalean eskuartzen ez ba'dozu?  
 Banandu eiguzu zure gorputza  
 eta pozak uxatu egingo dau  
 gizonaren gainean dagoan illuntasuna.

Zure aurpegi ederraren gainean  
 eguna urratzen ukusi genduan,  
 eta eguzkia zure aurpegitik aurrera igaroten.  
 Gabeko aizeak ez daiskula atzamatu  
 goizean zure igaroteak  
 itzi euskun su bizia.

Jaurti egizuz zeure billa luzatuta dagozan  
 gure eskuetara  
 Espirituaren txingar iziotuak;  
 eta garbitu gizonaren biotzaren  
 sakon-sakonean  
 erruak illundutako zure irudia.

IRAKURCAI LABURRA. P 1<sup>a</sup>, 3, 18.22

Kristo bein il zan pekatuakaitik, zintzoa zintzo ez garanokaitik, gu Jaungoikoari eroateko. Gizona zan ezkerre, il egin eben; baiña, Espiritua eukan ezkerre, barrero biztu zan; eta zerura

igota gero, Jaungoikoaren eskumaldean dago, eta Aingeruak, Agintari ta Indardunak Aren menpean dagoz.

#### ITAUN-ERANTZUNA

- B. Ikasleak pozez bete ziran. Aleluia, aleluia.  
 E. Ikasleak pozez bete ziran. Aleluia, aleluia.  
 B. Jauna ikustean.  
 E. Aleluia, aleluia.  
 B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
 E. Ikasleak pozez bete ziran. Aleluia, aleluia.

#### BENEDICTUS'ERA KO ANTIFONA

Semeagan sinisten dauana, betiko bizitzaren jabe da, aleluia.

#### ESKARIAK

Goratu ta ospatu daigun Kristo, Jainko Aitak gure itxaropenaren oinarri eta izadi berbiztuaren asikin jarri ebana, eta deadar egin daigun:

*Entzun gagizuz, zeruko Errege orrek.*

Jesus Jauna, zeure odolaz estalduta, zure biztueraren bidez Jaungoikoaren santutegian sartu zintzazan Ori:

—eroan gagizuz Zugaz batera Aitaren erreñura. Zure biztueraren bidez, zeure ikasleen fedea sendotu eta, zure Bari Ona iragartera, mundura bialdu zenduzan Ori:



—egizu, gotzaiñak eta abadeak zure Ebanjelioaren iragarle zintzo izan daitezala.

Zure biztueraren bidez, geure adiskidetasun eta bake zaran Ori :

—egizu, bateatu guztiak fede bakar baten eta maitasun bakar baten batasunean bizi daitezala.

Zure biztueraren bidez, jauretxeko elbarridunari osasuna emon zeutsan Ori :

—begiratu biotz onez geisoak eta agertu egizu arekan zure biotz ona.

Zure biztueraren bidez, biztuten diran ildakoen leenseme jarria izan zintzazan Ori :

—egizu, Zeugan sinistu ta itxaron eben ildakoak zeure aintzan eskuartu dagiela.

Gure Aita...

#### OTOITZA



Pazko onetan artutako doaiak, gure bizitza guztian frutu ugari ekarri dagiela eskatzen dautsugu, Jauna, apal-apalik. Jesukristo gure Jaiaren bitartez. Amen.

## II GEIGARRIA

*JAUNAREN, ANDRA MARIA'REN*

*ETA*

*SANTUEN JAIEGUNAK*



## I. JAUNAREN JAIEGUNAK

Gabonillak 25

JAUNAREN JAIOTZA

GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Aintza zeruetan Jaungoikoari eta bakea lurrean Jaunaren goko gizonai. Aleluia.

OTOITZA

Gizona era miragarriz zeure irudiko ta antzeko egin eta aren egoera era miragarriagoz jasozenduan Jaungoikoa: gaur gizakerea gizonagaz eskuartu dauan Aren jaungoikozko bizitzan eskuartu dagigula egizu. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Gaur jaio da Jesukristo. Gaur agertu da Salbatzaillea. Gaur lurrean aingeruak abestu egiten dabe eta goiaingeruak poztu egiten dira. Gaur zintzoak pozez beterik dagoz, "Aintza zeruetan Jaungoikoari" esanez. Aleluia.

Urtarrillak 1

ANDRA MARI, JAUNGOIKOAREN AMA

GORAPENAK

**BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA.** Gaur misterio arrigarri bat agertu yaku: Kristo'gan izakera bi batu dira: Jaungoikoa gizon egin da, eta, izan zana itzi bagarik, izan ez zana beragantutu dau, naasterik eta banantzerik egin bagarik.

OTOITZA

Maria'ren amatasun garbiaren bidez, andra-gizonai salbamen-ondasunak emon zeutsezan gure Jainko Jauna: biziaren egille dan Jesukristo zure Semea Andra Maria'gandik artu dogun ezker, beronen bitartekotasuna somatu dagigula eiguzu. Zugaz eta Espiritu Santuagaz batera errege bizi zara-ta gizaldien gizaldietan. Amen.

BEZPERAK

**MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA.** Kristo, munduaren Jaun eta Salbatzaille ori: zorionekoa argitara ekarri zenduzan emakumea eta Zuri bu-larra emon eutsuna! Aleluia.

Urtarrillak 6

JAUNAREN AGERKUNDEA

GORAPENAK

**BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA.** Gaur zeruko Senarragaz alkartu da Elizea, Jordan'en Kristo'k Elizea beronen pekatuetatik garbitu egin dautta; Eguzkialdeko Jakitunak euren ondasunak Erregearen ezteguetara doaz eta mai-lagunak poztu egiten dira ura ardao biurtuta ikustean. Aleluia.

OTOITZA

Izarraren bidez, gaurko egunez jentil-erriai zeure Seme bakarra agertu zeutsen Jauna: eiguzu fedez ezagutzen zaitugunoi, egunen baten zeure aintzaren edertasun neurribagea ikustera joan gaitetzala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BEZPERAK

**MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA.** Ospatu dagigun egun santu au, iru mirariz apaindua: gaur, izarrak Jakitunak estalpera eroan ebazan; gaur, Kana'ko ezteguetan, ura ardao biurtu zan; gaur, Jordan'en, Joan'ek Kristo bateatu eban, gu salbatzeko. Aleluia.

## PAZKO-DOMEKEA

## JAUNAREN BIZTUEREA

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Domekan, goizean-goiz, eguzkia urten baiño leen, illobira joan ziran. Aleluia.

## OTOITZA

Gaurko egunez, zure Semearen bidez eriotza azpiraturik, betiko bizitzarako atea zabaltu dauskuzan Jainko Jauna: eiguzu, Aren biztueraren jaieguna ospatzean, Espiritu Santuak gu barriztuta, geroko geure biztuerako itxaropenean bizi gaitezala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Domeka aretan bertan, illunkeran, ikasleak etxe baten batuta egozan, judarrakanako bildurrez atea ondo itxita ebezala. Jesus'ek, arein erdian aurkezturik, "Bakea zuekaz" esan eutsen. Aleluia.

Pazko-aldiko zazpigarren domekea

## JAUNAREN ZERURA IGOEREA

## GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Neure Aitagana ta zeuen Aitagana noa, neure Jaungoikoagana ta zeuen Jaungoikoagana, aleluia.

## OTOITZA

Emoiguzu, Jaungoiko guztiaaldun orrek, gorapen-egikizun onetan poztutea ta Zuri eskerrak emotea, Jesukristo zure Semearen zerura igorea geure garaipena da-ta; eta, Elizearen buru dan ezker, aurrea artu dausku zerurako, Aren gorputzaren atal lez zerurako deituak gara-ta. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Zeruko Errege, munduko Jauna, gaurko egunez zerura garaitu igo zintzazan Ori: ez gagizuz umezurtz itxi, bialdu eiguzu Aitagandik zeure agintaria, Egiaren Espiritua, aleluia.

## PENTEKOSTE

## GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Artu egizue Espiritu Santua; zuek pekatuak parkatu dagiezuezanai, parkatuta geratuko yakez, aleluia.

## OTOITZA

Pentekoste-misterioaren bidez erri guztietan zabaldua dagoan zure Elizea santutzen dozun Jaungoikoa: isuri egizuz zure Espirituaren doaiak lurreko bazter guztietara, eta gaur be bu-



rutu egizuz zure zintzoen biotzetan Ebanjelioaren asieretan egin zenduzan miragarriak. Jesu-kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Gaur dabe euren amaia Pentekoste-egunak, aleluia; gaur Espiritu Santua, ikasleai su-miñen eraz agerturik, bere goi-doiakaz aberastu ebazan, mundu guztira iragartera bialdurik, baita sinistu dagiana ta bateatu daitena salbatu egingo zala autor-tzera be.

## GORPUZTI

## GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Neu naz zerutik jatsitako ogi bizia: ogi onetatik jan dagiana, betiko bizi izango da. Aleluia.

## OTOITZA

Sakramentu arrigarri onetan zeure nekaldia-  
ren gogorapena itzi dauskuzun Jaungoikoa: ei-  
guzu, zure Gorputz eta Odolaren misterio san-  
tuak ospatzen doguzan ezkerro, zeure erospnaren  
irabaziak be somatu daiguzala gugan beti. Amai-  
bagako egunetan Aita Jaungoikoagaz eta Espi-  
ritu Santuagaz batera Jaungoiko ta Errege bizi  
zara-ta. Amen.

## BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Janaldi santu  
onetan Kristo da gure janaria, Beronen nekal-  
diko gomutapena ospatzen dogu, arimea gra-  
ziaz beteten da eta betiko aintza emoten yaku.  
Aleluia.

Urtebarruko azken-domekea

## JESUKRISTO ERREGE

## GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Ildakoen arteko  
leenseme ta lurreko erregeen Erregeak bere  
Aita Jainkoaren erreinu egin gaitu. Aleluia.

## OTOITZA

Dan-dana munduko Errege dan zure Seme guz-  
tiz maiteagan eratu nai izan dozun Jaungoiko  
guztiaaldun eta betikoa: egizu, gizadi guztiak,  
pekatuaren morroitzatik urtenda, errege zaran  
orren serbitzari izanik, beti goratu zagizala. Je-  
sukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Jaungoikoak ze-  
ru-lurretan aginpide osoa emon daust, diño  
Jaunak.

## II. SANTUEN JAIK

Gabonillak 8

ANDRA MARIA'REN SORTZE GARBIA

GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Jainkoak sugeari auxe esan utsan: Asarrea sortuko dot zure eta emakumearen artean, zure ondorengoen eta aren ondorengoen artean; emakumeak buruan zaurituko zaitu, aleluia.

## OTOITZA

Birjiña orban bagarik sortuaren bidez, zure Semeari bizitoki egokia atondu zeutsan Jaungoikoa: eiguzu, zure Seme beraren eriotza aurretiaz begiraturik, pekatu guztitik aldendu zenduanez, geu be, aren bitartez geure erru guztietatik garbituta, Zeugana eldu gaitetzala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Poztu zaitetz, Jaungoikoak geien onetsitako ori; Jauna da zugaz; beste edozein emakume baiño geiago bedeinkatu zaitu Jaungoikoak, eta zeure sa-belean dagoan semea be bedeinkatu dau. Aleluia.

Epaillak 19

JOSE SANTUA, ANDRA MARIA'REN SENARRA

GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Jose, Nazaret izeneko errian bizilagun geratu zan. Olantxe bete zan profetak iragarri izan ebena: Jesus'i Nazaretarra esango eutsoela. (P. A. Aleluia).

## OTOITZA

Gizonen salbameneko leenengo misterioak Jose santuaren zainpean itzi zenduzan Jaungoiko guztiaalduna: egizu, aren bitartez, Elizeak zintzoro gorde eta salbamen osora eroan dagizala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Jesus ogeta amarren bat urtekoa zan, eta Jose'ren semea zala uste eben guztiak. (P. A. Aleluia).

Jorraillak 29

PEDRO TA PAULO, APOSTOLU SANTUAK

GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Auxe esan eban Pedro'k: Jauna, nogana joango gintzakez? Zure berbak betiko bizia emoten daben berbak dira; guk sinistu egiten dogu ta ba-dakigu zu Jaungoikoaren Santua zarana. Aleluia.

## OTOITZA

Pedro ta Paulo santuen apostolu-eginberraren bidez, Elizeari zeure salbamen-egintzako asikiñak emon zeutsazan gure Jainko Jauna: emoi-guzuz, arein bitartez eta irabaziz, gure salbame-nerako bear doguzan laguntzak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Pedro zure apostoluak eta Paulo jentillen irakasleak zeure legea irakatsi euskuen, Jauna.

Garillak 25

SANTIAGO, apostolua

GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Jesus'ek Pedro, Santiago ta onen anai Joan beragaz artu eta mendi-goi batera eroan ebazan, eta an irudiz aldatu egin zan arein aurrean.

## OTOITZA

Santutu ta zaindu egizu, Jauna, zure erria: Santiago apostoluaren laguntzaz indarturik, bizi-kera onaz Zu atsegindu eta gogo nasaiz otseindu zagizan. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Santiago apostolu goragarri ori!, leenengoen artetik aukerata, zeu izan zintzazan Jaunaren kaliza leenen edan zenduana. Zugaitik Aaltsuak egintza andiak egin dauz, aleluia.

Garillak 31

LOIOLA'KO IÑAZIO SANTUA, abadea

Bizkaiko ta Gipuzkoa'ko Zaindaria

GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Bizkor daukat biotza, bizkor, ene Jainko; eutsi, Jauna, artu egizu nire askatasun osoa.

## OTOITZA

Zure izenaren aintza gero ta geiago zabaltzeko, Elizeari Loiola'ko Iñazio abade santua emon zeutsan gure Jainko Jauna: eiguzu, bera lagun dogula ta bere antzera, lur onetan burrukan eginik, beragaz zeruko zorionean eskuartzea merezi dagigula. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Iñazio santuak asmo bakar bat izan eban: Jainkoa gero ta obeto otseindu ta goratu; gauza guztiak Jainkoaren aintzarik andienerako zuzendu ebazan.



Agorrillak 15

ANDRA MARIA'REN ZERURA JASOEREA

GORAPENAK

BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Nor da egunsentia lez agertzen dan ori, illargia baizen eder eta eguzkia baizen garbi, gudurako laguntaldea baizen ikaragarri ori?

OTOITZA

Maria Birjiña zure serbitzariaren apaltasunean atsegindu zaralako, Jauna, zeure Semearen Ama izateraiño jaso nai izan dozu eta egun onetan koroe goragarri ta argitsua ezarri dautsazu; aren bitartez, erospenaren misterioaren bidez salbatu gaituzun guztioi, zeure aintzaren saria be emon dagiguzula eskatzen dautsugu. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Gaur Maria Birjiña zerura jaso izan da; poztu zaitetze, Kristo'gaz erregiña da betiko-ta.

Zemendiak 1

SANTU GUZTIAK

GORAPENAK


BENEDICTUS'ERAKO ANTIFONA. Zintzoak eguzkiak lez egingo dabe argi euren Aitaren erreinuan. Aleluia.

OTOITZA



Jai onetan santu guztien irabaziak era batera ospatzea nai izan dozun Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa: zeruan orrenbeste bitarteko doguzan ezkeru, emon egiguzu zure erruki ugaria. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

BEZPERAK

MAGNIFICAT'ERAKO ANTIFONA. Erreiñu goragarrian santu guztiak Kristo'gan poztuten dira, eta, zuriz jantzita, Bildotsari jarraitzen dautsoe edonora.








### III GEIGARRIA

#### *EGUN-BITARTEKO ORDUA*

*Otoitzik egokiena izan daiteke Meza-ostean egiten diran batzarrak edo lanak asteko, naiz goizean naiz arratsaldeko leenengo orduan izan.*

*Ordu au, lanaldietarako, ikasketetarako, gaiak ausnartzerako, alkarrizketetarako, ikasalditxoetarako eta orrein antzeko batzarretarako da egoki-egokien.*



## EGUN-BITARTEKO ORDUA

SARRERA

ASIERARAKO DEIA

B. Zatoz, Jauna, niri lagun egitera.

E. Jauna, zatoz niri laguntza ekartera.

Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

GORAPEN-ABESTIA

Zure aal-izateak

gizonaren eginbidea ugaritu

eta azi egiten da egun oro aren eskuetan  
zure eskuen egintza.

Maastiko sail bat izentatu

eta "Zatoze ta lan egizue" esan dauskuzu.

Mai bat utsik erakutsi

eta "Ogiz bete egizue" esan dauskuzu.

Gudu-toki bat erakutsi

eta "Bakea eratu egizue" esan dauskuzu.

Egunguentian basamortura eroan gaituzu

eta "Eregi egizue uria" esan dauskuzu.

Gure eskuetan tresnak ipiñi

eta "Egiteko aldia da" esan dauskuzu.

Entzun, Jauna, eguerdian lan-zurrumurrua:  
gizonak zeure soloan diardu.

Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan.  
Amen.

## SALMUTEGIA

1º ANTIFONA. Nire arimeak aldi oro zeure aginduak gura dauz, Jauna.

SALMUA : 118, 17-24

*Legearen egille dan Jaungoikoari gorapen-abestia  
Izan zaitetze bikaiñak, zeruko zuen Aita  
bikaiña danez (Mt 5, 48).*

On egiozu zure morroi oni : bizi izango naz  
eta zeure berbak beteko dodaz ;

zabaldu egizuz nire begiak  
eta zeure naimenaren arrigarriak ikusiko do-  
daz ;

arrotz bat naz lurrean :  
ez ezkutatu zure agintzariak.

Atzamatzen doa nire arimea  
aldi oro zure agindukanako egarriz ;

arroai asarre egiten dautsezu,  
madarikatuak zure aginduetatik aldentzen di-  
ranak.

Urrundu nigandik iraiñak eta destaiña,  
zeure aginduak beteten dodaz-ta ;

andikiak nire aurka †  
mormoxetan egiteko jesarri daitezanaarren be,\*  
zure morroi onek zeure legeak ausnartzen  
dauz ;

zeure aginduak dira nire atsegin,\*  
zeure erabagiak dira nire onulari.

ANT. Nire arimeak aldi oro zeure aginduak gu-  
ra dauz, Jauna.

2º GARREN ANTIFONA. Zintzoro ibilli naitela egi-  
zu, Jauna.

SALMUA : 24

*Guztietariko bearrizanetarako otoitza.  
Itxaropenak ez dau iruzurrik egiten (Erm  
5, 5).*

## I

Zeugana jasoten dot nire arimea, Jauna,  
ene Jainko !, Zeugan dot ustea ;

ez nadilla lotsatuta geratu,  
ez nagiela nire arerioak azpiratu :

ustea Zeugan dabenak †  
ez dira lotsatuta geratzen-eta ;\*  
saltzailleak, bai, orreixek lotsatuko dira.

Erakutsi egidazuz, Jauna, zure bideak, †  
adierazo egidazuz zure bide-zidorrak :\*  
zuzendu nagizu zure egia-bidean ;

irakatsi nagizu, nire Jainko ta Salbatzaille Zeu  
zara-ta;  
zeure zain nago egun guztian.

Gogoratu, Jauna, zure maitasuna ta errukia,  
betikoak dira-ta;

ez gogoratu nire gaztaroko pekatuak,  
ezta nire gaiztakeriak be;

gomuta zaitez nitzaz errukiz,  
zeure maitasunarren, Jauna.

Jauna ona ta zuzena da,  
eta pekatariari bidea erakusten dautse;

—apalak artez daroaz,  
apalai bere bidea erakusten dautse.

Jaunaren bide-zidorrak errukia ta zintzotasuna  
dira,  
Aren alkartasuna ta aginduak beteten dabeza-  
nentzat.

Zure izenagaitik, Jauna,  
parkatu egizuz nire erruak, asko dira-ta.

ANT. Zintzoro ibilli naitela egizu, Jauna.

3<sup>o</sup>CARREN ANTIFONA. Begiratu nagizu, ene Jain-  
ko, eta atara nire larrialdietatik, bakarrik eta  
saminduta nago-ta.

## II

Ba'al-da iñor Jaunari bildur dautsanik?  
Berak erakutsiko dautso aukerako bidea:

alakoaren arimea zoriontsu bizi izango da,  
alakoaren ondorengoak lurraren jabe izango  
dira.

Zabaldu egiten yake Jauna bere zintzoai,  
eta bere alkartasuna jakiñerazoten dautse.

Nire begiak Jaunagan dagoz geldi-geldi,  
nire oiñak saretik Berak ataraten dauz-ta.

Begiratu nagizu, ene Jainko, eta erruki zakidaz,  
bakarrik eta saminduta nago-ta;

zabaldu egidazu nire biotz estu au,  
eta atara nagizu nire larrialdietatik.

Begiratu nire nekeak eta miñak,  
eta parkatu nire pekatu guztiak;

ikusi zenbat diran nire arerioak,  
niri dausten gorroto beroa.

Gorde egizu nire bizia ta askatu nagizu,  
ez naitela lotsatuta geratu Zugana joatean.

Errubagetasunak eta zuzentasunak zainduko na-  
be,  
Zeugan dot ustea-ta.

Onik atara egizu Israel, ene Jainko,  
aren arrisku guztietatik.

ANT. Begiratu nagizu, ene Jainko, eta atara ni-  
re larrialdietatik, bakarrik eta samindu-  
ta nago-ta.



JAUNGOIKOAREN ITZA, ITAUN-ERANTZUNA  
ETA OTOITZA

IRAKURGAI LABURRA. St 1, 19-20. 26

Izan bedi bakotxa entzuteko zuur, berba egiteko eratsu eta asarrerako geldia: gizonaren asarrea Jaungoikoaren zuzentasunaz batera ez dator-eta. Bere miiña ezi bagarik, zintzoa dala uste dauanak, bere buruari egiten dautso iruzur, orrelakoen zintzotasuna alperrekoa da-ta.

B. Jauna bedeinkatzen dot une oro.

E. Jauna bedeinkatzen dot une oro.

B. Aren gorapena beti nire agoan.

E. Une oro.

B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

E. Jauna bedeinkatzen dot une oro.

OTOITZA

Egin dagigun otoitz.

Zeu zara, Jauna, maasti ta ereintzen jabea,  
Zeu arazoa banatzen  
eta langilleai lan-sari zuzena izentatzen dautsezuna:

lagun eiguzu eguneko eginbearra  
ta lanaldiko beroa ondo eroaten,  
zure asmoak beti ontzat artzen doguzala.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

E. Amen.

IV GEIGARRIA

GABEKO OTOITZA

*Norberak egiten dauan otoitza da, eguneko  
lana amaitzean, eta burutu dan lanaren azterke-  
ta egiteko balio dau.*





## GABEKO OTOITZA

### SARRERA

#### ASIERARAKO DEIA

- B.** Zatoz, Jauna, niri lagun egitera.  
**E.** Jauna, zatoz niri laguntza ekartera.  
Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.  
Leen lez, orain eta beti, gizaldien gizaldietan. Amen. (Aleluia).

Asierarako dei ori esanda, ondo litzake geure barruko azterketa labur bat egitea, urrengo damutoitzaz amaiturik:

Autortzen dausat  
Jainko guztiz aaltsuari,  
eta zuei bere bai, nire senideoi,  
pekatu egin dodala  
gogapen, itz eta egitez,  
eta egin-bearrak ez egiñez;  
bai, pekatari naz.  
Orregaitik eskatzen dautset  
Andra Mari beti Birjiñari,  
Aingeru ta Santu guztiai,  
eta zuei bere bai, nire senideoi,  
otoitz egin dagiozuela nire alde  
Jainko gure Jaunari.

## GORAPEN-ABESTIA

Eskerrak Zeuri, Jauna, egunaren azkenean,  
zure eriotzaren irabaziakaitik  
eta egun barruko zure laguntza guztiakaitik;  
eskerrak Zeuri, zeure alkartasunean,  
fedean, itxaropenean eta maitasunean  
bizi izan garalako.

Gau onetako gure loa be  
geure gorapen apal izan dakizula.  
Aintza Aitari, aintza Semeari,  
aintza Espiritu Santuari,  
gizaldien gizaldietan.  
E. Amen.

## SALMUTEGIA

ANT. Nire aragia nasai-nasai dago.

SALMUA : 15

*Kristo eta Beronen atalak biztuerea itxaroten  
dabe.*

*Jaungoikoak Jesus biztu egin eban, eriotz-  
loturak ausirik (Ap 2, 24).*

Zaindu nagizu, ene Jainko,  
nire gordelekua Zeugan dago-ta;

auxe dirantsat Jaunari :  
"Zeu zara nire ondasuna".

Lurreko jainkoak eta jaunak  
ez nabe beteten.

Jainko arrotzen irudiak  
ugaritu egiten dabez;

nik ez dot iñoiz be nire eskuakaz †  
arein odol-oparirik isuriko, \*  
arein izenak nire ezpanetan ez dodaz artuko.

Jauna da nire oiñordetzaren sailla ta nire edon-  
tzia,  
zeure eskuan dago nire zoria :

atal ederra urten yat niri,  
betiko yat nire soloa.

Onulari yatan Jauna bedeinkatuko dot,  
irakatsi egiten nau barruz.

Jauna daukat beti nire aurrean ; †  
nire eskumaldean Bera dodala, \*  
ez dot zirkiñik egingo.

Orregaitik, poztu egiten yat biotza, †  
alaitu egiten yataz erraiak, \*  
eta nire aragia nasai-nasai dago :

ez nozu eriotzara eroango-ta, †  
zure adiskideari usteltzea ezagutzen be \*  
ez dautsazu itziko.

Bizitza-bideā erakutsiko daustazu, †  
atsegiñez beteko nozu zure aurrean, \*  
betiko pozez zure eskumaldean.

ANT. Nire aragia nasai-nasai dago.

## JAUNGOIKOAREN ITZA

IRAKURGAI LABURRA. Ts 1<sup>a</sup>, 5, 23

Bakearen Jaungoikoak bete-betean santutu zagezala, eta zuen espirituak, zuen arimak eta zuen gorputzak oso-osorik akats bagarik iraun dagiela Jesukristo gure Jaunaren etorraildirako.

## ITAUN-ERANTZUNA

- B. Zeure eskuetan, Jauna, izten dot nire espiritua.
- E. Zeure eskuetan, Jauna, izten dot nire espiritua.
- B. Zeuk, Jainko zintzo orrek, askatuko gaituzu.
- E. Izten dot nire espiritua.
- B. Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.
- E. Zeure eskuetan, Jauna, izten dot nire espiritua.

## EBANJELIOKO ABESTIA

ANT. Onik atara gagizuz, Jauna, iratzarrik gagozala; gorde gagizuz lo gagozala, Kristo'gaz zain egon gaitzean eta baketan atsedena artu dagigun. (P. A. Aleluia).

SIMEON'EN ABESTIA. Lk 2, 29-32

*Kristo, errien argi ta Israel'en aintza.*

Orain, Jauna, baketan il naiteke, zure agintzaria bete dozu-ta. Neure begiz ikusi dot Salbatzaillea, erri guztien aurrean atondu dozuna. Bera da atzerriai agertzeko argia eta Israel zure erriaren aintza.

ANT. Onik atara gagizuz, Jauna, iratzarrik gagozala; gorde gagizuz lo gagozala, Kristo'gaz zain egon gaitzean eta baketan atsedena artu dagigun. (P. A. Aleluia).

## OTOITZA

Urrango otoitzetarik bat aukeratzen da.

- Egin dagigun otoitz.  
Gure Jainko Jauna,  
emoiguzu atsedena baretsua  
gure indarrak barrizteko,  
eguneko lanaz makalduta gagoz-ta;  
onela, zeure laguntzaz sendotuta,  
gure gorputz eta espiritu guztiaz  
zeure serbitzari izango gara beti.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.  
E. Amen.



2. Egin dagigun otoitz.

Emon egiezú, Jauna, gure gorputz nekatuak  
 bearrezko yaken atsedena ;  
 eta egizu, gaur geure lanaz  
 erein dogun Erreiñuko azia,  
 betiko bizitzan artzeko  
 erne ta azi daitela.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

E. Amen.

3. Egin dagigun otoitz.

Argitu egizu, Jauna, gure gaba  
 eta emoiguzu atsedeen baretsua ;  
 biar zeure izenean jagi gaitezala  
 eta, osasunez eta pozez,  
 egun barriaren argitzea  
 ikusi aal dagigula.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

E. Amen.

AMAIERA


B. Jainko guztiaaldunak  
 gau baretsua ta eriotza santua  
 emon daiskuzala.

E. Amen.

Andra Maria'ri azken-otoitza.

Zeure magalpean jarten gara,

Jainkoaren Ama ;  
 ez bazartu gure bearrizanetan  
 egiten dautsuguzan eskariak,  
 eta atara gagizuz beti errisku guztietatik,  
 Birjiña goragarri ta bedeinkatu orrek !



## IZTEGITXOA

abagadune: ocasión  
abots: voz  
aintza: gloria  
arkaitz (edo arri-bizi): roca  
atzerritar: extranjero  
  
babeskin: escudo  
burubide: consejo  
bururapen: pensamiento  
  
destaiña: desprecio  
  
egitamu: plan, estructura  
eiztari: cazador  
enda: raza  
eraso: ataque  
erasotaille: perseguidor, atacante  
ereskin: instrumento musical  
erospen: rescate, redención  
erosta: lamentación  
erti: arte  
ertilari: artista  
etsipen: desesperación  
eze: verde (no seco), fresco  
  
gaiki: elemento  
geigarri: apéndice, suplemento  
goiburu: lema  
gorapen-abesti: himno

igarle: profeta  
iruzur: engaño, fraude  
itaun-erantzun: responsorio  
izadi: universo

jatorri-talde: tribu  
jauretxe = Jaunaren etxe: templo

leenseme: primogénito  
lotsabide-semeak: los hijos del oprobio

marratxo: guión  
miritza: ungüento

oben: falta, defecto, culpa  
oiñordetza: herencia  
onulari: consejero  
ortzi: cielo atmosférico  
ospakizun: celebración, función  
otzan: manso

sakabanatu: dispersar

tresna: herramienta, instrumento

## KEREXETA'REN IDAZLANAK

1. **ORBELAK** (1959) (Agortuta).
2. **BITARGI** (1960) (Agortuta).
3. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA** (Iau Ebanjelioak alkartuta: 1960-1961) (Agortuta).
4. **APOSTOLUEN EGIÑAK** (1961) (Agortuta).
5. **EGUNEROKO MEZA** (Missale Romanum: 1963) (Agortuta).
6. **GOGARTEAK** (Aita Basabe-Kerexeta: 1963).
7. **DIDAJE eta APOSTOLUEN SINISKITZA** (1965) (Agortuta).
8. **APOSTOLUEN EGIÑAK ETA IDAZKIAK** (Novum Testamentum: 1955) (Agortuta).
9. **ALKARTASUN BARRIKO ITZAK ETA GAIK** (1965) (Agortuta).
10. **ARGI-BIDE TXIKIA** (Zugasti-Kerexeta: 1965).
11. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BERRI ONA** (Iau Ebanjelioak alkartuta, gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1966) (Agortuta).
12. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (Iau Ebanjelioak: 1966) (Agortuta).
13. **ITUN BERRIA** (Novum Testamentum, osorik, gipuzkeraz: Orixo-Kerexeta-Zugasti: 1967; 2'garren argitarapena: 1974).
14. **SALMUTEGIA** (1967) (Agortuta).
15. **SALMUDIA** (gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1968).
16. **UMEEN BIBLIA** (1969; 2'garren argitarapena: 1974; 3'garren argitarapena: 1982). 120 pta.
17. **UMEEN BIBLIA** (gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1969) (Agortuta).
18. **DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO VASCO** cinco volúmenes: 1970-1971-1972 y 1974). 2.390 pta. ale bakotxa.
23. **GURE SALBAZIÑO-EGINTZA** (Alkartasun Barria: Asce-PPC'na: 1972) 90 pta.
24. **ALKARTASUN BARRIA** (Novum Testamentum, osorik; 2'garren argitarapena: 1972) 275 eta 375 pta.
25. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (2'garren argitarapena; euskeraz eta erderaz: 1973) 275 eta 375 pta.

26. EBANJELIO ALKARTUAK (1973) (Agortuta).
27. KRISTAU-IKASBIDEA (4'garrena) (1974) 50 pta.
28. ELIZ-GURASO APOSTOLIKUAK (Padres Apostólicos) (1975). (1976'garren urtean Baiona'n Agirre-Saria irabazi ebana) 300 pta.
29. EUSKAL-BIBLIA (1976) 1.100 eta 1.500 pta.
30. MEZAKO IRAKURGAIK EUSKAL-BIBLIAN (1976) 50 pta.
31. ASTEGUNETAKO MEZA-OTOITZAK ETA JAINKO-ERRIAREN OTOITZA (1977) 300 pta.
32. DICCIONARIO EUSKERICO (1977) 160 pta.
33. IPARRAGIRRE'REN BIZITZA (1978) 800 pta.
34. GERNIKA'KO BESTE ARBOLA (1979) 765 pta.
35. ORBELAK, BITARGI (2'garren argitarapena), UDAZKEN (1980) 325 pta.
36. ELIZEAREN OTOITZA (1982).
37. DOMEKA ETA JAIEGUNETAKO OSPAKIZUNAK ABADEN BAGARIK (1982).

**JAIME de KEREXETA**

San Roque, 24. Tel. 6820012

Elorrio (Bizkaia)